

# Goienkaria

2006ko uztailaren 21a > Egubakoitza > VI. urtea > 253. zenbakia > Doan banatzeko

www.goiena.net

"Diktadura txiki bat dugu Iruñeko Udalean; lana ez da erraza"

Ainhoa Aznarez  
PSNko zinegotzia > 09



## G2a

Patinatzeko zaletasunak gora egin du > 43

**TURISMOA**  
Su-etenaren eraginez, iaz baino turista gehiago dabil ibarrean > 05

**HILTEGIA**  
Zubillagan hiltzen den ganaduaren %30 bakarrik da eskualdekoa > 06

**KIROLA**  
Aramaioko rallysprinta jokatuko dute bihar, zapatua > 40

**TRANBIA** > ERAKUSKETAK

## Tranbiaren erakusketa bi herrian

Aretxabaletan hil honetan jarriko dute; Bergaran, irailean > 24, 32

**KIROLA** > FUTBOLA

## Elgetak badu futbol taldea

Urteotako helburua bete dute herriko futbol taldea nahi zuten elgetarrek: taldea sortu dute. Oraingo 21 jokalari daude eta gehienak 14, elgetarrak dira; gainerakoak, berriz, bergararrak.

Dagoeneko hasi dira entrenamenduak egiten. Orain, taldea finkatu nahi dute. > 37



Irailera arte, irakurle!

Oporrak hartuko ditugu abuztuaren 24ra bitartean. Horidela-eta, GOIENKARIA-ren hurrengo zenbakia irailaren 1ean argitaratuko dugu. Ordura arte, ondo igaro oportak.

**AURKIBIDEA**

Debagoiena > 05-08  
Elkarritzeta > 09  
Iritzia > 10-11  
Gutunak > 12  
Herriak > 15-39  
Kirola > 40-41  
Kultura > 45  
Sailkatuak > 46  
Eskelak > 47  
Denbora-pasa > 48  
Gazteak > 50  
Komunikazioa > 51  
Telebista-Irratia > 52  
Non-zer > 54-55



IKER BARANDIARAN

**POLITIKA** > TRANTSIZIO GARAICO LANA

## Gaur, 30 urte bete ditu alkateen mugimenduak

**FORUAK** Foruak galdu ziren 100. mendeurren egunean egin zuten aldarrikapen ekitaldia Bergaran

**LIBURUA** Orduan bizitakoa jaso duen liburua aurkeztu dute goizean Bergarako udaletxeen > 02-03

**UDA** > BEROA

## Sargoria egingo du oraindik ere

Egunotan bezala, sargoria iragarri dute abuzturako > 05

**Škoda Octavia Combi Berria.** 20.040 €-tik AURRERA

**Udalaitz**  
Gipuzkoako etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

**Kalitatezko ametsak**  
**beds®**  
Koltxoi dendak

**BEHERAPENAK**  
uztailaren 1etik abuztuaren 31 arte

**OHEAK KOLTXOIAK SOMIERRAK KANAPEAK IZARAK EDREDOIAK**

**%30 erainoko deskontuak**

Zarugalde 25 / ARRASATE Tel.: 943 77 18 35  
Arrizuri 7 / BERGARA Tel.: 943 76 25 91





BERGARA Jose Luis Elkoro orduko alkatearen ondoan, garaiko Bergarako zinegotzi batzuk, tartean Juan Mari Otaegi, Antonio Irazola eta Anjel Azkarate-Ascasua.

UDAL ARTXIBOA. JUAN IDIGORAS FONDOA

**HISTORIA** > ALKATEEN MUGIMENDUAK 30 URTE BETE DITU GAUR

# Erregimenari agur esan, eta herria aldaketa eskatzen hasi zen garaia

**BERGARA** Batzar asko Bergaran egiten zituztelako eta historiagatik beragatik hartu zuen izena 'Bergarako alkateen mugimendua'

**MADRIL** Marcelino Oreja orduko kanpo arazoetako ministroarekin eta Rodolfo Martin Villarekin egiten zituzten bilerak Madrilen eta Euskal Herrian

**ALDERDIAK** Orduan ez zegoen alderdi politikorik eta herritar gisa sartu ziren udaletan mugimenduko kideak, aldaketa egiteko gogoarekin

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA Francoren garaiko zentralismoa apurtzeko eta udalek euren funtzioak berreskuratzeko lanean hasi ziren Euskal Herriko udaletako ordezkari batzuk, Franco oraindik bizi zela. Talde hartan eskualdeko zinegotzi asko zeuden. Bergaran egiten zituzten bilera asko, eta horregatik, *Bergarako alkateen mugimendua* izeña hartu zuen iniziatiba hark. Gaur, uztailak 21, 30 urte bete dira lurraldetasuna, euskararen ofizialtasuna, ikastolen sorrera eta 100 urte atzerago galduak

foruak aldarrikatzeko Bergaran antolatu zuten ekitaldia egin zela. Bada, egun hura gogoratuko dute gaur, orduan Bergaran egon ziren hainbat lagunek, eta esperientzia hura jasotzen duen *Alcaldes en lucha* liburua aurkeztuko dute.

**HERRIAK INDARRA ZUENEKOA** "Herriak bizitasun handia zuen, indar handia, eta horrek areagotu zuen alkateen mugimendua, duda barik", dio Jose Luis Elkorko. 1976an sartu zen hura Bergarako Udalean, baina aurretik hasi zen lanean udalak indartze-

**Ikastolak, ura eta osasun etxeak ziren herriak orduan zituen beharretako batzuk, eta lortzeko lanean hasi ziren**

ko. "Oso pasiboak ziren garai hartan, zentralismo handia zegoen", dio. "Herrian bazeuden talde batzuk lan asko egiten zuteneak herriarendako, Alkartu Nahia eta Promocion Cultural Vergaresak, adibidez. Ikusten nuen herriak behar asko zituela: osasun etxeak eta ikastolak, bestetako beste. Eta horiek lortzeko Udalean sartu behar genuen".

**DEBAGOIENETIK EUSKAL HERRIRA** Bergaran bakarrik ez, Debagoieneko beste herri batzuetan ere argi ikusten zituzten behar

horiek eta berehala hasi ziren elkarren artean hitz egiten. Poliki-poliki Euskal Herri osora zabaldu zen aldaketaren aldeko gogoa zegoela Debagoienean, eta Euskal Herriko herri askok egin zuten bat gogo eta helburu horrekin. "Gure helburuak aldarrikatzeko ekitaldi politikoa egin genuen Bergaran, 1976ko uztailaren 21ean, foruen desagerpenaren 100. mendeurrenean; Ikerriña legeztatzea, euskararen ofizialtasuna, amnistia orokorra, lurraldetasuna eta foruekin galduak eskubideen aldarrikape-

na ziren helburuak, besteak bes-te. Aldarrikapen guztiak Nafarroa hartzen zuten barne, noski. Euskal Herri osoko 68 herritako ordezkariak eterri ziren", kontatu digu Jose Luis Elkorok.

#### 1976KO UZTAILAREN 21A

Luis Arkaus oñatiarra Alemania zegoen egun hartan, enpre-sak bidalita, baina bertatik ber-tara bizi izan zuen fenomeno hura. "1972an sartu nintzen Oñatiiko Udalean, herriaren alde gau-zak aldatzeko asmoarekin. Orduan Reyes Korkostegi zego-en alkate eta herriarendako gauza on asko egin bazituen ere, erregimenaren aldeko zen eta ez zuen guri laguntzeko asmo han-dirik; hura eta Orioko alkatea, gainera, Bergarako ekitaldiaren aurka zeuden. Baino Gurutz Jausoro, Iñaki Zelaia eta hirurok gertu geunden aldaketaren alde lan egiteko. Ordurako Arrasaten eta Bergaran ari ziren gauzak egi-ten eta harremana nuen hango zinegotziekin, elkarrekin lan egi-ten genuelako Fagorren. Guk ez genekien udalek nola funtzi-o-tzen zuten, eta ez genekien non-dik hasi, baina asmatu genuen", gogoratzen du Luisek.


Bergarako alkateek egin zuten lana gutxi baloratuta dago-ea uste du Luisek. "Aldaketa handiak ekarri zituen gertaera hark. Gogoan dut herriak hartu zuen indarrak eta alkateen mugimendua harritu egin zituela bat baino gehiago Madrilen, eta uste dut ez dela behar beste baloratu orduan egindako lana".

#### ALDERDIRIK EZ

Garai hartan ez zegoen alderdi politikorik. "Ni, adibidez, herrian firmak batuta aukeratu ninduten Eskoriatzako Udalean sartzeko. Hasiberritan Donostiara joan nintzen, Gobernazio Zibilera, eta hango atarian ezagutu nuen Jose Luis Elkoro; asko lagundu zidan ordutik aurrera. Ikastolen alde ari nintzen ni lanean, baina uda-lean ez nuen esperientziarik", dio Jabier Errastik. "Bost milioi pezeta nituen orduan herria gobernatzeko, eta ez zegoen ezer, dena zegoen egiteko", gogoratzen du Jabierrek, "baina itxaropena zegoen, euskal nortasuna aldarri-katu gura zuen herriak eta alda-keta egiteko prest zegoen; horrek zuen indarra".

#### MADRILEKIN HARREMAN ONA

Alkateen mugimendu hark oihar-tzun handia izan zuen Madrilen



Euskal Herri osotik eterri ziren Bergarara alkate mugimenduaren iniziatiba bultzatzen.

BUA. JUAN IDIGORAS FONDOA

## Bergarako kaleak jendez bete ziren aldaketa garaia aldarrikatzeko

Laneguna zen gaur 30 urte, 1976ko uztailaren 21a. Hala ere, Bergarako kaleak jendez bete ziren. Heltze-ko zaitasunak izan zituzten batzuek; "Eskoriatzatik bost lagun joan ginen auto baten eta guardia zibilek gelditu egin gintuzten Elorregin jarri zuten kontrolean. Denbora luzez egon ginen han eta berandu heldu ginen ekitaldira", gogoratzen du Jabier Errastik.

Hiru momentu ezberdin bizi izan zituzten egun harten: udaletxe barruan Jose Luis Elkoro Bergarako

orduko alkateak manifestua irakurri zueneko, San Pedro elizako elizkizuna, bertsolari eta guzti, eta udaletxetik elizara bitartean Euskal Herri osotik eterritako 68 herritako ordezkariekin egin zuten kalejira. Ordezkariekin kartelak zeramatzen agerian herrietako izenekin eta jende artean ikurri-nak, *Foruen bidez askatasuna; askatasunaren bidez sozialismoa* zioten pankartak eta ikastolen aldekoan zeuden, besteak beste.

## Bergarako akordioa sinatu zuten mahaia

Ez dago dokumenturik, baina tradizioak dio argazkiko mahtain sinatu zutela Marotok eta Esparterok lehen karlistaldiaren amaiera, 1839ko abuztuaren 31n. Abuztuan zehar hainbat bilera sekretu egin zituzten bi jeneralek eta gerra bukatzeko akordioa Oñatin sinatu zuten; Bergaran, akordio hori publiko egin zuten, dokumentua berretsi eta berriro sinatura, Irizar jauregian. Gero, gerra bukatu zela tropoi adierazteko, bi aldiz besarkatu zuten elkar Marotok eta Esparterok: Fraiskozuri plazan eta Ozaeta kalean. Orduan hasi zen foruen gainbehera.



Mahaia XVI. mendekoa da eta udal artxiboan dago gordeta egun.

O.E.

**'Alcaldes en lucha'  
liburuan jaso dute  
duela 30 urteko  
esperientzia eta gaur  
aurkeztu dute  
Bergaran**


ere. Hemengo alkateek egoera berria antolatzeko lan egin gura zuten eta euren eskaerak eta helburuak lortzeko, bilera bat baino gehiago egin zituzten Madrillgo ordezkariekin. "Marcelino Oreja kanpo arazoetako ministroa zen orduan. Behin Aietera eterri zen eta gonbidatu egin gintuen, gurekin hitz egin gura zuelako. Guk baldintza batzuk jarri genizkion: bilera astelehenean egitea Madrilen eta Nafarroa eskaeren barruan sartzea, horien artean. Batzarra egin genuen eta horren ondorioz lortu genuen Ikurrina legeztatzea", kontatzen du Jose Antonio Altunak, Arrasateko orduko alkateak. "Martin Villarekin ere askotan bildu gin, batzuetan Madrilen eta beste batzuetan hemen", zehaztu du segidan.

1977ko urtarilaren 19an lortu zuten Ikurrina legeztatzea eta baita amnistia ere hilabete berean. Orduan, Debagoieneko alkate hauek zeuden mugimenduan sartuta, aipatutako Elkoro, Altuna, Arkaus eta Errastiz gain: Elgetan, Patxi Basauri; Aretxabaletan, Jose Cruz Etxeberria; Leintz Gatzagan, Teodoro Plazaola; Aramaion, Julian Untueta.

#### OZTOPOAK ERE BAI

Herriak zuen indarra izan zen alkateen mugimenduak izan zuen laguntza handiena. Baino oztopoak ere izan zituen: "Mehatxuak ia egunero jasotzen genituen. Zenbat aldiz aldatu ote nuen nik orduan telefono zenbakia!", esan digu Altunak. "Atentatu asko ger-tatu ziren urte haietan eta horrek ematen dit oraindik min handien", jarraitu du.

1979an egin zituzten Franco hil osteko lehen hauteskunde demokratikoak eta alderdietan sartu ziren alkateen mugimenduko batzuk: "Egungo egoera ere itxaropentsua da, baina alderdi-keriak banatu egin du herria, beste egoera bat da", diote orduko protagonistek.



# ION LEIHOAK

## P.V.C., ALUMINIOA ETA POLIURETANOA

- LEIHOAK • HORMA ARMAIRUA
- ATEAK • ZOLUAK



20500 ARRASATE **Erakustoki eta lantoki berria**  
Debagoina industrialdea. Telleria kalea 4, 11.atea. P.K.172  
Tel.: 943 79 11 35 Faxa: 943 77 31 20

01003 GASTEIZ  
Olaguibel 51  
Tel./Faxa: 945 26 71 73



**Uda honetan  
éKhipoliki**

SONY ERICSSON Z520i      LG F2400      SAMSUNG E350

9\* -ren truke

\* Euskaltel Leihorren eta Hautaketaren bezeroentzako, ondoren ordaintzekotik aurretik ordaintzekora pasatutako bezeroentzako eta etxeeko telefonio mugikorreko operadore nazional batetik etorrita alta eman duten bezeroentzako mugikorraren PSPa, betiere 2006/08/31 baino lehen kontratatzan badute ondoren ordaintzeko etxeek zerbitza 6 €-ko kontsumo minimoarekin, eta 18 hilabetez irauteko konpromisoa hartzen badute. Muga: 50 ale terminal bakoltzeko.

ROUTER  
COMUNICACIONES, S.L.

Errebal, 15  
Eibar  
943 700 369

Maalako Errebala, 8  
Arrasate  
943 712 781

Euskaltel ■ -en Banatzaile Ofiziala

ZURE AISIA ETA  
DIBERTSIORAKO  
HELMUGA

Gasteizko  
BOULEVARD

NEW YORK

**Gasteizko BOULEVARD DENDAGUNEA  
ABUZTU OSOAN ZABALIK**

**el Boulevard**  
de Vitoria-Gasteiz

TURISMOA > BAIKORRAK DIRA IBARREKO ARDURADUNAK

# Iaz baino turista gehiago etortzen ari dira ibarrera

Su-etenak asko eragin du Euskal Herrira turista gehiago erakartzen, baita Debagoienera ere

Ekainean, 586 lagun hartu dituzte Bergarako turismo bulegoan, iaz baino 130 gehiago

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Turismo aurreikuspenak egitea oso zaila da. Hala ere, orain arte ikusitakoak baikor izateko arrazoiak ematen dizkie Debagoieneko turismo arduradunei: jende asko etorri da ibarrera. Honela diosku Iñaki Igartuak, Oñatiko turismo bulegoko arduradunak: "Oso pozik gaude. Iaz baino bisitari gehiago etorri da, eta abuztuan ere antzerako emaitzak espero ditugu". Iaz, 7.000 turista pasa ziren Oñatiko turismo bulegotik ekainetik irailera, aurreko udan baino gehiago; aurten, zifra horiek hobetzea espero dute turismo bulegoko arduradunek.

Euskal Herri osorako aurreikuspenak onak dira. Aditu guztiek diote, eta gureko turismo arduradunek berresten dute,

ETAren su-etenak eragin handia izan duela.

Bergaran, Debagoieneko beste turismo erakarpen nagusian, ekainean 586 lagun hartu zituzten turismo bulegoan, iazko ekainean baino 130 gehiago.

Beste joera garrantzitsu bat ere igartzen da: Espainiako bisitarien artean, jatorria gehiagokoa dabilzala aurten. Hala, madrildar gehiago dato, eta andaluziarrek ere, iaz baino gehiago.

## NON JAN, NON LO EGIN...

Debagoienean turismoa egin nahi dutenek honako bulegoak izango dituzte zabalik: Oñatikoa, Bergarakoa, Eskoriatzako Ibarraundi museoa, turismo bulego ere badena; eta Leintz Gatzagakoa. Horiez gain, Arantzazun Mankon-



BISITA GIDATUAK Monumentuetara bisita gidatuak dira Debagoieneko eskaintza garrantzuenetako bat.

O.E.

munitatearen informazio bulegoa ere badago. Bisita gidatuak eskaintzen dituzte guztietan. Horiez gain, aurtengo eskaintza garrantzitsu bat Oñatiko natura ibilbideak dira: horiek indartu nahi izan dituzte eta, orain arte, jende askok parte hartu du.

Bestelako informazio praktikoa ere ematen dute turismo

bulegoetan: besteak beste, abuztuan zabalik dauden jatetxe eta ostatuen zerrenda.

## IA GUZTIA, ITXITA

Jatetxe eta tabernek, norberak erabakitzentzu du abuztuan zer egin. Turismo arduradunek zabaltzea animatzen dituzte, baina orain goz, ia guztiek oporrak hartzentzu.

dituzte. Salbuespenik badago, ordea. Bergarako Zuhaitzi jatetxeak betidanik zabaldzu du abuztuan, eta esperientzia oso ona da: "Urteko hil lanpetuena da guretako abuztua. Kanpotarrak, lehen baino gehiago etortzen dira, eta herriko jende asko ere bai", azaltzen du Izarrak, jatetxe horretako langile batek.

EGURALDIA > BERO SARGORIA ETA EKAITZA ASTEON

# Abuztuaren lehen erdian bero sargoria izango dugu, baita ekaitzak ere

Asteon termometroa 40 gradu markatzera iritsi da Bergarako kaleetan

Ekaitzak zuhaitzak eta eguzkitakoak apurtu eta lurrak harrotu ditu, besteak beste

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA  
Asteon bero handia izan dugu gurean. Martitzena izan zen egunik beroena, Bergarako San Juan auzoan batutako datuen arabera. 37 gradu harrapatu zituen termometroak; kaleko tenperatura markagailua, berriz, 42 gradura iritsi zen. Beroa zela eta, alerta egoeran egon ziren hainbat erki-dego, EAE tartean.

## MARTITZENEAN EKAITZA

Beroaren ostean, ordea, martitzen iluntzean zakar jo zuen ekaitzak eta horrek hainbat kalte era-gin zituen: Arrasaten, Makatzena auzora ura igotzeko bonbak indarrik gabe geratu ziren; hainbat terrazatan eguzkitakoak

apurtu ditu; eta landa eremuetan, ortuetako lurra harrotzeaz gain, hainbat zuhaitz puskatu zituen ekaitzak. Eskoriatzako Apotzaga auzoan, bestalde, eraikitzen ari ziren baserri bateko horma ere bota zuen haizeak. Aramaion, Untzilla auzoan, haizeak zuhaitz

bat bota zuen errepidera eta era-gin zuen ezustekorik. Elgetan argi barik egon ziren tarte baten.

Bestalde, udako oporrak askok abuztuan hartzen dituzte-la-eta, nolako eguraldia izango dugun jakiteko Joxe Landa eguraldi adituarengana jo dugu.

Landaren esanetan, "egunotako bero sargorirako joerak abuztuan ere jarraituko du, bai bederen lehen erdian. Esan ohi da abuztuak erdia udarena izaten duela eta beste erdia udazkenarenarena; beraz, eguraldia aldatzen hilaren erditik aurrera etorriko da aldaketa".

Gainera, azken egunotan, gau partean, izan ditugun ekaitzak ere segituko dutela esan digu Landak: "Ekaitzak, trumoiak eta zaparradak giroa freskatzeko ondo etorriko dira; baldin eta ekaitzak erabat zakartu eta eguraldia txartzen badute".

**Servimasa**  
Sukalderako altzariendako osagarriak

**FAGOR** etxetresna elektrikoak

- Kooperativistentzako banatzaile espezializatua
- Baldintza ezin hobeak

Tel.: 943 76 19 95  
BERGARA

**FordFocus Trend 1.6 100zp  
13.000€ -gatik**

Atzeko eugipontsioan Blade kontrola  
Abiadura kontrola  
Bi zona aire-girogaluarekin  
Ordenagailua  
Larruzko bolantea  
Irrati CDA

**MUGARRI AUTOAK**  
Araba Etorbidea, z/g  
ARRASATE

**Ford**

Agurne Juldain &gt; Acabe elkarteko psikologoa

# "Elikadura-desorekari aurrea hartza da gure helburua"

Bulegoa toki ezkutuan dugunez gurera lasai etortzeko esan nahi diegu gaixoei

Arrasateko bulegoan azken bi hilabeteetan lau kasu berri izan dituzte

**IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE**  
Euskadiko Anorexia eta Bulimiaren Aurkako Elkartea da Acabe. Elikadura-desoreka duten gaixoek, haien familiakoek eta teknikari eta boluntarioek osatutakoa. Arrasaten du euren bulegoetariko bat eta bertsok psikologo Agurne Juldainek eman ditzigu azalpenak.

#### Zer da Acabe?

Anorexia eta bulimiaren aurkako elkartea. Donostian dago bulego orokorra eta Arrasaten beste bat Debagoieneko gaixondako. Bertan ez da esku-hartze zuzenik egiten, orientazio eta informazio lana baizik. Lagunza psikologikoa ere ematen zaie eta krisi momentuetan ezin badute euren psikologoarengana jo, guk egiten diegu arreta. Gaixoak ez ezik ingurukoak ere etor daitezke lagunza eske: familiakoak, bikotekidea zein lagunak... Denon



Agurne Juldainek Acabe-ko Arrasateko bulegoan egiten du lan. MAIDER ARREGI

artean lortu behar dugu bizimodu ahalik eta normalena egitea; beraz, lehen egiten zituzten gauzak orain ere egiteko esaten diegu; koadrilako afariak, esaterako.

#### Zein dira zuen helburuak?

Elikadura-desorekari aurre hartza; eta garatuta izanez gero, hortik ateratzen laguntzea.

Horrez gain, talde lanak ere egiten ditugu gaixoekin eta familiaekin, bakarrik ez daudela ikus dezaten.

#### Arrasaten non duzue bulegoa?

Altamira auzoan, Jose Luis Iñarra pasealekuaren. Ibarreko jendeak Donostiara jotzen zuen; beraz, esan nahi diegu lokala nahiko toki ezkutuan dagoela eta anonimotasuna gordetzen dugu; beraz, lasai etortzeko.

#### Nori eragiten die anorexiak eta bulimiak?

Neskak onartua den irudi baten bila hasitakoan jausten dira; mutilak, berriz, kirolaren bitartez. Batez besteko adina 22-23 urte da, baina gero eta gazteagoa eta helduagoak etortzen zaizkigu. Bestalde, hiru bulimia kasutik anorexia kasu bat izaten da. Arrasateko bulegoan azken bi hilabeteetan lau kasu berri izan ditugu; eta urtean zehar 10-12 kasu berri. Uda aurretik euren gorputza erakusteko beldurragatik-edo, kasuak ugarrizten dira; baita Gabonen bueltan ere.

## POLITIKA

# Estatu kolpearen gaineko mozioak

Frankismoaren biktimen balioa goraipatzea eskatu dute

#### I.A. > BERGARA

Gobernu errepublikarraren aurkako estatu kolpe militarra gertatu zela 70 urte bete dira uztailaren 18an. Hori dela eta, ibarreko hainbat udaletan mozioak aurkeztu dituzte.

Antzuolako Udalean EAJk aurkeztu zuen mozioa, eskatuz estatu kolpe gaitzestea, oroitzapen historikoa berreskuratzea, ondorioak jasan dituztenen balioa publico aitortzea, frankismoaren biktamei kalte ordainak ematea eta berradiskidetzearen alde lan egiteko konpromisoa hartzea.

#### ESKORIATZAN

PSE-EE alderdiak Eskoriaztako Udalean aurkeztu zuen mozioa. Mozio horren bidez eskatu zuten uztailaren 18a izendatzea Francoren diktaduraren biktimen omenaldi eguna. Bestalde, aurten egingo diren oroimen ekitaldiak bultzatzea.

Ibarreko beste udal batzuetan ere aurkeztekoak dira estatu kolpearen gaineko mozioak.


## Astebaru bat ERRATZUN GIOKELArekin

### Irabazleak:

- Piedad Zabalo  
Mujika harategia. Antzuola.
- Elena Zubieta  
Josu harategia. Aretxabaleta.
- Carmen Perez  
Agirre-Etxe janari-denda. Arrasate.
- Mari Cruz Bermejo  
Gorka harategia. Arrasate.
- Pilar Bengoa  
Jose Elorza harategia. Arrasate.
- Arantza Balzategi  
J. R. Otamendi harategia. Arrasate.
- Maria Azkarate  
Jon Leturia harategia. Bergara.
- Andrea Rennen  
L. M. Rezola harategia. Bergara.
- Juani Hernandez  
Urcelay harategia. Bergara.
- Beatrix Igartua  
Jesus Odriozola harategia. Oñati.
- Agustin Gallastegi.  
Baserritarra. Angiozar.

**Giokela**

ZATOZ GIOKELArekin NEKAZAL TURISMORA  
BASERRI EREMUA EZAGUTU!

*Gure Kaitatza Giokela*

Pasa ezazu astebaru natural bat  
GIOKELAko haragia erosiz.

Irailean bi lagunentzat astebaru zoragarri bat pasatzeko aukera naturan murgildurik.

#### > EUSKARA

### 'Musen arnasatik goi-arnasara, euskal letretan barrena' Ana Toledoren hitzaldia gaur Antzuolan

Juan San Martin zenaren lekua betetzeko Ana Toledo antzuolarraga euskaltzain oso izendatu zuten gaitasunarenengatik eta San Martinen eskualde eta euskalki bereko delako. Gaur egingo du, hain zuen ere, sarrera hitzaldia Antzuolako udaletxeko batzar aretoan. *Musen arnasatik goi-arnasara, euskal letretan barrena* izenburuean egingo du hitzaldia Toledok; eta Jean Haritschelharrek erantzun egingo dio. Euskaltzaindiako kide guziez gain, zenbait erakundetako ordezkariek ere izango dira bertan. Sartu ezinik geratzen direnendako karpa ipini du Udalak pantaila bidez ekitaldia jarraitzeo. Ekitaldi amaieran Antzuolako Udalak herriko bandera eta oroigarria emango dizkio Ana Toledo.

## Zotz jatetxea

- Eguneko menua
- Ogitardekoak
- Hamarretakoak
- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan
- Igandeetan itxita



Zubillaga auzoa 1 / ONATI 943 78 35 45

HILTEGIA &gt; URTEKO LEHEN BOST HILABETEETAKO DATUAK

# Hiltegiko ganadu okelaren %30 da Debagoienekoa

Gainerako erabiltzaileak Bizkaikoak, Arabakoak eta Gipuzkoako beste herri batzuetakoak dira

Hiltegiaren gastuak Debagoieneko Mankomunitateak bakarrik ordaintzen ditu

OIHANA ELORTZA > BERGARA  
Mankomunitatearen datuen arabera, aurten lehen bost hilabetan 938.484,10 kilo haragi produzitu dituzte Zubillagako hiltegian. Kilo gehienak ganadu okelarenak dira, baina ardiak eta zaldiak ere hil dituzte. "Hil duten ganaduaren ia %30, %27,46 zehazki, eskualdeko da. Gainerako %70 Gipuzkoatik eta beste herri batzuetatik ekarri dute", zehaztu du Victoriano Gallastegik, Mankomunitateko hiltegiko batzordeko presidenteak.

Gipuzkoatik, esaterako, Debagoienetik ez ezik, Debabarrenetik, Legazpitik eta Zumarragatik ere ekarri dute ganadua; Bizkaitik, Elorriotik, Abadiñotik, Zaldibartik, Durangotik, Zornotzatik, Igorretik, Dimatik, Mallabikitik, Gernikatik eta Bermeotik ekartzen dute; Arabatik,

Gasteiztik eta Agurainetik. Bestalde, hiltegian hildako okelaren %32,40 banatzen dute gure eskualdean eta %17,43 Debabarrenean.

Hiltegia mantentzeko kostuak Debagoieneko Mankomuni-

## Ganaduaren jatorria

	TONAK	
Debagoiena	241	%27
Gipuz. besteak	180	%2
Bizkaia	199	%22
Araba	188	%21
Nafarroa	61	%
Beste batzuk	9	%1
GUZTIRA	880	%100

tateak bakarrik ordaintzen ditu eta horregatik kexatu da batzordeko presidenteak. "Erabiltzen duten gainerako udal guztiea bidali diegu eskari ofiziala gastuak guztion artean ordaintzeko, baina ez digu inork erantzun", esan du. 2005. urtean, hiltegiak 180.000 euroko galerak izan zituela esan du Gallastegik.

### IA 98.000 EUROKO INBERTSIOA

Hiltegian egin gura dituzten inbertsioak ere jasotzen ditu aurreko datuak dituen txostenak. Horren arabera, bost urteko hiru epe aldition banatu dituzte hiltegian egin beharreko inbertsioak. Lehen epe aldia 2005etik 2010era bitarteko da eta 2006. urtean 97.496 euro inbertituko dituzte. "Hor sartzen dira hozkai-luak konpontzeko euroak ere. Lan horiek dagoeneko adjudikatuta daude eta ohiko prozedurak eskatzen duen denbora behar da bakarrik lanak egiteko", esan du Victoriano Gallastegik. Zorua berritu, ur zikinak kanalizatu eta kamerak jarri dira, besteak beste, Mankomunitateak lehen epe aldirako aurreikusita dituen inbertsioak.

## > AHT Eskualdetik ere pasako da AHTren aurkako martxa

AHTren aurkako kanpaldia egingo dute gaurtik, egubakoitzu, uztailaren 30era Urbinan. Prestatutako egitarauan, ordea, Debagoienean egingo dituzten ekitaldiak ere agertzen dira. Hilaren 25ean, adibidez, mendi martxa egingo dute Zarimutz, Mazmela, Aramaio, Garaia eta Arrasate zeharkatuz. Ogia egiten ikasteko tailerra eta gai jakin batzuei buruzko hitzaldiak ere egingo dituzte hemen hilaren 27a bitartean.

## > INAUGURAZIOA Elgetako Madalena ermita inauguratuko dute zapatuau

Elgetako Magdalena ermita inauguratuko dute bihar, zapatua. 11:00etan Magdalena Ama Birjinaren irudia ermita berrira eramango dute, Maala parkera eta 13:00etan ermitaren inaugurazioa eta bedeinkapena egingo dute. Hamarretako txiki bat, musika eta etxafuegoak ere egongo dira. Magdalena ermita izen bereko ospitalea izan zenaren kapera da. Hantxe biltzen zen San Lorentzoko kofradia.



GOIENKARIA

## Harremanen zozketak badu irabazlea

Asturiaseko hotel baten lau gauetako egonaldia irabazi du Junkal Garai arrasatearrak Harreman gobernu kanpoko erakundeak Ibai Arterekin eta Eroski Bidaia agentziarekin antolatutako zozketan. Zozketaren txartelak ekainaren 3an egin zuten Elkartasun Egunean saldu zituen Harremanek. Zenbaki saritua ez da hilabekoa epean agertu eta erreserba zenbakirendako izan da saria, Junkalendako.

## euskara plazara

DEBAGUNE-REN BULETINA



Udan ez ezik urtean barrena ere izaten dira barnetegiak.

MAIZPIDE

## Barnetegiak, udan euskara ikastaro trinkoak egiteko aukera

### DEBAGUNE > DEBAGOIENA

Euskara ikasi nahi eta une egokia topatzen ez duenik badago; beste batzuk, aldiz, udan duten aisialdirako asti apurra aprobetxatuz euskara ikastera joaten dira, nora eta barnetegietara. Horietan, ikastaro trinkoak egin daitezke, eta norberaren beharretara eta euskara mailara egokitzen diren ikastaroak daude aukera.

Urte guztian barrena zabalik izaten dira batzuk eta udarako ikastaro bereziak eskaintzen dituzte beste batzuetan. Gehienak euskaltegiek antolatutakoak izan ohi dira. Egonaldiak bi astetik hasi eta 25 egunera artekoak izan daitezke eta prezioak askotarikoak dira tokiaren, sasoaren eta egun kopuruaren arabera. 400 eta 450 euroren bueltakoa izan ohi da ordaindu beharreko gehienetan.

### UDAKO BARNETEGIAK AURTEN

Aurten ere barnetegi eskaintza zabala dago udarako. Lazkaon Maizpide barnetegian maila guztia irakasten dituzte; baita Zornotza-koan ere, nahiz eta han egonaldiak bi aste inguruokoak izan. Zornotzako Uztarrin 16 eta 20 urte bitarteko gazte-txoendako egiten dute barnetegia. Bilbo Zaharra euskaltegiaren barnetegia Gorozikan dago.

Ibarrean ere bada barnetegirik: Uribarrikoek Arantza-zun egiten dute, baita Lezaunen, Nafarroan ere. Gabriel Arestikoek Ondarroan, Bakaun eta Bilbon jasotzen dituzte euskara eskolak. Labayrukoek Derion eta Ikakoek Zubietan eta Lesakan.

AEK euskaltegiak, berriz, Iparraldean Urepelen, Uztaritzen eta Ligin ditu barnetegiak; Nafarroan Arantza, Gipuzkoan Adunan eta Zerainen; eta Bizkaian Foruan.

Helduendako ez ezik badira gaztetxoendako ikastaro bereziak eskaintzen dituzten euskaltegiak; baita familia-dako egonaldiak antolatzen dituztenak ere.

Udan, beraz, euskara ikasteko gogoa eta modua dute-nek barnetegietan ikastaro trinkoak egiteko aukera aprobetxa dezakete. Informazio zehatzta barnetegietan bertan edo norberaren herriko euskaltegietan jaso dezakete interesatuek.

**Gurean ere bada  
barnetegirik:  
Arantzazun egiten  
da egonaldia**

**Udako egonaldi  
gehiengoa bi  
astekoak dira,  
baina badaude  
25 egunekoak ere**

**gure artekoak**

**URKUILU INTSEMINAZIO ZENTROA** > Antzuolako Irimoegi auzoan du Euskal Herriko Untxi Zainen Federazioak untxien intseminazio zentroa. Untxi arrak dituzte bertan eta euren hazia erabiltzen dute beste granja batzuetan.

Zuriñe Arroita

## "Kalitatezko untxiak lortzea da zentroaren helburuetako bat"

**IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA**  
Aurrez ere untxi granja izandako pabilioi batean dauzkate 300 untxi ar Antzuolan. Bi lagun arduratzent dira haien zaintzaz eta kontrolaz. Federazioaren helburuetako bat da kalitatezko haragitarako untxiak lortzea.

**Zer da zuen zentroa zehazki?**

Untxiendako intseminazio zentroa da. Genetikoki maila altua duten arrak dauzkagu eta hazi-dosiak gertatzen ditugu EAEko granjetara bidali eta emeak intsemina ditzaten. Granja horietan okelatarako untxiak hazten dituzte.

**Nolatan ipini zenuten abian?**

EAEko untxi granjak elkartuta daude eta denen artean federazioa sortu zuten. Federazioak hainbat zerbitzu eskaintzen ditu: salmenta bateratua, pentsu erosketa bateratua, albaitaritza... Zerbitzu horietako bat da, hain zuzen ere, intseminazio zentroa.

**Nola egiten duzue lan?**

Untxiak txikiak direnean ekartzen ditugu Frantziatik. Behin helduak direnean, astero-ko lana da behar duten granjendako dosiak ekoiztea. Bagina artifizial batekin hazia hartzen zaio arrari; gero kalitatea baloratzan



Zuriñe Arroita albaitari teknikoak animalien kontrola egiten du. I.A.

**FITXA TEKNIKOA****> UNTXI KOPURUA**

Antzuolan 300 untxi ar inguru daude; zerbitzua, berriz, 40 granjari eskaintzen diente.

**> LANGILEAK**

Bi langile daude: animaliak eta instalazioak zaintzeko eta albaitaria animalien kontrolerako.

**> BANAKETA**

Untxi-zale batzuk zentrora joaten dira hazi bila; besteei eraman egiten diente. Intseminazioa untxi-zaleek zein zentrokoek egiten dute.

da eta onartutakoak kontserbatu, potoratu eta granjetara bidaltzen ditugu. Tarteka animalien analisiak ere egiten ditugu.

**Zein instalazio duzue?**

Animaliendako sei gela eta laborategia. Bertan mikroskopioak, berotzeko pletinak, esterilizaziorako eta hazia kontserbatzeko berogailuak... daude.

**Intseminazio asko egiten da?**

Gero eta gehiago; horrela, lana arrazionalizatu, kalitate altuko produktuak lortu eta untxi-zainen bizitza kalitatea hobetzen da.

**begi-bistan**

### Musakolako igerilekuak jendez lepo (Arrasate) 2006/07/18

Argazkia: Iker Barandiaran.  
Testua: Irati Agirreazaldegi.

Beroa izan da aste honetako protagonistetako bat. Tenperatura markagailuek 40 graduak gainditu dituzte. Bada, beroari aurre egiteko, arrasatearrek igerileku- ra egin dute jauzi.

**Har ezazu parte:**  
Argazkia eta azalpentxoak bidali honako helbidera:  
goienkaria@goiena.com

**etxeko leihotik**

Eneko Azkarate &gt; GOIENKARIAko zuzendaria

## Unibertsitatea, ikastola eta auditorioa

Errege Seminarioa Bergarako herriari eman dio Madrilgo Gobernuak. 1836an Mendizabalen desamortizazioaren ondorioz domingotarrei kendu zien eraikina Estatuak. Orain, UNEDeko patronatuari itzuli dio.

Albiste pozgarria da eta nabarmenitza merezidu. Batez, urrutiko unibertsitatea finkatu eta indartu egingo delako Bergaran. Bestetik, Aranzadi Ikastolak eraikin horretan segitu ahal izango duelako. Hau ez dut alferrrik aipatzen, ze orain dela hiru urte eskas Madrilgo Gobernuak –orduan PPren eskuetan– baldintza moduan jartzan baitzuen ikastolak eraikina uztea Errege Seminarioa Bergarako herriari emateko. Eta, azkenik, Seminarioko elizan erabilpen askotarako izango den auditorioa egin ahal izango duelako Udalak.

Victoriano Gallastegi Bergarako alkatea poz-pozik zegoen joan zen egubakoitzean, zesiōaren berri eman zuenean. Ulergarria da, ze hori lortzeko urte piloa eman baitu negoziazioetan Madrilekin. Merezidu gogoratzea, bestalde, orain dela 30 urte Bergarako herriar eta agintariekin, Jose Luis Elkoro alkatearekin, egindako lana, besteak beste, haien abiatu baitzuten UNED Bergaran.

**> Auditorioa egingo dute 500 lagunendako Seminarioan. Eskatzen diot Udalari asma dezala, eta herritarren eta kultura eragileen iritzia aintzat har ditzala: ze erabilpen emango zaio? Ze kudeaketa modu?...**

**> Kulturaren, hezkuntzaren, ikerkuntzaren, berrikuntzaren, aurraren... topaleku izan da Errege Seminarioa, batez ere Euskalerriaren Adiskideen Elkartearren eskutik. Hala izan dadila etorkizunean ere.**

**izen propioak**Aitor Arregi  
ZINEMA ZUZENDARIABeñardo  
Kortabarria  
KAZETARIAMaialen Fdez.  
de Arriobe  
MODELOA

Aitor Arregi oñatiarraren *Cristobal Molon* animazio filma eskainiko dute Donostiako Beldurrezko Zinema Astean, azaroan. Filma Kursaalean haurrendako espresuki antolatutako emanaldi berezian emango dute. Iru-soin eta Dibulitoon ekoizpen etxeen produkzioa da.

Tecnalia sarietan aipamena lortu du Beñardo Kortabarria antzuolarrak zuzentzen duen ETBeko *Teknopolis* saioak. Sarien helburu da komunikabideetan dihardutenak animatzea ikerkuntzaz, berrikuntzaz eta garapen teknologikoaz berriak idazterea. El canto del loco musika talde madrildarraren azken bideoklipedan hartsi du parte modelo arrasatearrak. *Zapatillas Besos* abesitiarena, hain zuzen ere. Kantu hau udako abestietako bat izan daitekeela esan dute eta telebistan ematen dihardute.

Bizimodua Iruñean egin duen antzuolarra da Ainhoa Aznarez. PSNko zinegotzia, Iruñeko Uda-

lean egiten du lan. Osasuna taldeko Iñaki Arteaga futbolari ohiarekin ezkondua dago eta 35

urte ditu. Oraindik ere familiar- tekougariditu Antzuolan eta sarri etortzen da bisitan. Zinegotzi izan

aurretik, irakaskuntzan ibili zen. Horrez gain, UGTko idazkari nagusi izan zen Sakanan.

Ainhoa Aznarez > PSNko zinegotzia Iruñeko Udalean

# "Ez da erraza Iruñeko Udalean lan egitea, diktadura txiki bat bizi dugu"

AMAGOIA LASAGABASTER > ANTZUOLA Oposizioan egotea gogorra dela dio. Hurrengo hauteskundeetan, CDN eta UPN alderdiak agintetik kendu gura ditu. Bitartean, etorkizun hobe baten alde lanean jarraitzeko gertu dago. Noizean behin, baina, lana albora utzi eta jaietan murgiltzea gustatzen zaio. Joan den asteburuan Antzuolako festetan izan zen, eta Arrasate Irratian ere elkarriketa egin zioten.

San Ferminetan, bederatzi egunez jaietan pasa ondoren, nondik atera duzu indarra Antzuolako jaietara etortzeko?

Ez dakit. Jai mundialak dira San Ferminak, baina Antzuolakoak ez dira atzean gelditzen. Ikasturtea gogorra izan da, eta lanerako moduan, jaietarako ere gertu izan behar da. Edonola ere, uste dut bi jaietan jende gutxiago ibili dela; puntukako gidabaimenak-edo izango zuen eragina.

**Hasiera bitxia izan zuten San Ferminek?**

Bai, pregoian gertatutakoa oso tristea izan zen. Aralarrekoek aurretik komentatu zuten pregoian zer esango zuten, eta, noski, alkateak gertu zuen bere parte-hartzea. Pentsa, Yolanda Barcinak mikrofona zapi gorriaren atzean gordeta zuen. Izugarri gustatzen zaio protagonismoa gure alkateari. Nire ustez, momentu hartan, balkoia eta baita pregoian parte hartzeko oho-re nagusia ere Aralarreko zinegotziei zegokien bakarrik. Oso itsusia iruditu zitzaidan alkateak egindakoa.

**Nolakoak dira Yolanda Barcina alkatearekin hartu-emanak?**

UPN alderdiak 13 zinegotzi ditu Iruñeko Udalean, baina haien guztien gainetik dago alkatea. Ahots bakarra du UPNk Iruñean, eta hori Yolanda Barcinarena da. Ez da erraza harekin lan egitea. Beti kalean dago herritarrekin berba egiten; asko gustatzen zaio argazkietan azaltzea.

**Zein lan egiten duzu Iruñeko Udalean?**

Herritarren Zerbitzua ize-neko batzordean dihardut. Osasuna, ingurumena, emakumea, kirola, gazteria, kultura... Hainbat alor lantzen ditugu. Lan ugari egiten dugu, baina ez da erraza Iruñeko Udalean lan egitea, diktadura txiki bat bizi dugu. UPNk eta CDNk dute agin-



Sari etortzen da Ainhoa Aznarez Antzuolara, eta joan den asteburuan, festetan ere, bertan izan zen.

JOSETXO ARANTZABAL

## IRUÑEKO ALKATEA

**"UPNk 13 zinegotzi ditu Iruñean, baina horien guztien gainetik dago alkatea, Yolanda Barcina"**

## EUSKARA

**"Ez da samurra Iruñeko Udalean euskaraz lan egitea; itzultzaleak baditugu, baina alferrik"**

## AHOTSAK PLATAFORMA

**"Kritika gogorrak entzun behar izan nituen; hala ere, denborak arrazoia eman dit"**

tea, eta oposizioari ez digute ezelako informaziorik ematen. *Sherlock Holmes*-en lana egin behar dugu esku artean dituzten gaiak zeintzuk diren jakiteko. Gure helburua da datorren urtean hauteskundeak irabazi eta UPN eta CDN agintetik kentzea. Iruñaren irudia aldatu egin

gura dugu. Politika ezkertiarra-goa egin eta hezkuntza eta osasun alorrik aldatu behar ditugu, besteak beste.

**Nola aurreikusten dituzu hauteskunde horiek?**

Inkesta batek zioen datorren urtean alderdi ezkertiarrok

gehiengoa izango dugula Iruñeko Udalean. Hori positiboa izango da. Lan egiteko era erabat aldatuko dugu.

**Bake prozesuan zein rol izan beharko luke Nafarroak?**

Lehenengo eta behin, Nafarroako presidenteari esan behar-

ko genioke Nafarroa nafar guztioi nahi duguna izango dela eta ez UPNk eta CDNk gura dute-n. Egun hasitako prozesua defenditu eta errespetatu egin beharko dugu. Politikariok, gainera, indar guztia jarri behar dugu honi irteera ona bilatzeko. Zapaterok, Aznarrek bere garaian egin ez zuen bezala, publikoki azaldu ditu emango dituen urratsak, eta hori ona da. Gogor lan egin behar dugu amestutako bakea lortzeko.

**Euskaraz egiten duzu Iruñeko udaletxean?**

Bai, baina ez da samurra iza-ten. Zinegotzien artean, nik eta Aralarrekoek bakarrik egiten dugu euskaraz. Itzultzaleak badi-tugu, baina alferrik. Osoko bil-kuretan, euskaraz egiten dugue-nan, gainerako zinegotziek ez dute belarriko aparailurik jar-tzen. Euskaraz esandakoa ez dute entzun gura izaten. Edonola ere, euskaraz egiteko eskubidea dut eta hizkuntza horretan jarraitu-ko dut lanean.

**Ahotsak Plataformako kidea zara. Zure alderdiari ez zitzaien asko gustatu hori...**

Badakit, baina lan honetan beharrezko da ausarta izatea. Etorkizunari begiratu eta aurre-rra jarraitzeko urrats finkoak egin behar dira. Duela bi urte eskatu zidan Gemma Zabaletak parte hartzeko eta, proiektua gustatu zitzaidanez, baiezko eman nion. Ordutik hona, kritika gogorrak entzun behar izan ditut eta, saso baten, oso gaizki pasatu nuen. Hala ere, denborak arrazoia eman dit. Sozialistak ezker abertzaleko ordezkariekin hartu-emanetan hasi dira, eta hori positiboa da. Denok mahai baten inguruan jarri behar dugu berba egiteko. Uste dut plataforman parte har-tzeko nire hautaketa inbidia sortu zuela bere garaian. Niri dei-tu zidaten eta beste batzuei ez. Hala ere, ordutik hona herritar askoren laguntza izan dut.

**Sarritan etortzen zara jaioterra, Antzuolara?**

Ama Antzuolakoa dut eta arrazoi horregatik barrubarruan daramat. Lau urterekin egin nuen alde Antzuolatik. Orain, lagunak eta familiakoak ditut han eta haiek bisitatzen joaten naiz ia astero. Festetan ere ederto ibili naiz. Eztarria urratuta daukat, baina gorputza sekula baino hobeto sentitzen dut.



zabalik

Urko Lopez

## Petrolioaz aztergai

**E**konomia garatuen azken mendeko ibilbidea, neurri oso handian, garraio mota desberdinaren garapenari dago lotua. Kontsumitutako ondasun asko kanpotik ekarriak dira. Petrolioaren prezioak gora egiten duen heinean garraio kostuek ere gora egiten dute eta, ondorioz, garraiatutako ondasunen prezioek ere gora egiten dute garraio kostuak estali ahal izateko.

Azkenaldian, Brent kupelaren balioak gora egin du eta muga historikoetara iritsi da, 78,18 \$ aste honetan. Petrolio dagoen herrialde askotan ezegonkortasuna (politikan, ekonomian, gizartean...) da ezaugarririk nabarmenena. Honek petrolio horriduran eragiten du, bere prezioa garestituz. Honela, tentsio inflazionistak eman daitezke, eta ondorioz krisi arriskuak ere, iraganean gertatu den bezala.

Hori ekiditeko, inflazioaren aukako politikak aplikatzeko dira, zeintzuen artean interes tasen igoera den neurrikin erabilienetakoak, honek beste hainbat gauzatan eraginez (urrezkiak, inbertsioak, maileguak...).

Arazorik handiena energia iturrien dibertsifikazio falta da, batez ere garraioari begira. Ondorioz, herrialde askotan erregai desberdinak hasi dira bultzatzen ikerketa lerro estrategikoak finikatuz (adibidez, hidrogenoaren bidezko energia).

Honako hau funtsezkoa da energia iturriak dibertsifikatu eta agortezina ez den petrolio etorkizunean ordezkatu ahal izateko.

Halere, honetarako beharrezko da batez ere garraio sektorean ari diren azpisektoreek (automobilgintzak, hegazkin-gintzak eta ontzigintzak, batez ere) honen aldeko apustua egitea, berau bultzatuko duen sektore publikoaren politika aktibo bezain eraginkorrekin.

### "Petrolio dagoen herrialde askotan, ezegonkortasuna ezaugarrria da"

### "Energia iturriak dibertsifikatzearren aldeko apustua egin behar du garraio sektoreak"

## Goienkaria

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE  
Lehendakaria Esteban Plazaola **Zuzendaria** Nagusia Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Leire Kortabarria **Saireetak arduradunak** Ubane Madero (Herrrialdeko), Edu Mendibil (G2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea) **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzelai, Oihana Elortza, Aintzane Irizar, Iñaki Agirreazaldegi **Oinarriko diseinua** Goi Arana **Maketazioa** Alex Azkarate **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amalia Mundilhano, Zurielza Martín, Imanol Elortza, Txaso Bereziar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzaran, Ane Bereziar, Iratxe Bengoa

### EGOTZA NAGUSIA

**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13

Posta-e: goienkaria@goiena.com

### ORDEZKARITZAK

**ARRASATE** 20500 Otañora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89

Posta-e: arrasate@goiena.com

**ARETXABAleta** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93

Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.155 ale • **Difusioa:** 18.629 ale.



OID erakundeak  
ikuskatutako astekaria

### LAGUNTZAIKAK



Eusko  
Jaurlaritza



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Bergarako  
Udala



Oñatiako  
Udala



Aretxabaletako  
Udala



Eskoriatzako  
Udala



Antzuolako  
Udala



Aramaioko  
Udala



Elgetako  
Udala



Leintz Gatzagako  
Udala

## herriarrak galdezka

ABUZTUAN IGERILEKUETARA  
JOATEKO AUKERAK

**"Abuztu gehienetan herrian emango  
dut, eta igerilekuak zabalik izan-  
go ote dudan, horixe jakin nahi  
ko nuke", dioskur irakurle batek.**

**badira, arau-hauste guztiekingal-  
tzendira ala batzuekin bakarrik?",  
gaineratzen du.**

Bai, udaltzainen isunek puntuaren  
galera dakarte kasu batzuetan.

Hala, autoa aparkatu duen  
moduagatik zirkulazioa oztopa-  
tzen duenak edo guztiz espaloian  
sartu duenak, isunaz gain, pun-  
tuak galduko ditu. Izan ere, bi fal-  
ta horiek puntu galera dakarten  
arau-hauste moduan zehaztuta

daude: zirkulazioaren dako  
oinezkoendako arriskua sortzen  
duen egoera da.

Gaizki aparkatzen den guztie-  
tan ez dira puntuak galtzen,  
ordea; baldintza batzuk izan  
beharrak dira.

**BITERIKO APARKALEKUAREN  
UDAKO ESKAINTZA**

**Arrasatear batek galdera hau helarazi digu: "Garajerik ez daukat, eta  
oporretan kampoan nagoen bitar-  
tean autoa kalean uzteak kezka-  
tu egiten nau. Biteriko aparkale-  
kuan utz dezaket?"**

Bai, badago aukera hori Biteriko  
aparkalekuaren. Horretarako,  
haienbat tarifa dago: autoa aparka-  
lekuan hil osoan uzteko, 86,70  
euro; eta aste oso baterako, 35,47.  
Urte osorako bonoa gura izanez  
gero, egunez erabilita, 670,14 euro  
dira; gauez, 512,45.

Bestetik, Bikani enpresako  
Janire Nieto arduradunak gogo-  
raranzen du 50 urterako aparka-  
lekua alokatu gura duenak  
%10eko beherapena izango due-  
la irailaren 15era arte: 13.500 euro  
ordaindu beharko du.

## marrakiz

Unai Busturia



## Eskeletoak

**Txuma Murugarren**  
www.berria.info/blogak/txuma

**E**gunakaria ireki zuenean,  
arkeologo batzuek  
aurkitutako hezurdura  
batzen argazkia ikusi zuen,  
zinta metriko bat alboan,  
hildakoaren datu garrantzi-  
tsuagorik ezean, luze-zabalare-  
kin konformatukoa balira  
bezala.

Ez dakit zergatik ez duten  
gaunko hilobietan hildakoaren  
neurri zehatzak jartzen, modu  
ezabaezin batean. Etorkizune-  
ko arkeologoek lan bat gutxia-

go izanen lukete horrela.  
Hemen datza 1,80 / 80-90-80  
(Oharra: haragia galtzean  
gerta daitekeen aldea ez da  
kontuan hartu).

## Atxosterik Atxostera

**'Amatiño'**  
www.eibar.org/blogak/amatino

**A**ipeak ardaztat hartze-  
kan, ez dakit zergatik  
Italia trasalpetarra den  
eta ez diren, ostera, Suitza,  
Austria edo Alemania... Ze,

Italiatik ez ezik, Euskal  
Herrikin ikusita ere, Alpeen  
iparraldean dauden herriak  
dira, hain zuzen ere, trasalpe-  
tarak, eta ez Alpeen hegoalde-  
koak.

Antzerako eurozentrismo  
zaharkituan jausi izaten gara  
Australia antipodetan koka-  
tzen dugunean edo ipar haizea  
hotza dela diogunean. Besterik  
uste arren, mundu erdian  
behintzat hegoalderako joten  
dut mendikaldeak dira  
ainubeenak eta izoztuenak.

Paradoxa honetaz Lino  
Akesolo dimar eruditioa jabetu  
zen Bitanoren "Atalak"  
(Kuliska Sorta. 1967) aleari



# Ignacio Lakunzari, Arrasateko kultura zinegotziari

Ramon Ugalde Gorostiza  
Arrasate

Gutun ireki hau idazten dizut, Arrasateko alkate izateaz gain kulturako zinegotzia ere bazarelako. Izan ere, ez dira asko Arrasaten dauzkagun eraikin aipagarriak, eta horien artean, nire iritzian, noski, Elmako bulegoen eraikina dugu. Ikusten ari naizenez, orube horretako urbanizazio planaren arabera, Elmako eraikina ez dute botako, baina bere lau aldeetatik hirutan, zazpi edo zortzi plantako etxebizitzak eraikiko dituzte, eta Elmako eraikinaren edertasuna guztiz estalita geratuko da. Elmako bulegoaren inguruan jasoko dituzten etxeak metro eta erdira baino gutxiagora egingo dituzte eta eraikin hori guztiz itota geratuko da.

Nire ustez, kulturako zinegotzia zarenez, holako astakeria urbanistikoaz ez zenuke inolaz ere onartu behar, hau da, Elmako eraikin hori dagoeneko mondragoetarron ondare kultural bat da, eta ondare kultural bat denez aparteko babesera merezi beharko luke. Beraz, kulturako zinegotzia zarenez, zure esku dauden ahalegin guztiak egin beharko zenituzke eraikin hori behar bezala babesteko eta Arrasateko hiri egiturari merezi duen lekua emateko eta bere edertasuna nabarmenarazteko. Uste dut kulturako zinegotziaren ardura eta erantzukizuna dela ondare kulturala zaintza.

Elmako eraikina estaliz gero, zein ondare arkitektoniko geratzen zaigu Mondragoena? Arrasate inguruko paisaia erabat desitxuratuta geratzen ari zaigu harrobi, autopista eta poligono industrialekin. Herri barruak ere hainbeste eraikuntzarekin, hain dentsitate trinkoekin, hain porlan eta granitzko harlosekin izaera gogorregia dauka. Elmako eraikinarekin, bere edertasunean zainduz gero, Arrasatek beste arintasun bat irabaziko luke, beste alaitasun bat.

Hiri gehienetan saiatzen dira halako eraikin mugarriratzuk gordetzen (*edificios hito* deitez zaie erdaraz). Bilbon bertan Guggenheim museoa eraiki behar izan dute hirian nolabaiteko marka-edo izateko. Beste leku batzuetan eraikin historikoak dauzkate: elizak, dorreak, monumentu

## Barkamena

Pilar Etxaniz Kortabarria > Antzuola

**E**z dituzue lerro hauek irakurriko. Hala ere –despedida gisa edo– idazteko beharra sentitzen dut. Farzana, Tariq, Baleegha, Hira, Toheed, Shakir, Antzuolatik zoazte hemen gustura zaudeten arren eta gu ere zuekin ondo. Ez dugu gehiago zuen jakin-minaz gozatuko; ezingo gara harritu Toheed zenbakiak eta hitzak idazten dihardunen; ez ditugu Shakkiren goizeroko agurra euskara garbian entzungo; ezta Baleegharen lanak ikusiko anaiak zaintzen; ez dugu Hiraren kuriositatea ase beharrik izango; seme-alaben lorpenen aurrean ez ditugu amaren begin distira gehiago ikusiko, ezta bere irribarre zabala berak ere asko ikasi duela esaten diogunean; ez dugu adi ego beharrik izango aitak elkar-ulertzeko egiten duen ahaleginari erantzuteko.

Ondo zaudete Antzuolan eta ondo egongo ginateke elkarrekin aurrerantzean ere. Baino bazoazte. Eta guk faltan botako zaitutzegu. Eta gure umeek zuekin eta zuengandik ikasteko aukera galduko dute: gauzak nola zaintzen dituzuen, ura nola baloratzen, duzuena nola eskertzen, elkarren laguntzarekin nola garen gauza zailak ikasteko gai, etab.

Baina bazoazte. Sallabenteko etxeak bota behar dituzte adosatuak egiteko, eta antzuolarrok ez daukagu zuendako etxerik. Kartel handiak dauzkagu herrian zehar gure Etxegintza planak harrotasunez (edo harrokeriaz?) azaltzeko, baina ez daukagu zuentzako lekurik. Ehunen bat etxebizitzak hutsik dauzkagu, baina ez dira zuentzako: familia handia osatzen duzuelako (ahaztu egin zaigu, nonbait, zenbat seme-alaba garen edo izan ziren gure gurasoak), eta, gainera, gure etxeak dotoreegiak dira zuentzako eta hobe hutsik, azken finean, ez dugu zuen diruaren beharrik.

Gutariko asko kristau zintzoak gara, beste asko ezkerriar iraultzaileak; gure ordezkariak herriaren alde diharduten horietakoak dira; antzuolarrok solidarioak gara eta gure mahatik jausitako apurra banatzen ditugu noizbehinka Hirugarren Munduko gosea baretzeko. Baino hemen ez da horrelakorik gertatzen...

Bazoazte, bada. Agian, egunen baten, gure kalterako dela ohartuko gara, geu ere galtzen irteten garela. Bien bitartean, barkatu eta hartu besarkada handi bat.

erraldoiak... Arrasaten, Elmako eraikina dugu hiritar funtzi horiek guztiak bete ditzakeenak: monumentaltsun nabarmena dauka, edertasuna ere ukaezina, bere kokapenagatik ere interesgarria da, zentrotik nahiko gertu dago, mugarrirak funtzioa eta erreferentzialtasuna ere ondo baino hobeto betetzen ditu. Izan ere, Kalea, Ziorla-Legarre, Santa Marina, Makatzena, Estazio eta Ospitale inguruek osatzen duten sarearen erdigunean dago. Balio historikoa ere badeauka dagoeneko eta urtetik urtera balio hori gehitzen joango da. Bere inguruko arkitektura ere orokorrean oso ximplea da, graziarik gabekoa eta, beraz, Arrasateri, zalantzak ez dut, balio erantsi bat emango lioke Elmako eraikina behar bezala zaintzeak.

Zentzu honetan, kulturako zinegotzia zarenez, ahaleginak egin beharko zenituzke 1989ko Europako Ondare Arkitektonikoa Zaintzeko Konbenioko arauak betearazteko gure udalerrian. Gelma urbaniza-

zioa egiten ari diren moduan, eraikin hori ez da behar bezala babestuta geratuko, inguruko duten etxebizitzarentzat ere kaltegarria izango da erabat, badeauka zentzurik etxebizitzeta eta Elmako bulego eraikinetik hain tarte txikia uzteak?

Zeintzuk dira Arrasaten babes berezi bat jaso duten eraikinak? Ospitale zaharrak? Zerrajerako erlojuarenak? Parrokiako elizak? Elmakoak ez du horiek beste babes merezi? Edertasunaz asko hitz egin dezakegu, baina... Elmako eraikina ez da horiek guztiak baino politagoa? Eta bide batez musika eskola bertan kokatuko balitz zer? Gaizki hala? Esan nahi dut erabilera egoki bat eman dakoikela holako etxe bat, ze kultura zinegotzia zaren aldetik onartuko didazu musika eskolaren egungo eraikina ez datorrela bat Arrasateko mailarekin.

Bide batez, uste dut ikerketa lan bat agindu beharko zenukeela Elmako eraikinari buruz, zein izan zen bere arkitektua, noiz eta nola eraiki zen...

## Indar armatuak badirau

Amaia Agirre  
Debagoiena

Euskal herritarron borondatea eta erabakitzeko eskubidea errespetatzeko borondatea adierazi zuen duela bi aste Espainiako gobernu-buruak. Asmo onak beti dira ongiortriak, batez ere, herri honi beti ukatu zaizkion eskubide horiek betetza ahalbidetu dituen ekintzakin lagunduta badator. Eta hortxe dago koska. Zapaterok oraino borondatea besterik ez duela erakutsi, eta ETAk ekintza armatuaren etenaldia iragarri zuenetik, euskal herritarro ez zaizkigula gure eskubideak errespetatu. 53 euskal herritar atxilotu dituzte, torturak salatu zitzuten bik, eta beste hiruk tratu txarrak. 24 ekitaldi politiko, agerraldi eta presoen ongiortori debekatu dituzte, 300 errepide kontrolek gora zenbatu dira, 48 preso aldatu dituzte leku (bakar bat ere ez Euskal Herrira). 30 zitazio bideratu ditu Auzitegi Nazionalak...

Borondatea borondatea, Euskal Herriak egoera ez demokratikoa bizitzen jarraitzen du.

Espetxeetan euskal preso politikoei oraindik ez zaie beren izaera politikoa onartzen; eta preso politiko izateagatik zigor bereziak aplikatzeko ditzkiete. Eta espetxetik kanpo ere, euskal bizitza politikoa maneiatzeko bi elementu garrantzitsuz baliatzen dira: alde batetik, Auzitegi Nazionala dugu.

Funtzio politiko garrantzitsua egiten du espainiar gobernuak mantendu nahi duen estatu eredu mantentzeko, eta hura nahi ez duten sektore ororen kontra arma errepresiboa bezala eragiteko. Hala, salbuespeneko tribunal honek 18/98 auzia abiarazi zuen eta 7 hilabete daramatza martxan (Euskal Herria errefusatzen jarraitzen duen auzia). Gainera, debeku eta zitazioen bidez publikoki egiten diren ekintza politikoa zapaltzen ditu. Tribunal honek bizi osoko kartzela zigorra jarri du euskal preso politikoentzat (Parot doctrina), eta tortura babesten jarraitzen du, torturapean egindako deklarazioak frogatzen bezala onartuz.

Tribunal berezi honen existentzia ez da berria, badakigu ez dugula ezer berririk kontatu. Euskal Herrian honezkerro min gehiegiz egin duela iritzi dugu. Eta gure erabakitzeko eskubidea errespetatzea bada espainiar gobernuaren borondatea, ez

dugu ulertzen zeri begira dagoen gure eskubideak zapaldu besterik egiten ez duen Auzitegi Nazionalari erretiroa emateko.

Erabakitzentzako diguten baldintza demokratiko batzuk nahi ditugu. Zapateroren borondateak eta azken hilabeteotako errepresio politikaren arteko kontraktasunak paradoxa bihurtzen dute konponbideranzko bidea. Zer gertatzen da geroz eta gehiago ikusten ditugun guardia zibil eta polizia nazionalekin? Euskal herritarron erabakia errespetatzeko al daude gure herri eta errepideetan? Demokraziaren kontzeptuak distorsioaren mugak aspaldi zeharkatu zituen, bai. Euskal Herrian indar armatuak badirau oraindik. Joan zen domekan, urtero ohi duten bezala, espainiar militarrek desfilea egin dute Donostian. Euskal Herrian inposaketa, inbasioa eta bortizkeria besterik eragin ez duen indar armatu honen paseoa ez du inongo Auzitegik legez kanporatu. Hori horrela, egun berean, uztailaren 16an, indar errepresiboak sobera daudela errepikatu eta gure erabakia hartzea baldintza demokratiko, duin batzuk behar ditugula aldarrikatu genuen Donostian.

Hobe lukete halako desfiletan baino gehiago, indarra beste norabide batean erakutsiko balute. Errepresioa errotik eta berehala indargabetu dezatela. Antolakunde politiko eta sozialen kontrako jazarpena eta epaketa politikoak bertan behera utz ditzatela.

## Eskerrik asko, denoi

**Jose Luis Kortabarria**  
(Mairuaren Alardea Kultur Elkartea)  
Antzuola

Honen bitartez, Antzuolako Mairuaren Alardea Kultur Elkartea esker beroenak azaldu nahi ditu aurtengo alardean parte hartu duten eta, era berean, laguntha eskaini diguten guztoioi. Mila esker.

## OHARRA

### Oporretara goaz

Eskuetan daukazun hau, irakurle, duzu udako oporren aurreko azken GOIENKARIA. Oporretara goaz eta itzuliko gara abuztuko azken astean. Iralaren 1ean, egubakoitz, berriro izango gara zuekin. Gogoratu, edozelan ere, oraingo astelehenean kaleratuko dela Astelaren Goienkaria. Ondo ibili oportetan.



Posta elektronikoa:



Faxa:  
943 25 05 13



Barrenkalea 33  
20570 BERGARA



Telefona:  
943 25 05 01

*ametsak harrapatzeko sasoia...  
eta irailean, ametsak amets,  
gogoz blai itzuliko gara.*





## Baster-Alde

Galartzauzoa / ARETXABAleta  
943 79 24 58 [www.baster-alde.com](http://www.baster-alde.com)

### Eskaintza

- Menua eta karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Jaunartze eta bataioak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkaleku

Astelehenetan itxita



## Dragon Oriental

Araba etorbidea 3 (Super BM ondoan) / ARRASATE  
943 79 85 33

### Txinatar jatetxea

#### Eskaintza

- 140 lagunendako jangela
- Aparkaleku ezin hobeak
- Janaria etxera eramatzen dizugu

#### Eguneko menua eta karta



## Gure Ametsa

LEINTZ GATZAGA  
943 71 49 52

### Eskaintza

- Ezkontzak
- Jaunartzeak eta bataioak
- Hiru jangela
- Aparkaleku handia
- Umeendako jolaslekua

Astelehenetan itxita



## Larrinetxe

Udalauzoa / ARRASATE / 943 79 22 15  
[www.larrinetxe.com](http://www.larrinetxe.com)

### Eskaintza

- Karta
- Enkarguz menu bereziak
- Plater konbinatuak eta ogitartekoak.

### Berezitasunak

- Denboraldiko arraina
- Bildotsa erreta
- Etxeko postreak

Martitzetenetan itxita



## Taberna-Berri

Durana 24-26 / ARETXABAleta  
943 79 20 67 / 943 79 49 41

### Eskaintza

- Menua
- Enpresa bazkariak
- Ezkontzak, jaunartzeak eta bataioak
- Bi jantoki: 80 eta 150 lagunendako

### Berezitasunak

- Bakailao entsalada epela
- Oreina Oporto saltsan
- Arrain parrilada



## Tartufo

San Juan auzoa / BERGARA  
943 76 35 51

### Eskaintza

- Familiako bazkariak
- Kintadak dantzaldiarekin
- Eguneo menua eta karta berezia
- Aparkaleku ezin hobeak
- Bi jangela: 100 eta 55 pertsonendako

### Berezitasunak

- Arrainenetan aukera zabala
- Oreina eta txuleta txingarretan erreta

Egunero zabalik 5:30etatik aurrera



## Torrekuia

Ibargarai 37 / BERGARA  
943 76 50 99

### Eskaintza

- Eguneroko menua
- Karta
- Kintadak
- Bataio eta jaunartzeak

### Berezitasunak

- Batik bat arraina
- Itsaskia
- Txuletak



## Unzueta

Zabola auzoa / ARAMAIO  
945 44 50 95

### Eskaintza

- Eguneo menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

### Berezitasunak

- Parrilla: okela eta arraina
- Etxeko postreak

Egunero zabalik



# Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31-33 Eskoriatza > 34-35  
Antzuola > 36 Elgeta > 37 Aramaio > 38 Gatzaga > 39



> **ARRASATE**  
Blokeatuta dago  
Gelmaren eta  
Udalaren arteko  
negoizazioa > **18**



> **BERGARA**  
Gabiria ingurua  
erabat aldatuko  
du tranbiaren  
proiektuak > **24**



> **ARETXABAleta**  
Mexikarrak,  
errusiarrak eta  
zezen gutxiago  
Andramaixetan > **31**



> **ESKORIATZA**  
Dorletako  
jolasgunea  
irailerako berrituko  
dute > **35**

**ESKORIATZA** > IBARRAUNDI FUNDAZIOA

## Ibarraundi fundazioa sortzeko lanean dabiltza Udalera eta hainbat eragile

### AUTONOMOA

Kultura ondarea eta  
beste ekimen batzuk  
bideratzeko ekimen  
autonomoa izango da

### ERAGILEEKIN

Herriko hainbat  
eragilek izango dute  
fundazioa gidatzeko  
ardura

### IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Agintaldi honen hasieran Udaleko hainbat ordezkarik erabaki zuten komeni zela udalerriko kultura eta ondarea kudeatzeko eta bestelako ekimenak bideratzeko fundazio bat sortzea. Gainonteko alderdiei horren gaineko azalpenak eman, eta haien ondo haritu zuten ekimena. Are gehiago, Kontzejupe herri plataformak proiektu horren gaineko zirrorro bat ere prestatu zuen.

### ANTROPOLOGOAK KOORDINATZAILEA

Lehenik eta behin, Udaleko ordezkariek Eusko Ikaskuntzako arduradunekin batzartu ziren proiektu horren berri emateko. Batzar hori ekainaren bukaeran egin zuten eta Eusko Ikaskuntzako arduradunek oso begi onez ikusi zuten egitasmoa. Hain zuzen ere, proiekturako baliabideak eta babes-esa eskaini zituzten. Are gehiago, erakunde horretako antropologo Beatriz Akizu da proiektuaren koordinatzailea. Bestalde, Aranzadi eta Eresbilek ere babes-eta eman diote fundazioaren ekimenari.

### ESTATUTUAK IDAZTEN DABILTZA

Kultura ondareko zinegotzi Juan Luis Merinok argitu zigun une honetan fundazioaren estatutuak idazten dabilzala, eta iralean idatzitakoa osoko bilkurara eramanago dutela. "Gure asmoa da agintaldia bukatu aurretik proiektua bideratuta uztea", azpimarratu zuen Merinok.

Horrez gain, zinegotziak azaldu zigun fundazio hori Udaletik



MUSEOA ARIMA Ideiaren oinarria Ibarraundi museoa da, baina fundazioa askoz proiektu zabalagoa izango da.

I.B.

Beatriz Akizu > Fundazioaren koordinatzailea

### "Garapena bultzatzeko hausnartu eta emaitza praktikan jarriko dugu"

I.B. > ESKORIATZA

Beatriz Akizu soraluzetarra Eusko Ikaskuntzako antropologoa da. Hiri dagokio Ibarraundi fundazioaren ardura nagusia, hura da-eta proiektu horren koordinatzaile nagusia.

Zein da fundazioaren helburua?

Tokiko garapena bultzatzea, ingurua zentzu guztietan berpiztea eta garapena bultzatzea. Ekonomia eta ekologia hobetu, baina gizartea eta kultura ahaztu barik. Horren gaineko hausnarketa bultzatu gura dugu, eta ikerketan ateratzen diren ondorioak praktikan jarri behar dira tokian bertan. Hori guztia aktibatzeko tresna Eskoriatzan dagoen ondarea izango da.

Eta zer ondare dauka Eskoriatzako udalerriak?

Lehenik eta behin, azpimarratu behar da Eskoriatzak industria eta nekazaritza ederto uztartzen dituela. Horiek biak eta arrantza dira Eusko Herriko adar nagusiak, eta lehenengo biak bermatuta daude. Udalerrrian, besteak beste, honako ondarea nabarmendu nuke: historiaurreko ondareak (tumuluak...), elizateen funtzionamendu autonomoa eta usadio propioak (ehorzketak...), ingurune naturala, ondare arkitektoniko eta etnografiko handia, Zubiateko labea eta pentsatzeko eta lan egiteko modua.

autonomoa eta independentea izango dela. Udalak izango du ordezkarirekin bat fundazioan, baina baita herriko beste hainbat eragilek ere. Horretarako, asteon, herriko hainbat enpresaren eta HUHEZILko arduradunekin batzarra egin dute proiektua aurkezteko, eta eragile horiei esku-hartzeara eskatzeko. Uda ostean banan-banan elkartuko dira eragile horiek, haien erantzuna jasotzea.

### ONDAREAREN TURISMOA ERAKARRI

Udaleko ordezkariek Eusko Herrian dauden beste fundazio batzuk ikusi dituzte, eta haien funtzionamendua, estatutuak eta bestelakoak aztertzen ibili dira.

Fundazioaren bultzatzaileek azaldu dutenaren arabera, bide batez turismoa erakarriko dute udalerrira. Horretarako, kultura ekintzak, kultura ondarea eta udalerriak dituen ingurune naturala baliatuko dituzte. "Hori guztia ezagutzera eman behar dugu,

eta ibarreko, Euskal Herriko edota Madril zein Kataluniako bisiarriei erakutsi behar diegu".

### FUNDAZIOAREN LAGUNAK

Herriko hainbat eragilek egingo duten esku-hartzete eta ekarpen ekonomikoez gain, gura duten herritarrek aukera izango dute fundazioaren lagunak izateko. Lagun horiek borondatzeko lagunza eman ahal izango diote proiektu horri.

### HERRITARRAK PROTAGONISTA

Proiektuaren koordinatzailea Beatriz Akizuk azaldu zigun fundazioa museoa baino asmo handiagoko ekimena dela. "Museoa fundazioaren atal bat izango da, ez gehiago, eta gainera ez dugu inola ere horretara mugatu gura. Udalearran eta ibarrean erakusteko ondare handia dago, baina hori guztia testuinguruan erakutsi beharra dago, eta horretarako ezinbestekoak dira herritarrak, horren guztiaren protagonistak".

**zerbitzuak****GUARDIAKO FARMAZIAK****ARRASATE**

Zapataua, 22	Amezua	Santa Marina 32	943 79 09 74
Domeka, 23	Ruiz	Maala 31	943 79 14 09
Astelehena, 24	Azkoaga	Iturrioz 17	943 79 79 99
Martitzena, 25	Irizar	Erguín 11	943 79 12 39
Eguaztena, 26	Amezua	Santa Marina 32	943 79 09 74
Eguena, 27	Ruiz	Maala 31	943 79 14 09
Egubakoitzza, 28	Azkoaga	Iturrioz 17	943 79 79 99

**BERGARA**

Zapataua, 22	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05
Domeka, 23	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05
Astelehena, 24	Zabala	Barrenkalea 25	943 76 16 87
Martitzena, 25	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05
Eguaztena, 26	Camacho	Oxirondo 4	943 76 11 74
Eguena, 27	Zabala	Barrenkalea 25	943 76 16 87
Egubakoitzza, 28	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05

**ÖÑATI**

Zapataua, 22	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Domeka, 23	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Astelehena, 24	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Martitzena, 25	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Eguaztena, 26	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Eguena, 27	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Egubakoitzza, 28	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16

**ARETXABAleta**

Zapataua, 22	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Domeka, 23	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Astelehena, 24	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Martitzena, 25	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Eguaztena, 26	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Eguena, 27	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Egubakoitzza, 28	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99

**TELEFONO JAKINGARRIAK****((112))  
SOS DEIAK****OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larraldia).....	943 46 11 11
DYA (Antzuola).....	943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi).....	943 76 55 76
Suhiltzaileak.....	943 78 28 00
Ertzaintza.....	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko ospitala.....	943 03 53 00
Antzuola.....	943 76 62 23
Aramai.....	945 44 53 40
Aretxabaleta.....	943 71 19 59
Bergara.....	943 03 54 00
Elgeta.....	943 03 54 00
Eskoriatza.....	943 71 44 52
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Öñati.....	943 03 54 30
Udalaitzaingoaak	
Antzuola.....	943 76 62 46
Arrasate.....	943 79 14 39
Aretxabaleta.....	943 71 18 63
Bergara.....	943 77 91 06
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Öñati.....	943 78 04 11

**GARRAOAK**

PESA.....	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate.....	943 79 12 22
Aramaio.....	945 44 50 33
Aretxabaleta.....	943 77 12 64
Bergara.....	943 79 12 22
Eskoriatza.....	943 71 40 59
Öñati.....	943 78 03 65

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea.....	943 79 33 99
Hildegia (Zubillaga).....	943 78 15 12
Nekazaritza ganbera.....	943 76 10 15
Zerga Bulegoa.....	943 76 58 63
Hondakindegia alternatiboak	
Arrasate.....	943 77 11 43
Bergara.....	943 76 44 42
Öñati.....	943 78 36 67

**BERGARA**

San Lorentzo/San Juanidik irteerak	
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluze), Matxitxagi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegarieta (Ekonoma-toan) eta Zabala jatetxeak.	
Eroskitik Gorostizara (1 Linea)	
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguín B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biterri, Legarre, Musakola eta Eroski.	
Eroskitik Gorostizara (2 Linea)	
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obregon, Obenerreka, Makaztena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguín A eta Gorostiza.	

**ARRASATE**

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)	
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguín B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biterri, Legarre, Musakola eta Eroski.	
Eroskitik Gorostizara (1 Linea)	
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguín B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makaztena, Obenerreka, C. Obregon, Galizia, Bengoa eta Eroski.	
Eroskitik Gorostizara (2 Linea)	
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguín A eta Gorostiza.	

**URBANOAK****ARRASATE**

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)	
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguín B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biterri, Legarre, Musakola eta Eroski.	
Eroskitik Gorostizara (2 Linea)	
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obregon, Obenerreka, Makaztena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguín A eta Gorostiza.	
Eroskitik Gorostizara (1 Linea)	
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguín B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makaztena, Obenerreka, C. Obregon, Galizia, Bengoa eta Eroski.	

**BERGARA**

|<td
|  |

## kale inuesta

# Andramaixetan egongo zara? Zer gurako zenuke topatu?



Borja Garitaonaindia  
Langilea  
Aretxabaleta



Maika Arantzabal  
Langilea  
Aretxabaleta



Pedro Zubizarreta  
Langilea  
Aretxabaleta



Mireia Ignacio  
Ikaslea  
Aretxabaleta



Gillen Aginagalde  
Ikaslea  
Aretxabaleta

Bai, urtero moduan egongo naiz. Sokamuturra gustatzen zait pare-parean egokitzten zaidalako; gainera, uste dut jende asko elkartzen duela. Taltez ezagunen kontzertuak ikusiko nituzke gustura.

Bai, aurten bai. Ez naiz sekula egon, baina aurten halaxe egokitu zaizkigu oporrak eta herrian ibiliko gara. Umeentzat jolasak egotea gurako nuke, orain umeei begira bizi gara eta.

Ez naiz egon aspaldian eta aurten ere ez naiz egongo. Egitarauan, gainera, ez dute ezer aldatu azken urteotan. Baina ez Andramaixetan bakarrak, kultura arloan ez dago ezer urte guztiak.

Bai; sarritan bezperan bakarrak egon izan naiz, baina aurten jai guziak biziko ditut. Gauetako giroa gustatzen zait, jendea etorri izan da, eta nik ederto pasatzen dut dagoenarekin.

Bai, normalean urtero egon izan naiz. Sokamuturra dut gustuko, baina Andramari bigarrenekoak kendu egin dutela entzun dut. Bestela egitarauaren girstura nago, eta giro polita egoten da.

## txaloak eta txistuak



XABI URTZELAI

## Ziburuak egoera eskasean



Gorlaz dauden ziburuen gaineko kexua iritsi zaigu oraingo astean. Esan digute oso egoera txarrean daudela eta, gainera, arriskutsu ere bai; izan ere, burdinazkoak dira eta herdoilduta eta apurtuta daude. Beraz, umeek erabiltzeko, oso arriskutsu.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlitzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria

## asteko datua

**9.576**

Debagoienean (Aramaio barne), datozen 16 urteotarako 9.576 etxebizitza eraikitzea planifikatu beharko dela proposatu du Debagoienerako Lurralte Planak. Horien artean, %26 babes ofizialekoak izatea proposatu du: 2.510.

Erosketarik ezean bazkaltzera; baldin eta tabernaren batean mahaian ipintzen badiete platera.

Dendak eta tabernak itxita eta hemengoek kanpora bisita. Oporrak, bertan geratzen direnenda gogorrak.

Ongi pasa eta hartu arnasa oporretan; irailean denok izango gara bueltan.

## 5 galdera...

### Garbiñe Elortza

Barcelo bidaia  
Bergara

#### 1. Uztaileko oporraldian arazo handiak izan dira bidaiekin?

Arazo gehienak izan dira Iberiarako grebarekin lotutakoak: atzrapenak, hegaldiak bertan behera geratzea... Gu ez gaituzte harrapatu, askoz ere lehenago abisatu zutelako, eta horrek aukera eman zigun beste konpainiarenen batekin erreserbak egiteko.

#### 2. Bestela, zein izaten da arazorik arruntena? Horrelakoetan zer egin?

Overbooking-a, hegazkinetan eta hoteletan; dena den, azkenaldian asko jaitsi da. Eta gero hegaldietan atzrapenak ere izaten dira, lau-bost-sei ordukoak...

#### 3. Hortaz, hegaldien overbooking-en kasuan, zer egin genezake?


Konpainia bakoitzak bere araudia du eta nahiko berezia da. Legeak ez dauka hori oso ondo finkatuta. Hasteko, konpainia guztietan erreklamazioa ipini behar izaten da, askotan erantzu-tentute urtebete geroago, eta sarritan konpentsazioa ez da nahikoa izaten.

#### 4. Eta hoteletan overbooking-aren kasuan, zein da egoera?

Halakoetan, bidaia agentziak ahalegintzen gara arazoari irtenbideren bat ematen, baina askotan ezin izaten dugu ezer egin. Gu bitartekariak besterik ez gara, hoteletan edo hegazkin konpainien kontua da overbooking-a. Eta hotelek egiten dutena da eman garai horretarako topatu duten irtenbiderik onena. Batzuetan ematen duten aukera da askoz ere hobea (hotel hobera bidaltzen zaituzte) eta bestetan ez (bidaltzen zaituzten hotela urrutirago dago, adibidez).

#### 5. Bidaiatzeko komenigarrria da segurua egitea? Zelakoa?

Geroago eta argiago dut segurua ia derrigorrezkoa dela. Behar duzu hegaldia bertan behera geratzen bada, osasun kontuetarako... Agentziek eskaintzen ditugu seguruak, edo partikularrak ere egin daitezke.



**GELMA** > INAZIO LAKUNTZA: "MERITUA NEGOZIATU DUENARENA IZANGO DA"

# Alkatearekin ezin eta PSE, PP, EA eta Aldairekin egin du akordioa Gelmak

Alkateak esan du Gelma eta Udalaren arteko negoziazioa blokeatuta dagoela

Ostera, PSE-EEk, PPk, EAk eta Talde Mistoak esan dute hitzarmena lortu dutela Gelmarekin

**UBANE MADERA** > ARRASATE  
Zinegotzien gehiengoak atzo esandakoaren arabera, eurek lortutako hitzarmenak bermatu egiten ditu bai Udalaren eskaera, baita Gelmako langileena ere. Edozelan ere, hitzarmen hori gauzatu ahal izateko, datorren osoko bilkurara eraman beharra dago eta hori egingo duten edo ez, atzoko Bozeramaileen Batzordean erabakitzekotan ziren. Eta gure edizioa ixtean, erabakia oraindik hartu barik zegoen.

**ALKATEAREN ARRAZOIAK**  
Bestalde, azken hitzarmen horren berri izan baino lehen, Inazio



HEDABIDEEN AURREAN Alkateak azalpenak eman ditu oraingo astean.

ditzuten beste bi puntueta ados daudela. Puntu horietako batean zehaztu dituzte Gelmak egin beharko dituen konpentsazio urbanistiko berriak.

Beste puntuatua, berriz, adostu dute 4,5 milioi euroko garantia fondo bat (Udalak proposatutakoa). Gelmako 200 langileen lanpostuak ziurtatzeko. Horri esker, 2020a baino lehen Gelma Arrasatetik joaten bada, fondoa izango da langileen kalte ordainetarako.

## DESADOSTASUNAREN ZERGATIA

Inazio Lakuntzak aprobetxamenduarekin duten desadostasunaren zergatia azaldu zuen. Esan zuen 2004ko hitzarmenean adostutako %10eko aprobetxamendua kalkulatu zutela orduan zituzten datuen arabera, merkatuko baloreetan oinarrituta, "baina inork ezin du zehatz-mehatz esan zeintzuk diren balore horiek, beraz, estimazioen bitarbez landu genituen". Halaber, alkateak jakinarazi zuen 2005era arte Udalak ez zuela bestelako dokumentazioen eskuratu, baina 2005ean Gelma eta Obenerrekaren arteko salerosketa kontratu bat eskuratu zuela. Eta kontratu horretan, zehaztuta zegoela Gelmak Obene-

rrekari saldu zion partzelaren zoruaren balorea zela kalkulatu. Hala, datu horiei Udalak batu die gainerako partzelen datuak (beste lau, txiki) eta urbanizazio kostuak, Udaleko PERItik hartuta. Eta horretan guztian oinarrituta, Udaleko zerbitzu teknikoek egindako kalkuluaren arabera ateratzen den %10ekoa da, alkatearen ustez, Udalari dagokiona: "Desadostasunaren kopurua kuantifikatzearen, Guibertek eskuzabal proposatu digunaren eta guk baloratzen dugunaren aldea da 979.000 eurokoa da".

## EKONOMIKOKI ASE EZINA

Behin hori argituta, alkateak hausnarketa moduan, esan zuen ezin duela ulertz Guiberten jarreta: "Batetik, udal zerbitzuek kalkulatutako kopuru baten gainean berbetan gabiltzalako. Besteetik, ezin dut ulertz gai honen gainean piztu den ika-mika eta gero, Guiberten zorrozkierik eta ekonomikoki duen ase ezintasunak egoera hau blokeoan uztea lehen esan dudan kopuruarenagatik. Guk jarraitzen dugu pentsatzen udal teknikarien balorazioa legezkoa dela eta ezin diogula uko egin".

AKORDIOA GELMAKO ETXEEN PROMOTOREAREKIN

## Eraikitzeo baimena uztailaren 28a baino lehen nahi du Obenerrekak

Zinegotzien gehiengoak (PSE-EE, EA, PP eta Talde Mistoak) hitzarmena lortu du Obenerreka eta Gelmarakin. Horren arabera, Obenerrekak onartu egin du Udalak aprobetxamendu moduan eskatzen duen %10eko tasa ordaintza. PSE-EEko bozeramaile Paco Gartzia argitu digunez "partidak berriro egokitutu, eta azken emaitza izan da alkateak errebindikatzent zuenaren %100a lortzea". Hain justu ere, puntu hori izan da Udalaren eta Gelmaren arteko negoziazioa blokeatuta egotearen arrazoa. Akordio horrek bermatuko du, baita ere, 4,5 milioi euroko garantia fondo bat, enpresa 2020ra arte Arrasaten gera dadin; eta beste berme bat ere badu akordioak: enpresak behar dituen baimen guztiak lortuko ditu uztailaren 28a baino lehenago. Azken horrek derrigortzen du gaia uztailaren 26ko osoko bilkuran aztertzea. Horretarako, Hirigintza batzordeak premiazko batzarra egin beharko du eta

gaia diktaminatu. Eta hori egitea eskatzekotan ziren atzo iluntzeko Bozeramaileen Batzordean. Edozelan ere, edizioa ixtean, erabakia oraindik hartu barik zegoen. Hori bai, alkateak zera aurreratu zigun: "Ikusi beharko dugu egia den %10eko hori, baina ikusten badut hitzarmena dela gure proposamenaren arabera, aurrera egingo dugu. Eta nahiz eta izan akordioaren konstantziarik, onartu badute alkatearen proposamenia meritua negoziatu duenarena izango da".

Hitzarmen hori lortzeko, Udalean Gelmako hitzarmenaren aldeko bota eman zuten alderdi guztiak deitu zituzten atzo goizean batzar batera. Beraz, EB ez dute deitu. EAJ ez ezik, gainerako guztiak batzartu dira Gelmako eta Obenerrekako ordezkariekin. Aralarrek, beriz, utzi egin du batzarra, implikazio pertsonalak tarteko, gai horretan bere burua intsumiso jarria duelako, Joxe Etxebarria zinegotziak.



Etxeberriarteun (EA), Gartzia (PSE), Aldai (Talde Mistoak) eta Lamarain (PP). DEIANE ARRIETA

## BITTORI ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua  
Espezialitateak:  
legatz kokotxak eta txuletagak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

Monte  
taberna

Maalako errabala 2  
Tel.: 943 79 20 56

## MADINA ZURAK Aroztegia

- Olak
  - Aglomeratuak
  - Kontraxpatuak
  - Tablexa
  - Atak
  - Egurrezko leihoa
  - Oin-inguruak
  - Zangoak
  - Aroztegi osagarriak
- Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea • Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE  
eposta: mz@madinazurak.com

arbolapeta  
arrasate  
beinko

PRESOAK

## Presoen "egoera kezkagarria" salatu dute

Arrasateko Etxeratek dei egin du udako mobilizazioetarako

U.M. > ARRASATE

Bost presoren egoera dela eta kezka azaldu du Arrasateko Etxerat elkartea.

Batetik, zera salatu dute: "Arrasatetik 1.000 km ingurura dagoen Fleury Merogis kartzelan duten Igor Letona mitard-ean da, hau da, isolamendu osoko zigor ziega batean". Zera ere gaineratu dute: "Letonaren egora prebentiboa izanik, preso politiko arrasatearrak ez du telefonoz inori deitzeko baimenik".

Bestetik, Navalcarneron, Unai Paroten bizi baldintzak gogortu egin direla ere salatu dute: "Patiora bakarrik aterrazten dute, kartzela berean dituzten beste euskal preso politikoak ikusteko edo beraiekin hitz egiteko aukerarik gabe".


Eta Zabarte Garratz-en bizi baldintzak ere okertu egin direla jakinarazi du presoen aldeko elkartea: "Ekainaren 17an, esaterako, Huelva dituzten hainbat euskal preso politikori abokatuekin zuten hitzordua egitea ez zieten utzi".

Bukatzeko, Jose Inazio Gaztañaga Gatzak eta Jon Agirre aramaioarrak, legearen arabera, aske egon beharko luketela gogorazi du.

MOBILIZATZEKO DEIA

Presoez gainera, iheslarien egoera ere salatu gura izan du Etxeratek.

Hain zuzen ere, guztien eskubideen alde, datozen egunotan izango diren mobilizazioetan parte hartzeko deitu du: uztailaren 28an, Herriko Plazan; 29an, Beasaingo Hotel Castilloren aurrean eta abuztuaren 6an, Mutrikuko Satuarran hondartzan.



ORDU PUNTAK 10:30etik 12:00ak arte ibiltzen da jende gehien BAZen; basketxeetako-eta txanda sistema ezarri dute.

> EUSKARA

### Fagorrek eta Edesako Euskara Batzordeek I. Topaketa egin dute

Ezustekorik ezean, atzo, eguna, elkartu ziren Fagorrek 90 langiletik gora San Andresko lantegian, euskara topaketak egiteko. Lehen aldia da batzorde guztiak batu direla: 13. Ekitaldian, besteak beste, Kike Amonarrizek "Euskara Planak lan munduaren planetan" hitzaldia egin zuen. Ostean, Euskara Planen egoeraren azterketa planteatu zuten eta etorkizuneko zenbait ekintzen abiapuntua markatzen laguntzeko hausnarketa egin zuten. Helburua izan zen "batzordekideak motibatu, haieneko errekonozimendua azaldu eta elkar hobeto ezagutzea".

ZERBITZUAK > BIZTANLEEN ARRETA ZERBITZUA

## Espero baino jende gehiagok erabili du arreta zerbitzua

Oso balorazio positiboa egin dute: "Egunean 75 bat lagun espero genituen eta ia bikoitza etorri da"

UBANE MADERA > ARRASATE

Biztanleen Arreta Zerbitzuak hiru aste daramatza lanean, hamar lanegun, baina badirudi herritarrek ondo asko ikasi dute la harako bidea. Edurne Muxika BAZeko arduradunak, dena den, datu bitxi bat ere eman digu:

"Jende asko etortzen da oraindik Kutxa delakoan. Bost pertsonatik gora dirua eskatzen edo dirua sartzen eterri dira. Baina orokorrean ondo doa".

Zerbitzu berria erabiltzen ikasteko ere, herritarrek ez dute la arazo larregi izan esan digu. "Txanda sistemarekin jendea ohi-tuta dago basketxeetan-eta ikus-ten, beraz, ondo moldatua dira".

ERRAZAGO ETA ARINAGO

Edurne Muxikak gogorarazi digu 200 tramite egin daitezkeela BAZen, "baina batez ere errolda kontua da gehien eskatzen dena".

Bestalde, herritarrei erraztasun eta aruntasun handiagoa emateko BAZen helburua bete

egin dela uste du Edurne Muxikak: "Nik uste dut igarri dela. Lanean daramatzagun 10 egunetan (uztailaren 5etik uztailaren 18ra arteko datuak eman dizkigu) 1.172 bezero izan ditugu; batez beste, 120 lagun eguneko edo 24 lagun orduko.

Horrez gainera, Muxikak jakinarazi digu herritarrek hasi direla zenbait gestio etxetik egiten: "Telefonoz, errolda ziurtagiriak-eta eskatu dizkigute;

DATUA

# 1.172

HERRITAR IBILI DIRA BAZ-EN

Uztailaren 5ean zabaldu zuten BAZ, eta ordutik hona 1.172 lagunek erabili dute zerbitzua; batez beste 120 lagun pasa dira egunean. Eta batez ere erroldarekin lotutako tramiteak egin dituzte.

informazio asko ere bai. Interneti dagokionez, web orria egoitzien gabiltza".

ABUZTUAN GOIZEZ JARDUNGO DUTE

Bestalde, BAZen zentralizatzen duten beste zerbitzu bat da kexuak ere han jasotzea, eta horrek ere ondo funtzionatu duela esan digute: "Dugu kexu mordoa eta orain batu behar gara kexuei zein tratamendu eman-eta lantzko. Baina bai, jendea etortzen da. Gainera lekua da horren erraza etortze-ko... Esaterako, herritar asko etortzen dira zera esanez: "Hemen-dik nembilen eta bide batez, sartu egin naiz". Kexuei dagokienez, batez ere zerbitzuekin lotutakoak direla esan digu.

Horrez gainera, galduztako objektuak ere BAZen batzen hasi dira eta asko batu arren, Muxikak esan digu badituztela gauza batzuk inor ez dituela eskatu. Horregatik aztertzen dabilzala zerbitzu hori kartel batekin-edo iragartzea.

Abuztura begira, berriz, oraingo ordutegia izango dute: 09:00etatik 14:00ak arte. Irailean hasiko dira goizez eta arratsaldez lanean; zapatuetan, goizez.


## S. CARRASCAL S.L.

### Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

### Erakusketa berria

Ekutio kalea pab. 14-15  
Uribarri auzoa 4  
Tel. faxa: 943 79 01 82



KONTRATAK  
**IRYROK S.L.**  
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa  
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14

ARRASATE

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10  
Tel.: 943 79 52 50

## ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko  
hodiak  
beirina eta kristalak  
osagaia

San Andres Auzoa 10. pabilioia  
Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25



ETZANDA Campbell Brothers-ek erabiltzen dituen Steel gitarrak etzanda jo behar dira, argazkian ikusten den moduan. GOIENKARIA

MUSIKA > UZTAILEKO KULTURA EKITALDIAK

## Gospel doinuak The Campbell Brothers taldearen eskutik

Monterron parkean egingo dute kontzertua, oraingo domekan, 22:30ean

UBANE MADERA > ARRASATE

Gospel elektriko eta indartsua, country, blues eta jazzaren eraginarekin. Horixe helaraziko diente The Campbell Brothers taldeko musikariekin Monterronen batzen diren ikus-entzuleei. Ameriketako Estatu Batuetatik dator talde hori bere erritmo geldiezinarekin. Chuck (pedal steel guitarra), Philip (guitarra), Darick (lap steel guitarra) eta Carlton (bateria) dira Campbell anaiaak. Haiekin batera Malcolm Kirby (baxua) eta Tiffany Godette (ahotsa) dabilta *Sacred steel* aurkezten: pedalezko gitarrek eta ahotsek lagunduta egindako gospel musika berezia.

### STEEL GUITAR

Eta berezia da, hain justu ere, steel guitar izeneko instrumentua erabiltzen dutelako. Instrumentu hori, batez ere, country eta bluegrass estiloetan erabiltzen da, baina ez da batere ohikoa gospel musika interpretatzeko erabiltzea. Gospelko talde gutxik erabiltzen dute, eta horien artean ezagunena da Campbell darren taldea. Hain zuzen ere, Chuck eta Darick anaiaak dira arlo horretan gehien nabarmentzen diren musikariak. Aipagarria da, baita ere, esperimentzia luzea dutela, bi hamarkada daramatzate-eta Ameriketako banda horren gidaritzan.

Steel guitarrekin interpretatzen den gospel eliza afroamerikar gutxitan praktikatzen da.

Campbell Brothers taldearen gaineko beste ezaugarri bat aipatzearren, esan *The Sopranos* izenburuko telesailaren soinu-banden parte hartu zutela.

### 'AUPA ETXEBESTE!', 18AN

Kontzertu hori Udalaren uztailoko kultura egitarauan dago. Hala, irailera arte antolatutako ekitaldien artean, besteak beste, sei film-saio izango dira, guztiak 22:30ean: gaur, egubakoitza, *X-Men: La Decisión final*; uztailaren 28an, *Scary Movie 4*; abuztuaren 4an, *El juego de los idiotas*; abuztuaren 11n, *Novia por contrato*; 18an, *Aupa Etxebeste!* (euskaraz) eta 25ean, *Fearless: Sin miedo*.

JAIAK > UZTAIL AMAIERAKO ETA ABUZTUKO JAIAK

## Hemendik irailera bitartean bost auzotako jaiak dira

Uztailaren amaieran Maala, Ferrerias eta Kanpanzarko jaiak ospatuko dituzte

Abuztuaren hasieran, berriz, Udala auzoaren txanda da eta 24an, Uribarrirena

U.M.> ARRASATE

Maalako jaiak dira uztailaren 22an eta 23an. Antolatutako artean, nabarmentzekoak dira 16:00etan ume jolasak eta txokolate-jana; 19:00etan txikiteoa eta 22:30ean musika. Domekan, berriz, 12:30ean meza esango dute San Frantziskon, auzoko en alde, eta erretiratuedako luntxa emango dute, Plus-Ultran.

meria izango dira; eta 3an, meza 11:00etan eta luntxa eta ume jolasak goizean eta arratsaldean.

Hil amaieran, berriz, Uribarriko txanda da. 24an, 11:00etan meza esango dute, Goikobaluko emakumeek abestuta; gero luntxa izango da eta ume jolasak. 26an, erretiratuei omenaldia eta auzo bazkaria izango dira. Eta 27an, meza; han, egitaraua filmina moduan emango dute.

FERRERIAS ETA KANPANZAR

Ferrerriasko jaietan, uztailaren 26an, berriz, honakoa antolatu dute: 17:00etan umeendako jolasak, zaku lasterketa eta beste. 19:00etan, 7 eta 14 urte artekoendako lasterketa eta jokoak; eta 19:00etan, baita ere, hildakoen aldeko meza. 21:00etan, berriz, afaria egingo dute (txartelak, Tamayon), eta 23:00etan, erromeria. Jaiak bukatuko dira 00:00etan, zaku lasterketarekin.

Kanpanzarko jaiei dagokienez, San Inazio eguna ospatzen dute han. Arrasateko eta Elorrioko alkateek antolatu ohi dute jai hori, baina albiste hau idaztean oraindik zehaztu barik zuten egitaraua. Edozelan ere, uztailaren 31n goizetik gauera arteko jaia egingo dute.

UDALA ETA URIBARRI AUZOAK

Eta Udalaren ere 31n hasiko dira jaiak, umeendako pilotu partiduekin. Gero, abuztuaren 2an erretiratuedako afaria eta erro-

URIBARRI

### Egitara berezia, liburuxka moduan

Obren eraginez lanak ospatzeko leku egokirik ez dutela ikusita, jaiei baino uribarriarrek garrantzi handiagoa eman diote jaien aitzakiarekin landu duten egitarauari. Egitara horretan batu gura izan dute Uribarrin izan diren baserri eta familia ahalik eta gehien, bi belaunaldi atzera eginda. Auzoko alkate Jone Bergaretxek kontatu digun moduan, bi hilabete eman dituzte dokumentazioa batzen: "Etvez etxe ibili gara, artxibo mordoa erabili ditugu eta hemendik kanpora bizitzera joandakoekin harremanetan izan gara. Batu ditugu argazki batzuk dituztela ehun urte edo gehiago. 40 bat orriko egitaraua argitaratuko dugu".



# URONDO

Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak

- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



# Maalako Jaiak 06

## Uztailaren 22a, zapatua

- Goizeko 8etan etxaflero jaurtiketa.
- 16:00etan ume jolasak eta txokolatada.
- 19:00etatik aurrera txikiteoa.
- 21:00etan afaria.
- 22:30etatik aurrera musika.
- 23:00etan suzko erroberak.

## Uztailaren 23a, domeka

- 12.30etan San Frantziskon meza, Arrabalean hil direnen omenez.
- Arrabalako jubilatuentzat luntxa Plus-Ultra tabernan.

  
**NATUR HOUSE**  
Dietetika eta Elikadura  
Tel.: 943 79 04 34

  
**txoko txurruondo**  
Tel.: 943 77 18 47

  
**Barceló Bidaia**  
Tel.: 943 79 70 11

  
**Udalatx Inmobiliaria**  
Tel.: 943 79 59 99  
Orain Maala 11n

  
**Monte taberna**  
Tel.: 943 79 20 56

  
**ARREGI**  
Maalako Errebalia, 8  
Tel: 943 79 56 44  
arregi.arte@gmail.com  
**markoak** margolanak  
ispiluakerakusketa

  
**ELKORO**  
Tel.: 943 79 45 99  
943 79 18 86

  
**Casa Ceciaga**  
Arrasaten 1906. urtetik

  
**KIMETZ**  
Tel.:  
943 79 60 14

  
**Plus Ultra**  
T A B E R N A  
Tel.: 943 79 20 57

Asier Etxagibel &gt; Xake jokalaria

# "Egin dudan lana hobetzeko moduko da, baina gustura nago, asko ikasi dut-eta"

XABIER URTZELAI &gt; ARRASATE

Eguaztenean, Cacerestik bueltan zetorrela izan ginenean Arrasate San Andres Xake Taldeko Asier Etxagibeletin. Ordu gutxi lehenago Espainiako Txapelketako azken partida jokatu zuen, baina ez zuen txapelketa gura moduan amaitu, irabaziz. Hala ere, Caceresena egin duen astean asko ikasi duela esan digu.

**Zelan joan da gaur (eguaztenea) jokatu duzun azken partida?**

Ba, oso ondo ez, galdu egin dudalako. Baina, xakean ondo egiten zuen jokalari baten kontra galdu dut, eta alde horretatik, lasai nago.

**Zenbat partida izan dira guztira?**

Guztira sei egun egin ditugu Caceresena, eta tarte horretan bederatzi partida jokatu ditut. Orain atseden hartza gura dut, baina berehala hasiko naiz xakean berriro ere.

**Eta, zelan joan da txapelketa?**

Oso txarto hasi nintzen, lehenengo bi partidak galduaz. Okeurrena zen urduri nengoelako galten nuela, ez kontrarioak hobeak zirelako. Gero, konfiantza hartzen hasi eta lehenengo partidak irabazi nituen. Guztira 4 puntu eskuratu ditut.


**Ze balorazio egiten duzu?**

Egin dudan lana hobetzeko moduko dela, baina nahiko pozik geratu naiz. Azkenaurreko partidan geratu nintzen gusturen. Aurrez prestatu nuen norgehiagoka, eta dena nik uste moduan joan zen.

**Zelan ikusi dituzu txapelketa-kontrarioak?**

Uste dut 150 xakelari izan garela txapelketan, eta Euskadi-koan baino maila hobeak zela kontratu naiz. Gainera, lehenengo tauletako xakelariekin benetako maila zuten.

**Txapelketa amaituta, oporrak hartzeko gogoz egongo zara.**



Euskal Herriko hiru xakelari izan dira Caceresena, tartean, Asier.

IKER BARANDIARAN

**"Okerrena da urduri nengoelako galtzen nuela, ez kontrarioak hobeak zirelako"**

**"Konfiantza hartu nuenean hasi nintzen irabazten; azkenaurreko partida izan zen onena"**

Bai, egun batzuetan atseden hartuko dut. Datorren astean, baina, Lizarrara noa lagun batzuekin, xakean hobetzeko udaleku moduko batzuetara. Gustura joango naiz.

**Eta, datorren denboraldira begira, ze asmo?**

Aurten egin dudana errepikatzea ondo legoke, hau da, Espainiako Txapelketara sailkatzea. Horretarako, baina, lehenengo Euskadi Txapelketara sailkatzu beharko naiz.

**Dagoeneko lau urte daramatzazu lehian, baina, zelan hasi ninen xakean jokatzen?**

Egia esan, ez naiz gogoratzen noiz hasi nintzen piezak mugitzen. Lagunekin hasi nintzen jokatzen, eta gustuko nuenez, jarraitu egin nuen.

**Eta, badago kirol horretatik bizitzeko aukerarik?**

Oso zaila da hori, baina ondo egongo litzateke. Hasteko, Espainiako Txapelketara sailkatua naiz, eta Ligaren bigarren mailara igo. Pozik nago horrekin.

SQUASH-A &gt; DEBAGOIENEKO FINALAK ARRASATEN

## Alberto Ferreirok ez zuen finalean kontrariorik izan

Sergio Galdeanori 3-0 irabazi zion finalean; Gari Ibarzabal izan da hirugarrena

X.U. &gt; ARRASATE

Maiatzean hasi zuten squash txapelketak dagoeneko badu irabazlea: Alberto Ferreiro. Sergio Galdeanoren kontra neuritu zituen indarrak finalean, eta Sergiok txapelketa biribila egin badu ere, finalean ez zen set bakarra egiteko gauza izan. Finalerdieta kanporatuta,

hirugarren eta laugarren postuagatik lehiatu ziren Garikoitz Ibarzabal eta Luis Mari Gordo. Eta, bigarren partidu horretan Garikoitz gailendu zen (3-1).

MAILA PAREKATUA

Txapelketa amaituta, antolatzaileek oso balorazio positiboa egin dute, jokalarien maiatza handikorik jokatu dituztelako. Hori bai, datorren urtean txapelketako parte-hartzea handitzeko lana egin gura dute. Aurten 12 lagun izan dira, eta zenbateko hori handitzea dute helburu.

FUTBOLA &gt; MONDRAK HASI DU AURRE-DENBORALDIA

## Astelehenean hasi ziren entrenatzen, 22 jokalarirekin

Bi astez entrenatuko dira, eta abuztuaren 16an itzuliko dira lanera

ez dira-eta Atxabalpen izango. Azkeneko partiduetarako etorriren Jon Muruamendiarenak, berriz, Durangon jokatuko du.

Taldeko presidenteak uste du, baina, aurrealdean jokatzea badaudela jokalariak: "Esperantza handia dugu Julen Herizengen. Aurtengoan bere urtea izan behar da. Horrekin batera, baina, Ekain, Lopez, Zubizarreta... gola egin dezaketen jokalariak dira. Eta, gazte maiatik ere badatoz aurrelaria. Iraialaren leean jokatuko du Mondrak Bergara Hirian.



ARRASATE HIRIA Iraialaren 3an jokatuko dute txapelketa hori.

GOIENKARIA

**Txitxinde**

Berezitasunak  
Kazuelatxoak  
Ogitarteko  
hotz eta beroak  
Arrasate pasealeku 33  
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

**UGARAN jatetxea**

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

**UGARTE**  
Industria hornidurak

San Andres auzoa 2. 5-6  
Pab.  
Tel.: 943 -71 21 41  
Faxa: 943 - 71 21 40

**Sili Sili**

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturrioz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

nire bidaia hora

Mikel Zubillaga

Venezuelara > 2002ko udan

# "Hegazkineko pilotuak bolantea askatu zuen ogitarteko hartzeko, eta lasai egoteko esan"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Hegaldi merkeena bilatzeko asmoz joan ziren Mikel, Moreno, Txorieta Fernan bidaia agentziari, eta bi proposamen jaso zituzten: Brasil edo Venezuela. Brasilera joatea tentagarria baten ere, Venezuela auke-ruatu zuten, eta ez ziren damutu.

"Hilabete egin genuen Venezuela, eta motz egin zitzagun, egun batzuk gehiago izan bagenuit...". Caracas hiriburura iritsi eta Venezuelari erlojuaren orratzen noranzkoan eman zioten itzulia: "Margarita uhartera joan ginen lehenengo. Han lasai ibili ginen, lasaiegi. Pare bat egun egin genituen Margarita uharteak, eta egun horien beharra izan genuen gero, Meridako inguruak hobeto ezagutzeko. Margaritak Bolibar Hirira, Canaima oihanera... Gauza kurio-soa gertatu zitzagun bertan; Arrasatekoak ginela esan eta ber-tako gidariak oraindik Maider Eguesekin gogoratzen ziren. ETBrek bidaien saioaren bat grabatu zuen han, eta itxuraz, maiteminduta utzi zituen denak".

## HEGAZKINEAN, LARRI

Batetik bestera joateko turismo-hegazkin txikiak erabiltzen zituzten: "Behin, sei lagunenda-ko hegazkinean gindoazela, pilotuak ogitarteko hartzeko bolantea askatu zuen. Hegazkinak bat-batean egin zuen behera, eta noski, atzean gindoazenok larri-tu egin ginen. Pilotuak ogitarte-ko eskuan zuela berriro heldu-zion bolanteari, eta lasai egote-ko esan zigun, lurrera erortze-ko oraindik metro asko gera-tzen zirela".

Canaimako oianetik Kolon-biareni mugan dagoen herritxo batera joan ziren, Puerto Ayacu-chora: "Bertara joaten dira oianetako indigenak, batez ere alko-hola edan eta emakumeekin ego-tera. Bertan ginela, hango tribu batekin Tepui batera igo ginen gauez, tontorrik ez duen mendi



Mikel Zubillaga.

## "Denetik du Venezuela: karibear kosaldea, Andeetako mendiak, oihan ederrak..."

## "Momentuan arrantzatutako arraina zatitu, limoi zukua bota eta bertan jan genuen"



Mikel Zubillagak eta gainontzeko lagunek Margarita uhartearen egin zituzten lehenengo eguna.

horietako batera. Ematen zuen mendi erditik moztu zutela, eta tontorra kendu; ikusgarria zen". Gainera, Puerto Ayacuchon izan zuten zer ospatu: "Orduan jaio zen neure iloba Beñat. E-postaz bida-li zizkidaten erretratuak; parranda ederra egin genuen ilobaren izenean".

Eta Puerto Ayacuchoko inguruatutik Los Llanosera, zer-eta anakondak ehizatzen: "Ehiztari modukoekin joan ginen gu, baina ez pentsa ehiztari lanetan ibili ginenik. Makilak hartu eta atzetik jarraitzen genien, sei metroko anakondak zelan harrapatzen zituzten ikusten; hori bai, gu erretratuak ateratzeko gertatu ginen, eta anakonda eskuetan hartu. Bueno, Txori-k hori ere ez zuen egin, badezpada edo...". Anakondekin konforme ez, eta kaimanak ere ehizatu zituzten, "horiek txikiagoak", esan digu Mikelek. Merida aldera egin zuten gero: "Meridan ere parran-

daren bat edo beste egin genuen. Gure asmoa Andeetara joatea zen, mendian apur bat ibiltzera. Bainazkeneko egunak kostaldean gura genituen egin, lasai, eta Meridan ez genuen gura bes-te denbora egin. Orduan damu-tu ginen Margarita uhartearen egindako egonaldiaz...".

Eta, Chichirivichen egin zituzten azkeneko egunak, des-kantsua hartzen: "Han jan genuen lehenengo aldiz arrain gordina. Ontzi txiki bat aloka-tu eta uharte batetik bestera ibili ginen. Lo ere ontzian egiten genuen, eta ontziko jabeak beti izaten zuen kanabera gertu. Hala, bidaian zehar arrain bat arrantzatu eta jan egin gura ote genuen galdezu zigun. Guk baietz esan genion, baina gerta-tu egingo zuela uste genuen. Momentuan hartutako arraina zatikatu, limoi zuku apur bat bota, eta barrura. Eta ona zego-en, gainera".

bere ustez



Nerea Makazaga

## Euli baten hegaldian galdu barik

G aueko ordu txikiotan minutuek ihes egiten didate eta denborak artikuluan zehar jolasten duen eulia dela dirudi, karaktereetan aurrera eta atzera, badirudi zomorro txiki hori akabatu nahian bezala ni ere jostaketan galtzen naizela ezer akabatu ezinik.

Sarri egiten dit ihes denborak, eta agian denbora horrek badu ONCE-ko iragarkian azaltzen den iratxoaren edo iratxoentziz, denbora eutsi eta norbere menpe izateak baduelako

## "Aurtengoan, berriz ere, hustuko da herria eta bertako euliek emigratu egin beharko dute"

loteriaren saria lortzearen adina balio.

Stress-a zainetan daramagu azken une hauetan ere, eta bada momentua lasaitasuna geure egin eta arnasketa berri bat ekiteko.

Azken egunetako termometroek markatu duten zenbakie so eginez (eta noski, baita egutegikoei ere), badirudi, oraingo honetan ere, udan bete betean sartu garela; eta orain bai, iritsi zaio gehiengo bat denbora libreaz gozatzeko garaia. Aurtengoan, berriz ere, hustuko da herria eta bertako euliek emigratu egin beharko dute denbora aprobetxatzen ari ez den inor beraien jolasaldirako gertu aurkitzeko. Eulien batetan hegaldian galdu barik, hegaldirik luzeena, zeuona.



ZAHARBERRITZEAK

PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:

Kale txiki 3 beheoa (Musakola)  
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

### Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak

### Egur aroztegia

Leihoak

Ateak

Armairu enpotratuak

Armairu-fronteak

Mota guztietako zoruak

Lixatua eta bernizatua

### Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak

Gortinak, mahaiak eta aulkia

**ZUBIZARRETA LANTEGIAK**  
Gipuzkoa etorbidea 22  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 15 65

**Aitor**  
Belardenda  
Dietetika  
eta elikadura

- Produkto dietetikoak
- Sendabelarrak
- Kirol dietetika
- Elikadura naturala
- Kosmetika naturala
- Dieta personalizatuak

Olarte 7 • ARRASATE • Tel.: 943 79 90 43

TRANBIA &gt; 2007AN HASI NAHI DITUZTE LANAK

# Uda ostean ekarriko dituzte tranbiaren proiektuak

Ikusgai egongo dira Jaurlaritzarena eta Udalak egindako proposamenak jasotzen dituena

Kiroldegi geltokia jartzea eta Gabiria guneko aldaketak dira Udalaren proposamen batzuk

OIHANA ELORTZA > BERGARA  
Udalak oraindik ez du Jaurlaritzaren erantzun ofizialik jaso berak aurkeztutako proposamenaren gainean. Uda ostean, proiektu biak jarriko dituzte ikusgai, Jaurlaritzak hasieran aurkeztu zuena eta Udalak egindakoa. "Eta bi horiek batera, Udalak egindako proposamenak Jaurlaritzako proiektuan nola jasotzen diren erakusten duten planoak ere egon litezke", aurreratu du Julian Ferrar-ek, tranbiaren azpiegituraz arduratuko den Euskal Trenbide Sarea enpresako zuzendariak. "Erakusketa jarriten dutenean, bi hilabeteko epea zabalduko dute alegazioak aurkezteko eta alegazio horiek aztertuko dituzte behin betiko proiektua onartu baino lehenago", dio.

#### GABIRIAKO GUINEA

Udalak aldaketa bat baino gehiago proposatu dizkio Jaurlaritzak egindako proiektuari. "Aldaketa nagusia Gabiria eta Algodonera inguruko zatian egin genuen. Errepidea ez da gero hortik joango, eskumatarra egingo da erre-pide berria eta egungo Zubia ere beste bat izango da, zubiaren gainean dagoen Iberdrolaren zentrala San Joxepe auzora eramango dugu-eta", azaldu du Victoriano Gallastegi alkateak.

Zentralarekin batera Gabiria etxea ere bota egingo dute eta bi tunel artifizial egingo dituzte orain Zubia dagoen inguruan. Tunel baten azpitik ibilgailuendako errepidea pasako da eta errepide hori mendiari zati bat kenduta egingo dute, Bergarakit



ALDAKETA Algodonera eta Gabiria gunea asko aldatuko da tranbiarekin eta etxe berriekin.

O.E.

Arrasaterako norabidean esku-mara gelditzen den mendiari zati bat kenduta.

Tranbia eta oinezkoendako eta bizikletendako bidea erreka eta erre-pide artetik joango da, bigarren tunelaren azpitik. Gai-

DATUA

**5**

GELTOKI HASIERA BATEN

Jaurlaritzako hasierako proiektuak bost geltoki jasotzen ditu Bergaran. Udalak, Labegaraietan ere geltoki bat jartzea eskatu du, herriko kiroldegia eta industria gunea lotzeko.

nera, Ozaetatik Algodonera alde-ra doan kale bat ere egingo dute gune horretan. Datorren urtean egiten hasiko diren Miguel Altuna Instituto berrira joateko, berriz, Mayc enpresaren ondoko biribilguneko geltokiraino joan beharko da tranbian eta oinez joateko, Algodonera egingo dituzten etxe berriatik gora igo eta bi tunelen gainetik, Artabilatik. Hori guztiiori Sestra enpresaren egindako txosten teknikoak jasotzen du eta Diputazioaren oniritzia du.

**IBILBIDE LUZEAGOA IZANGO DU**  
Jaurlaritzaren proiektuak jasotzen du tranbia kanposantu pare-raino helduko dela. Udalak, aldiz, industria-guneraino heltzea proposatu du. Gainera, Ibargarai

kaletik pasa beharrean, norabi-de bat Zurraderotik pasatzea pro-positu du Udalak eta Matxiategi kalean izkinatik joan beharrean, erditik joatea ere aztertu du, auto gidariak espaloaren alde horretan dauden komertzioeta-ra ezingo direlako joan bestela.

#### 2007AN HASI LANAK

2002ko urte hasieran eman zien Jaurlaritzak eskualdeko udalei Debagoiena lotuko duen tranbiaren lehen zirriborroa. Hiru urte geroago, 2005eko urtarilean jarri zuten jendaurrean Bergarakit Aretxabaleta bitarteko trazatuaren proiektua. Udalek aurkeztutako alegazioak aztertu eta era-bakitakoan hasiko dituzte lanak. Nuria Lopez de Gereñu sailbu-ruak 2007an hasi nahi ditu.

# BERGARA Margoak

Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es



**ARRI**  
Industri hornidura  
*Latigilloak*

Telleria 2, BERGARA  
Tel.: 943 76 19 04  
Faxa: 943 76 43 03  
Sakelakoa: 656 78 64 84

**Jose M. Martin**

pinturak - paper pintatuak  
sintasola - moketak - gotelea  
pintura industriala

Errekalde auzoa 5, 1.a  
ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 62 02 /  
666 517 295

**GOIERRI**  
AUTO GIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

**GURIA**  
*Taberna*

Bidekurutzeta 5  
BERGARA  
943 76 20 34

**ETXEERRIA**

**ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA**

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

Susana Iza > Biltokiko ugazaba

# "Bergarako dendek ez dute beste inongoen inbidiarik, produktu onak ditugu herrian"

OIHANA ELORTZA > BERGARA  
80 urte bete ditu Susana Izak uztailaren 3an. Azken hilabetetan atseden hartu du etxean, baina denda bueltatuko da laster, "bezorekin eta jendearekin egotea eta hitz egitea izugarri gustatzen zait eta".

## Dendan egin duzu bizimodua?

16 urte nituenean hil zitzai gun aita eta Zerrajerako bulegoetan sartu ninduten lanean. Amak denda txiki bat zabaldu zuen Zubiaurren, Galarzaneko en etxeen, eta hari laguntzera joaten nintzen lantegitik ateratzen nintzenean. Denetarik zuen denda hark, bai jatekoak baita botoiak ere.

## Noiz eta non zabaldu zenuen lehen denda?

22 urterekin ezkondu nintzen eta Zerrajerako lana utzi nuen. Hirugarren semearen zain nengoa zabaldu genuen gizonak eta biok lehen denda Zubiaurren, Txarrantxa jatetxea dagoen tokian; 1955a zen. Etxetresnak salten genituen, nobedadea ziren orduan. Eraikuntzarako materiala ere bagenuen saltzeko.

## Ze etxetresna zenituzten?

Ulgorreko sortzaileekin harreman handia genuen. Gasteizen zuten haien denda orduan eta handik ekartzen genituen plantxak, irriatik eta antzerakoak. Majestic lapikoak merkatatu zituzten eta guk bagenituen denda, baita aspiragailuak ere.

## Kaleko jendea ere hasi zen joaten zuen dendara horrela?

Asko. Gainera, ordaintzeko erraztasunak ematen genituen eta etxeetara ere joaten ginen etxetresnek nola funtzionatzen zuten erakusteko azalpenak ematera. Gasa etorri zenean, gogoan dut udaletxeko arkueetan gal-



Zornotzan jaioa da Susana eta bost urterekin etorri zen Bergarara. O.E.

**"Beharrari begira zabaldu ditugu dendak; gaur egun ez dakit zer behar dagoen"**

**"Herriko dendak gune handietakoak baino hobeak dira, eta askotan, merkeagoak"**

dera mordo bat jarri genituela, iturria zabaldu eta ur beroa nola etortzen zen jendeak ikusteko. Guipuzcoano banketxea dagoen tokian, berriz, sukaldak jarri genituen haragia erretzen.

**Butanoa ere banatu duzue.** Gizona oso azkarra zen eta hark ikusi zuen butanoa bazotxrela. Madrilgo teknikari bat etorri zen Barrenkaleko dendara

eta hark eman zigun baimena: Eskoriatzan, Aramaion, Oñatin, Legazpin, Arrasaten, Aretxabala, Zumarragan eta Bergaran banatu dugu urteetan.

Bitartean, San Antonion zabaldu genuen sukaldeen dendak, orain Kutxa dagoen tokian. Handik San Pedrora joan ginen eta gero pentsatu genuen altzari denda zabaltzea plazan.

## Begi ona izan duzu beti negoziotarako?

Beharrak zeintzuk diren iku si eta horiek asetzeko dendak zabaldu ditugu.

## Ze harreman duzue herriko dendariok?

Oso ona. Bedelkar sortu genuen denok biltzeko eta indaritzeko eta harreman ona dugu. Gainera, oso denda onak egon dira eta daude Bergaran, ez dute kanpoko beste inoren inbidiarik. Adibidez, gozotegiak, bitxitegiak, tela, arropa eta zapata dendak, burdin dendak eta etxetresna denda onak daude. Eta guztiek konfiantza eta jenero ona eskaizten dute.

## Zergatik joaten da jendea merkat guna handietara?

Eguna pasatzena joaten dira eta bitartean erosketak egiten dituzte. Baino herriko dendak guna handietakoak baino hobeak dira, eta askotan, merkeagoak.

## Hil honen bukaeran itxiko duzue etxetresna denda.

Eraikin osoa bota behar dute etxebizitza berriak egiteko. Ez dakit berriro zabalduko dugun.

## Nolako denda zabalduko zenuke gaur?

Ez dakit ze behar dagoen orain eta ez nuke jakingo. Gauzak azkar zahartzen dira orain.

## > AUDITORIOA Seminarioko erretaula mugitezko lanak esleitu dituzte

Errege Seminarioko elizako erretaula desmuntatu, garraiatu, zaharberri eta kokapen berriko proiektu teknikoa Albadaye enpresari adjudikatu dio Udalak. Udal museologoaren zuzendaritzapean egin beharko du proiektuaren txostenen enpresa horrek eta erabakia jakinarazten zaionetik lau hilabeteen barruan. Barroko garai-ko da erretaula.


## > ZERBITZUAK Abuztuan ordutegi berezia izango dute udal zerbitzu batzuek

Abuztuan udako ordutegia izango dute udal zerbitzu batzuek; liburutegiak eta kirolegiak, adibidez. Labegaraietako kirolegia itxita egongo da hilabete osoan.

Liburutegia hilaren 12tik 20ra itxita egongo da eta gainetik 08:00etatik 13:00etara zabalduko dute. Igerilekua 09:00etatik 21:00etara zabalduko dute egunero.

## > AGORROGIN Irailetik aurrera Agorrosinera joateko tasaren zuzenketa

Agorrosin ekintza-gune berriaren esku-orria bantzen ari dira egun hauetan etxeetan. Irailearen 16tik aurrera instalazioak erabiliztzeagatik ordaindu beharreko tarifik datoz bertan. Bi akats daude: Bergarako kirol txartela irailaren 16a baino lehenago atera dutenen familiaren tasa 64,20 euro da eta 18 urtetik beherakoenei aukearan gutxituak falta dira.



**Renove Plana:  
75 euroko deskontua!**



# Herran

BERGARA

**ELEKTRIKAKO TRESNAK:** Matxiategi 3 • 943 76 12 22  
**SUKALDEKO ALTZARIAK:** Matxiategi 4 • 943 76 37 53



vegasa



FOUR FRIENDS Euren musikan jazzza eta swinga nagusi badira ere, beste estilo klasiko batzuk ere ukitzen dituzte.

GOIENKARIA

**MUSIKA** > 'UZTAILEKO OSTIRALAK ESPOLOIAN'

## Bilboko Four Friends musika taldearen emanaldia gaur gauean Espoloian

'Uztaileko ostiralak Espoloian' egitarauari amaiera emateko, datorren egubakoitzean Ortophonk taldearen emanaldia izango da

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Four Friends musika taldeak emanaldia egingo du gaur, egubakoitzza, Espoloian, 22:30ean. Gaztelupeko Hotsak diskotexearkin bi lan argitaratu dituzte dagoeneko bilbotarrek: *Bilbop eta Dzanga*.

Taldearen abiapuntua Deus-tuko Mr. Jam Musika Zentroa da eta 1999tik ari dira. Euren musikan jazzza eta swinga nagusi badi-

ra ere, beste estilo klasiko batzuk ukitzen dituzte baita: bluesa, bossa, funk, rockabilly eta popa. Abesti propioak zein estandarraren bertsioak era instrumentalean egiten dituzte.

Iñaki Iraeta eta Eneka Albizu gitarra joleek, Fernando Iraeta baxuak eta Jorge G. Abriskeita bateriak osatzen dute Four Friends. Beraiekin batera Izar Herran kantaria, Joe Gonzalez

saxoa eta Carlos Jover harmonika jolea arituko dira Espoloian.

**ORTOPHONK, HILAREN 28AN**

*Uztaileko ostiralak Espoloian* egitarauari amaiera emateko, hurrengo egubakoitzean Ortophonk taldearen emanaldia izango da. Gasteizen sortutako taldea da Ortophonk eta soula, funk, bossa-nova, jazzza eta erritmo afrikarrak tartekatzen dituzte.

21 Japonesas, Potato eta All-nighters taldeetan aritutako musikariak ari dira Ortophonk taldean, 2000. urtea ezkero: Raul Romo (saxoa eta flauta), Dani Foronda (baxu elektrikoa), Mikel

Foncea Parrutxo (DJ programazioak eta samplerra), Nando De la Casa (bateria eta teklatuak), Victor Garcia De la Torre (perkusioa), Ivan Pacheco (gitarra) eta Say-Chin Yeoh (teklatuak).

**ABUZTUAN, ZINE EMANALDIAK**

Abuzturako, berriz, zine emanaldiak iragarri dituzte. Eguenetan izango dira emanaldiok, San Martin plazan, 22:00etan. Abuztuaren 3an *Charlie y la fábrica de chocolate*, hilaren 10ean *Obaba* (euskaraz), 17an *Bajo cero* filma eta, azkenik, abuztuaren 24an *Los chicos del coro* (euskaraz).

&gt; JAIAK

### San Martinak: gazta dastatze ikastaroa eta danborradak

San Martin jaietako danborradak gertatzen hasi dira dagoeneko. Udaleko Kultura Zerbitzutik adierazi dutenez entsegu egunak honako hauek dira: 4 urtetik gorako gaztetxoendako irailaren 4an 5ean, 6an, 7an, 11n, 12an, 13an eta 14an, Seminarioan, 19:00etatik 20:00etara (gerriko eraman behar dute neska-mutilek). Nagusien entseguak egun eta toki berean, 20:00etatik 21:00etara.

Bestalde, gazta dastatze ikastaroa izango da irailaren 7an, kultura etxearen, 19:00etan. Izenematea eta argibideak: 943 77 91 59.

&gt; JAIAK


### Santiago jaiak ospatuko dituzte Basalgon

Bihar, zapata, Basalgoko Santiago jaiak hasiko dira, 09:00etan. Domekan bertso bazkaria izango da, 14:30ean, Joxe Agirrerekin eta Amets Arzallusekin eta Xapre eta Zarra soinujoleekin. Asteleheanean, hilaren 24an, mus txapelketa izango da, 16:00etan (izenematea Basalgoko elkartean, txapelketa hasi baino ordubete lehenago).

Santiago egunean izango dira meza 11:00etan, gaztetxoen txirrindulari igoera 12:00etan, pilota partiduak jarraian, dantza txapelketa 17:30ean, idi-probak 18:30ean eta Xapre eta Zarra.

# OGIZUN

koop. elk.  
okindegia



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10  
BERGARA OÑATI  
943 76 45 53 943 78 24 13


## disdira

ile apaindegia  
edertze gela

Masterreka 7  
BERGARA  
Tel.: 943 76 00 55

# ZABALA

JATETXEA • OSTATUA



Labegaraieta, Ibarra 14  
BERGARA.

Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura

**Sugoi**

ERLOJUAK,  
ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea  
943 76 59 54 BERGARA

## TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza  
materialak

Telleria (Labegaraieta)  
BERGARA  
Tel.: 943 76 27 93

## KONDÉ PANADEROKUA



Burdinatxe 1  
943 76 02 57  
Toki Eder plaza 3  
943 76 14 87  
BERGARA

# EDEL

TAPIZ DENDA

Etxerako artikuluetan aukerarik haundiiena


Alfonbrak, kortinak, kortinoiak,  
koltxak, edredoia, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

# BOLU SUKALDEAK

2000 eguneko garantia.  
Aurrekontua konpromiso gabe.



Bolu 22 behea Bergara. Tel/faxa: 943 76 27 02



# ELKAR

ELEKTRAGINTZA


## Mota guztiako instalazioak



ZURE  
ZERBITZURA!!

943 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.  
**BERGARA**



ZORROTZA Lleidako ur kanalak ez zuen akatsetarako tarterik uzten; irudian, Leire Fernandez.

MASMAR.COM

PIRAGUISMOA &gt; ESPAINIAKO TXAPELKETA, ESLALOMA

## "Ez da txapelketa biribila izan, aurrerago egotera ohituta daude"

Markel Agirre, Markel Cestafe, Leire Fernandez eta Iñaki Gallastegi izan dira Parc del Segren

XABIER URTZELAI &gt; BERGARA

Joan den asteburuan jokatu zuten Espainiako Slalom Txapelketa, eta proba hori izan da Lurraldeko Kopako azkena. Hala, Atlético San Sebastián taldeko piragüistek erakutsi zuten indartsuen daudela, eta Euskadira ekarri zuten saria. Beti Busti taldeak lau ordezkarri izan zituen Lleidako proban, eta aurrealdean ibili bazi-

ren ere, Kuxi-k esan digu txapelketa ez dela biribila izan, Bergarako ordezkarriak aurrerago egotera ohituta daudelako. Markel Agirre (Senior, K1) hamalaugarren postuan sailkatu zen; Markel Cestafe (Junior K1) bederatzigarrena izan zen; bosgarren postuan sailkatu zen Leire Fernandez (Emakumeak K1), eta laugarren sailkatu zen Iñaki Gallastegi

(Beterano gizonezkoak K1). Dena dela, euren helburua bete zuten: "Betiko moduan, gozatzera joan ziren hara, eta hori lortu egin zuten. Hango ur kanala oso zorrota da, eta hemengoek neurria eman zuelauste dut".

### ENTRENATZEKO ZAILTASUNAK

Kuxi-k asko baloratzentzu pira guista horiek egiten duten lana: "Hemen denok dakigu zelako zailtasunak ditugun entrenatzeko; eta zaila da horrela mailari eus-tea. Hor dago meritua".

&gt; ZOZKETAK

### Ipintzako zozketaren zenbakia saritua 01099 da, eta igeriketa elkartearena 5539

Ipintzako txapelketako eta igeriketa elkarteko zozketek dagoeneko baditzute zenbakia sarituak. Hala, ONCEko loteriako uztailaren 14ko saria 5539 zenbakia jaso zuen, eta zenbakia hori da Igeriketa Elkarteko zozketako zenbakia saritua. Bada, zenbakia hori duena jar dadila klubarekin harremanetan.

Eta, joan den astean amaitu zuten Ipintzako Futbol Txapelketak ere baditu futbol jokalariez gain, saritu gehiago. Hala, 01099 zenbakia duenak lau laguneko afaria irabazi du Zumelaga jate-txean. Zenbakia hori ez balego, 00535 zenbakia da ordezkoa.



GOIENKARIA

## Mikel Labaka, Madrilen lehian

Mikel Labaka 16 urteko gazteak Espainiako triatlo txapelketan parte hartu zuen Madrilen, kadete mailan. 750 m igerian, 20 km bizikletan eta 5 km korrika egin zuen ordubete eta 13 minutuan. Onenen artean egon zen, baina korrika proban baimendu gabeko toki baten ura harteagatik deskalifikatu egin zuten. Bihar, zapatua, Plentzian lehiatuko da.

**Irrintzi**  
kafetegia

Irala 3. BERGARA  
Tel.: 943 76 48 26

# AZPEITXI

## Jatetxea

Aranerreka 13 behea. Bergara  
943 76 55 00

**Aldoka**  
**Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi  
BERGARA

**UREDERRA**  
ITURGINTZA

Iturgintza  
Berogintza  
Aire egokitua  
Konponketa  
Salmenta

Arruriaga 11  
686 943 918

**SANTOS**

Etxetresna elektrikoak  
eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA  
Tel.: 943 76 26 10

**ANTIA**

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09

**POL-POL**  
Taberna

943 76 07 78. Bergara

**ARANE**  
KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.  
BERGARA  
Tel.: 943 76 74 09  
670 483 903

## mingainari tiraka

Iker Sanchez > Igerilekuo langilea

# "Politikari bati egindo nioke hondokarri bat"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Udako denboraldia bete-betean da Bergarako igerileku. Bertan dihardu lanean ekaina ezkero Iker Sanchezek, eta irailean igerileku berriak zabaldu artean jardungo du bertan. Igerileku inguruak eta jendea zaintza eta karpa zabaldu eta ixtea dira haren ardura nagusiak.

### Udarako igerilekuala hondartzta?

Ez bata ez bestea. Hondartzan harea ez dut gogoko eta igerileku mugatua da. Urkulu edo Garaio nahiago ditut.

### Ez al da gogorra besteak uretan daudenean zuk lanean jardutea?

Bero handirik ez du egin, eta oraingoz ongi dihardut, baina bero handia balego sartzeko gogoa izango nuke.

### Nori egingo zenioke hondokarri bat?

Aguadilla? Politikariren bati. Asko agindu eta gutxi egiten dutenetako bati.

### Zein salbatuko zenuke itotzen ikusiz gero?

Edonor. Bere bizitza besteei laguntzeko ematen duen norbait, esaterako.



### Udako egun baterako plan egokia?

Goizean bizikletan bueltatxoeman, arratsaldean bainua hartu eta gauean lagunekin afaldu eta parranda egin.

### Igerileku berriak zabaltzen dituztenean joateko asmorik baduzu?

Bizikletan ibiltzen nintzenean joaten nintzen, baina aspaldian ohitura galdu dut eta orain ez dut uste sarri joango naizenik.

### Eguzkia hartzeko kremarik ematen duzu?

Ahal dela itzalean egoten saiatzen naiz.

### Noiz ikasi zenuen igerian?

Umetan, eskolatik egindako ikastaroren batean, pentsatzen dut.

### Katilu bete uretan itotzen denetako zara?

Normalean lasaia naiz. Baina urduri ipiniz gero benetan urdurria izaten badakit.

### Bainujantzi estu eta motza ala zabal eta luzea?

Betiko praka motzekin ni gustura, baina bakoitz libre da aukeratzeko.

## argazki zaharra



Aranzadikoak  
Amategin,  
1985ean

Ikasturtea amaitu eta oporetan dira umeak, baina eskola garaiak ekarriko ditugu gogora. Aranzadi ikastolako neska-mutikoak Amategiko zelaira joan ziren arratsalde

pasa eta ikasle eta irakasleak bertan harrapatu zituen argazkilariak. Argazkian umeekin agertzen diren irakasleak dira: Mari Carmen Amasorrain, Pili Fernandez,

Arantza Idigoras, Justina Elexpuru, Edurne Barrutia eta Idoia Azkarate.

Argazkia: Juanjo Amasorrain.  
Testua: Iratzi Agirreazaldegi

## bere ustez



Iñigo Iñurrategi

'Ayudas para el euskera': bihotzik ez

Eusko Jaurlaritzak ez du bihotzik. Izatekotan bere corasonsitoa izango du. Baina bihotzik ez. Bergarako Udalak Euskara Bizierritzeko Plan Nagusia gartzeko diru lagunza eskatu eta hala jaso du dagokiona (hor nonbait "corasonsitoa"). Dirulaguntzaren ordainketaren agiriak zera zioen: "Ayudas para el desarrollo en entidades públicas EBPN".

Argitu dezadan dirulaguntza Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak onartu zuela, eta ordainketa agiria

"Hainbat herritarren eta erakunderen ahalegina zaputztuta geratzen da horrelakoetan"

Ogasun eta Herri Administrazio Sailak (barkatu, Departamento de Hacienda y Administración Pública-k) bidali zuela.

Harrigarria eta, aldi berean, salagarria da gaur egun horrelakoak gertatzea. Hainbat herritar eta erakunderen ahalegina zaputztuta geratzen da horrelakoetan.


Jakin badakit administrazioan bertan ere hainbatek egoera aldatzeko ahaleginean diharduela. Baina sakonean beharko da lurra irauli, landu eta hazia erein. Bestela jai dugu.

Bitartean izenak (Eusko Jaurlaritzak) eta izanak (Gobierno Vasco) bakoitzak bere bidetik jarraituko du. Bihotzak barik "corasonsitoa"-k agintzen duelako.

**Silvestre Muñoz, s.l.**  
pinturak

Pintura-lanak orokorrean  
•  
Pintura industriala  
•  
Zoru arinak: sintasolak, moketak...


610 25 99 82  
610 25 40 37  
943 76 24 11  
Amillaga 1, 10 pabilioia.  
20570 BERGARA

**JAUJA  
KIROLAK**  
Irizar 2. BERGARA  
943 76 14 95

**IRURAK MARGOAK**  
DISEINUAK, S.L.

Era guztiak lanak  
Moketa eta sintasola  
Iztuku esponjatua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara  
Telefona: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984  
Faxa: 943 76 09 32



Busti ezpainak  
eta astindu mingaina,  
hemen dagoela giro bikaina.  
Andramaixak dira alajaina!



Aretxabaletako  
Udala

'Miguel Strogoff'  
musikala eskainiko du  
Errusiako folk baletak

Des-Kontrol taldearen  
kontzertua egongo da  
txosna-gunean

Sokamuturra egun  
bakarrean egongo da,  
abuztuaren 17an

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABAleta  
Gaur bertan hasiko da Kultura  
Saila Andramaixetako egitaraua  
banatzen. Herritik alde egin  
baino lehen jasoko dute  
aretxabaletarrek etxearen,  
bueltatzeko tentazioa izan  
dezaten, beharbada.

**KONFETI ETA SERPENTINAK**  
Aratz taldeko kideek izango dute  
jaiei hasiera emateko ohorea.  
Aurtengo etxafuegoari lagun egi-  
teko, gainera, serpentina eta kon-  
feti ikuskizuna antolatu dute,  
benetako jai giroa sortzeko. Hori  
izango da jaietako berrikuntze-  
tako bat.

Txosna-gunea jarriko dute,  
azken urteotan bezala, Azbe lan-  
tegi parean. Bertso poteoarekin  
emango diete jaiei hasiera bertan,  
eta tortilla txapelketa egin-  
go dute gero. Gazte afaria egon-  
go da, gainera, Andramari bez-  
perako gaua giroten hasteko.

**ERRUSIAKO FOLK BALETA**  
Andramari egunak ere izango  
du ekitaldirik. Udalbazarra pro-  
tagonista izango den meza nagu-  
si osteko tartetxo, La Ribera  
Canta jotariekin girotuko dute,  
Herriko Plazan. Arratsaldea Tra-  
pu Zaharra antzerki taldearen  
*Tetrarip* kale animazioarekin  
hasiko dugu, eta Charros de Jalisco  
talde mexikarrak bukatuko du.  
Zazpi musikarik eta lau dantza-  
rik osatutako taldea da Mexiko-  
tik datorrena. Txosna-gunean,  
ostera, jolasak egingo dituzte  
arratsaldean, eta txerri harrapa-  
keta gauean. Ezin bukatu, baina,  
Andramari eguna suzko errube-  
rak ikusi barik.

Abuztuaren 16a kirolari eskai-  
nitako eguna izaten da. Leintz  
ibarreko 68. txirrindulari laster-  
ketarekin hasiko dute, eta herri-

**JAIAK > ANDRAMAIXAK**

## Mexikarrak, errusiarrak eta zezen gutxiago Andramaixetan



ANDRAMAIXAK Ume zein helduentzat egokitutako egitaraua egiten saiatu da Kultura Saila; gazteek txosna-gunea izango dute.

GOIENKARIA

KONTUAN HARTZEKO

### Aratz taldeko kideek egingo dute jaiei hasiera emango dien pregoia

Aratz taldeko kideak izango dira aurtengo jaiei ongietorria egiteko  
ardura izango dutenak. Herriko bertako gutxitu psikikoak eta Atzegiren  
Durana kaleko 13. etxearen bizi diren kideak elkartuko dira udaletxe  
aurrean abuztuaren 14an, 19:00etan. Herriar asko hurreratuko da,  
zalantzak barik, eurekin batera Andramaixak hasteko gogoz. Gogora  
dezagun Atzegi elkartea antolatutako film laburren lehiaketan hirugarraren  
saria jaso zutela Aratzeko kideek, eta egindako ahalegina eta lana  
eskertu gura die Udalak. Benetan urte polita bizitzen dabilta Aratzeko  
lagunak han eta hemen dabilzalako jasotzen sariak eta aipamenak.

Ez da, baina, jaietako omenaldi bakarra izango; izan ere, Aretxabaleta  
Kirol Elkartea, UDAk, urezko intsignia jarriko dio Joxe San Migeli, 17  
urte bete dituelako herriko pilotari gazteak entrenatzen.

ko pilotariekin partiduak jokatuko  
dituzte gero. Gaueko pilotu parti-  
du profesionalak jokatu bitarte-  
an, UDAk Joxe San Migeli urez-  
ko intsignia jarriko dio 17 urtean  
egindako lana eskertzeko. 23:30ean,  
Stavropol Cossacks Errusiako folk  
balet nazionalak *Miguel Strogoff* musikala eskai-  
niko du; Europa ekiadoko dan-  
tzak, musika, ohiturak eta jan-  
tziak jasotzen dituen ikuskizuna.

Txosna-gunean bazkaria  
egingo dute *Konponbidea orain!*  
*Preso eta iheslariak etxera lelo-  
pean*, eta Des-Kontrol taldearen  
kontzertua egongo da gauean.

### KOADRILEN EGUNA

Abuztuaren 17a sokamuturra  
esnatuko du. Aurten egun bakar-  
ra izango dute zezenzaleek sokamuturra  
rekin gozatzeko. Eta umeentzat Nabarreria-  
ko zezen-txoak; zezen-plaza eta korta mun-  
tatuko dituzte, baita entzierroak  
egin ere, plazan. Bazkatzeko  
urtero moduan paella eskainiko  
diete herriarrei, eta ostean Mar-  
sel magoaren ekitaldia eta joko-  
ak Gazte Ekimenaren eskutik.

Eguna eta jaiak bukatzeko  
disko jai dotorea antolatu dute:  
soinu eta argi ikuskizuna bi DJ  
eta bi gogoren laguntzarekin.

**ZARAIA**  
**taberna**

Goizeko 06:00etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABAleta  
Tel.: 943 79 88 95



HIRIGINTZA &gt; TRANBIA

# Hil bukaeran jarriko dute ikusgai tranbiaren ibilbide berriaren proiektua

Hilabete bi inguru egongo da udaletxeen ikusgai, eta herritarrek ibilbide berriari alegazioak aurkeztu ahal izango dizkiote tarte horretan

**MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta**  
Euskal Trenbide Sareak Udalarri adierazi dionez hil honetan bertan jarriko dute ikusgai tranbiaren proiektu berria. Datarik ez dute zehaztu, baina seguru asko datorren astea jasoko dute proiektua udaletxean.

**ALDAKETA HANDIA**  
Hilabete bi inguru egingo ditu proiektuak udaletxean, eta tarte horretan alegazioak aurkezteko aukera izango dute herritarrek. "Proiektuak aldaketa handia jasan du gure herrian; horregatik alegazioak aurkezteko epea zabalduko dute berriro", azaldu digute Hirigintza Sailean.



**IBILBIDE ALDAKETA** Musika eskola parean bi bide hartuko ditu: bata Bedarreta auzunera eta bestea Otarola kalera.

## BI BIDE

Arrasatetik datorren tranbiak bi bide hartuko ditu musika eskola parean. Bata, Bedarreta auzune ingurutik pasatuko da eta Lausita kaletik Belorrieta raino joango da ibaieren beste aldetik, hain zuzen Bruesa enpresak egingo dituen etxebizitzen albotik. Bestea, Otarola kaletik Errekarrenera sartuko da eta Belorrieta auzoaren hasieran, Txakoli taberna parean, errekaren beste aldetik datorrenarekin egingo du bat. Belorrieta karrera batera joango dira noranzko biak Loramendi kalera, eta handik Araba ibilbidean sartuko dira. Lehenengo fasea Bergaran hasi eta Aretxabaletan bukatuko da, eta 17,5 kilometro izango ditu.

Ibilbidearen planoak, gelotokiak ondo zehaztuta eta beste hainbat xehetasun ekarriko dituzte laster. Iaz panel bidez aurkeztu zuten proiektua, eta ganbaran egon zen ikusgai. Oraingoa ez dakite zela ekarriko duten, baina txostenak bakarrik izanda ere ikusgai egingo da Hirigintza sailean.

&gt; JAIAK

## Domekan hasi eta martitzena bitartean, Santiagoak Goroetan

Domekan, uztailak 23, hasi eta martitzena bitartean ospatuko dituzte Santiago jaiak Goroetan. Mus eta briska txapelketa egingo dituzte 16:00etan domekan, eta auzo afaria egingo dute gero. Txome akordeolarria hurreratuko da afalostea girotzera.

Astelehenen umeei eskainiko diete eguna eta marrazki lehiaketa eta jolasak egingo dituzte, 18:30ean. Martitzenean, Santiago eguna, meza nagusia izango dute Goroetako elizan, 12:30ean, eta ondoren auzotarrek luntxa eskainiko diete hurrera-tutako guztiei.

## Asteko beroa jasateko, ura goitik behera

Benetako beroa pasatu dugu astean, gorputzera itsasten zen beroa. Eta zela egin aurre gerizpetan ere ezin denean jasan? Urarekin. Halaxe egin dute udalekuetako eta Arizmendiko Basapeazpi guneko umeek. Ateria kanpora tutu malgua, ur pistolak eta era guztiak ontziak eta elkarri ura botatzen jardun zuten ume eta ez hain umeak asteko egun gehienetan. Egunari aurre egiteko gorputza freskatzear behar goizean goizetik, Basabeazpiko neska-mutikoek bezalaxe.



M.A.

**Marti**  
erloju-denda

Viceroy Fashion eta Lotus Style

Mitarte 16, Tel.: 943 79 01 72 - ARETXABAleta





ENTRENAMENDUAK Preferente mailako futbol taldea hasita dago entrenamendu saioak egiten.

M.A.

FUTBOLA > 2006-2007 DENBORALDIARI BEGIRA

## Zazpi jokalari berri izango ditu preferenteko futbol taldeak

Iaz Mirandes taldean ibili zen Akaitz Garai aretxabaletarra eta atezain lanak egingo dituen Mikel Mondragon arrasatearra, tartean

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABAleta  
Aretxabaleta Kirol Elkarteak urteko batzar orokorra egin du. 2005-2006ko kontuak itxi zituzten eta hurrengo denboraldiko proiektuak aurkeztu. Horren harira, Preferente mailako futbol taldea hasita dago entrenamendu saioak egingo, taldekide berri eta guzti.

### TALDEKIDE BERRIAK

Felix Recio soraluzetarrak jarrituko du preferenteko taldea gida-zten, Aurelio Calzon izango da bigarren entrenatzailea eta Xabi Lasagabaster atezainen ardura-duna. Taldeak hainbat aldaketa izango ditu, eta dagoeneko ez dira egongo: Oxel, Armendariz, Hegoi Arrieta, Unamuno, Endika eta Dani Galan atezaina. Euren ordez egongo direnak: gazteen

mailan ibili diren Gari Dublan eta Mikel Sanchez, bigarren mailako erregionaleko Ibon Gonzalez, Ekiotz Alustiza soraluzetarra defentsa lanak egiteko, Indautxu taldeetik datorren Ruben Leonardo pibota, iaz Mirandesen ibili zen Akaitz Garai aretxabaletarra eta Mikel Mondragon arrasatearra izango da atezaina. Bestalde, Torresi ebakuntza egin zioten ekainean eta sei hilabete beharko ditu osatzeko, eta Jon Irigoi ere min hartuta dago.

### ENPRESA BAT KONTRATATU

Batzar orokorrean onartu zuen UDAk zuzendaritzako teknikoen lanak egiteko enpresa bat hartzea. "Arazorik handiena entrenatzaileak topatzea da, eta profesionalizaziorantz lehen urratsak emateko hartu dugu

erabakia", dio Jokin Antxia presidenteak. Hala, zuzendaritzako, entrenatzaile eta kirolari taldean egingo du lan enpresa horrek, baita administrazioko gestioak egiten ere.

Bestalde hurrengo denboraldi bukaera, maiatzetik abuztura bitartean Ibarra futbol zelai-ko belar artifiziala aldatu egingo dute. Udala egingo da kargu.

KIROL ETXEA > ABUZTUAN ITXITA

## Arrasateko igerilekura joan daitezke abuztuan abonatuak

Abuztuaren 1etik 6ra goizez zabalduko dute kirol etxea eta 7tik 27ra itxita egongo da

M.A. > ARETXABAleta

Kirol etxea itxita egongo da abuztuaren 7tik 27ra bitartean. 1etik 6ra, ostera, goizez bakanrik zabalduko dute, 09:00etatik 13:00etara. Uztailaren 31n, San Inazio eguna, itxita egongo da egun guztian.

TXARTELA ETA ORDAINAGIRIA

Azken urteotan bezalaxe aurten ere Arrasateko igerilekura joateko aukera izango dute Are-

txabaletako abonatuak abuztuan. Kirol etxeko txartela era-kutsi beharko dute sartzeko. Bestalde, txartela ez daukatenak, hau da, atzamarra erabilten dutenak sartzeko, kirol etxetik pasatu beharko dira ordainagiria egin diezaieten. Hori erakutsi beharko dute gero igerileku sarreran.

Iaz Aretxabaletako txartela zuten 300 erabilera zenbatu zituzten Arrasaten.

> LIBURUTEGIA

## Uztailaren 29tik abuztuaren 27ra itxita egongo da Udal Liburutegia; KZgunea, abuztu osoan

Uztailaren 29tik abuztuaren 27ra bitartean egongo da itxita Udal Liburutegia. Gainera, udako ordutegia dauka bai uztailean, bai abuztuaren 28tik irailaren 18ra bitartean: astelehen, eguzkien eta egubakoitzetan goizez bakarrik, 10:00etatik 13:00etara. Martitzetan eta eguzketan, ostera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Bestalde, KZgunea itxita egongo da abuztuan.

> ZINEMA

## Uztailaren 28an bukatuko da udako zinema emanaldia 'Madagascar' marrazki bizidunekin

Uztailarekin batera bukatuko ditu Herrako Plazako zinema emanaldia Kultura Sailak. Gaur, *Las crónicas de Narnia* eskainiko du; hilaren 25ean, martitzena, *Memorias de una Geisha*; eta hilaren 28an, *Madagascar* marrazki bizidunak. Guztiek izango dira gaztelera. Aurten, dagoeneko emanaldi bi geratu dira bertan behera eguraldiaren erruz. Martitzenean, ekaitza heldu zen filmaren orduan, eta ezin izan zuten ikusi *El jardinero fiel*.

IZARTU KAFETEgia  
Iralabarri plaza 8 Aretxabaleta Tel.: 943 77 11 81  
Abuztuan zabalik!  
Gaueko giroa eta terraza  
Ondo ibili Andramaixetan!

**Angelines**  
AUTOZERBITZUA

**Frutan eta txarkuterian  
espezialitatea**

Mitarte 16 • 943 79 61 42  
ARETXABAleta

**P  
I  
E  
N  
S  
O  
S  
U  
N  
Z  
U  
E  
s.a.**

**FELIX PAGALDAY**

Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea  
ARETXABAleta  
Tel.943 77 00 33/79 42 56

GAZTEAK &gt; 3 ETA 12 URTE ARTEKOENDAKO UDALEKUAK

# Udalekuak bukatzeko jai erraldoia egingo dute gaur

Hilaren 4tik gaur arte (egubakoitza) egin dituzte udalekuak, eta balorazioa positiboa da

Azkeneko 2 urteotan ekintza gehienak kalean egin dituzte, umeek ohitura hori berreskura dezaten

**IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA**  
Azken 16 urteotako ohitura jarraituta, 3 eta 12 urte bitartekoendako udalekuak egin dituzte herrian. Udalak antolatu ditu eta Ludolan empresasak hartu du horren ardura. Aurreko urteetan Axtrokik egin ditu, baina iaz Udalak lehiaketa publikoa egin zuen eta Ludolanek ordezkatu zuen Axtroki.

Hilaren 4an hasi zituzten gaztetxoendako ekimenak eta gaur, egubakoitza, bukatuko dituzte. Udalekuei bukaera emateko jai erraldoia egingo dute herriko plazan, goizean hasi eta 17:00ak bitartean. Besteak beste, begiraleek eta umeek ikuskizunak egingo dituzte.

**190 BAT UME**

Udalekuek oso harrera ona dute, eta umeak desearazten egoten dira uztaila heltzeko. Aruten 189 umek eman dute izena, aurreko urteetan baino gutxi batzuk gehiago. Horien zaintzaz arduratzeko, hogeい begirale, bi koordinatziale eta arduraduna ibili dira goizetik iluntzera lanean.

Zerbitzu hori 3 eta 12 urte arteko ume eta gaztetxoei zuzenduta dago, eta aruten Haur Hezkuntzara eta Lehen Hezkuntzara bideratutako koordinatzaile bana kontratatu dituzte, adin tarte guztietara hobeto egokitzeko.



GEHIAGO Aurten, 189 umek eman dute izena, aurreko urteetan baino gutxi batzuk gehiago.

IKER BARANDIARAN

**KALEAN JOLASTU**

Eskoriatzan egiten dituzten udalekuetan udalerri inguruan ibiltzen dira goiz eta arratsalde, 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara bitartean. Ia egu-

nero kalean ibili dira askotariko jolasak egiten. Horrez gain, irteera batzuk ere egin dituzte: Mendiola, Otala zelaira, Almen ingurura, Arrasateko igerileku... Bestalde, Aretxabaletako

udalekuetako gaztetxoekin olinpiadak eta egun-pasa ederra egin zituzten.

"Gaur egungo umeak ez dau de ohitura kalean jolasten, eta hori berreskuratu behar dugu".

**FAGOR**

Fagor Ederlan, Elk. Koop.

Torrebaso pasealekua 7  
20540 Eskoriatza  
Gipuzkoa

Tel.: +34 943 71 90 00  
Fax: +34 943 71 90 01

**MONDRAON**  
COMPOUNDED COMPOSITES

**AZPIEGITURAK**

Apotzagako zabortegiak aldaketa izango du

Lurjabeekin batzarrak egingo dituzte eguzten eta egunean

**I.B. > ESKORIATZA**  
Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi du autobidean, Aretxabaleta eta Eskoriatza bitarteko Basagoiti II izeneko zatian proiektuak aldaketa bat izango duela. Hala eman dute aditzera Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Aldaketa hori Apotzagan egin gura duten zabortegiari dagokio. Aldaketaren ondorioz, zabortegia hasieran aurreikusi baino beherago jarriko dute. Hortaz, zabortegia egiteko zelai gutxiago har tutuko dituzte eta horren ordez erreka alboko lurruk erabiliko dituzte.

**JABEEN BATZARRAK**

Udaleko autobidearen gaineko batzordeak eta auzotarrek eurek ere hainbat alegazio eta eskaera egin zituzten horren gainean.

Horrez gain, apotzagar batzkek alegazio bat egin zuen, eta Galartzako batek (Aretxabaleta) beste bi. Aldundiak erantzun die, baina ez du euren alde egin.

Bestalde, Aldundiak jakitera eman du hondakindegia egiteko desjabetzeak egingo dituela. Horiek zehazteko batzarretara deitu ditu Aretxabaletako eta Eskoriatzako lurjabeak. Batzar horiek eguztenean eta egunean izango dira.

**> INGURUMENA**  
**Hamar bat amuarrain hilda aurkitu dituzte**

Astelehenean hamar bat amuarrain hilda aurkitu zituzten Eskoriatzako Santa Ana auzoan, harraskaren ondoan. Herritar batek jakinarazi zuen udaletxeen eta horren gaineko salaketa jarri zuen.

Udalak Jaurlaritzari deitu, eta aditu bat ibili zen amuarrainak eta ura azterten. Adituaren esanetan, ura garbi zegoen, eta amuarrainak hiltzeko arrazoia oxigeno falta izan zen.

Salaketa jarri duen herritarrek jakinarazi zigun ez dela gertatzen den lehenengo aldia, eta arazoak konponbi de azkarra behar duela.



UDA BALIATU Uztailatik iraila hasiera bitartean egingo dituzte lanok.

IKER BARANDIARAN

AUZOAK > DORLETAKO LANAK

## Dorletako jolasgunea irailerako berrituko dute

Jolasguneko kulunkak konpondu, margotu eta zoru guztia berrituko dute. Uztaileko azkeneko asteak eta abuztua baliatuko dituzte horretarako.

**IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA**  
Dorleta auzoko lanek aurrera jarraitzen dute. Dagoeneko hainbat lan egin dituzte, baina epe luzerako bestelako lan ugari dituzte egiteko.

Egunotan auzo horretako jolasgunea berritzen hasi dira. Udalaren erabakia izan zen lan horrekin uztaila erdialdera arte ez hastea. Hala, ume eta gaztetxoelek ia udara arte jolasgunea era-biltzeko aukera izan dute. Orain, berriz, ume eta gaztetxo askok kanpora joko dute, eta sasoi hori lanak egiteko baliatuko dute.

Berez lanek zortzi bat asteko iraupena izango dute: uztailetik

iraileko bigarren astera, hain zuzen ere.

Udalak argitu digu ez dituztelako jolasguneko kulunkak aldatuko: "Oso egoera onean daude eta konponketa txiki batzuk egin eta horiek margotuta nahikoada", azaldu zuten. Horrez gain, jolasgune guztian gomazko zoladura jarriko dute. Ez hormigoia-ren gainean, orain arte moduan, lur gainean baizik. Eta hoditeria eta baldosak ere aldatuko dituzte, hain zuzen ere.

**LAN ASKO EGITEAR**  
Udaletik argitu digutenez, auzoan oraindik lan asko dago egite-

ar. Asmoa da auzo guztian zoladura berria jartzea, eta zerbitzu sarea (ura, argindarra eta ur zikina) eta telekomunikazioena berri-zea, besteak beste. Horrekin batera, espaloi zabalagoak egin gura dituzte eta aparkaleku kopurua handitu, gaur egungo 56tik 110era.

Udalak jakinarazi digunet, sahiesbidearen ondoko erreppide eta inguruneko lanak ia bukatuta daude. Zonalde horretan lur azpiko zerbitzu guztiak jartzen dihardute.


Bestalde, ibaiari paralelo doan bidea eta ingurua, biak hala biak, eta baita Maisutza eskola zaharraren pareko inguruneari dagozkion lanak uztailean hasteko asmoa daukate.

Lan horiek guztiak 2.750.000 euroko aurrekontua dute, eta kostuaren herena Eusko Jaurlaritzako Izartuk ordainduko du.

**AZKOAGA**

ESTANKOA

943 71 48 77  
Zure  
Zerbitzura



Tel.: 943 71 43 27  
ESKORIATZA

ABUZTUA > UDAL ZERBITZUAK

## Abuztuan zabalik egongo dira hainbat udal zerbitzu

Kiroldegia, Ibarraundi eta Udala zabalik egongo dira abuztuko egun gehienetan

I.B. > ESKORIATZA

Gero eta gehiago dira abuztuan abian izaten diren zerbitzuak. Kultura etxea abuztu osoan itxita egongo da; biblioteca, berriz, hilaren 28tik abuztuaren 28ra itxiko dute, eta data horretatik irailaren 4ra bitartean 16:30etik 20:00etara zabalduko dute.

### KIROLDEGIA, ZABALIK

Kiroldegia betiko ordutegia izango du, baina abuztuaren 14tik 20ra bitartean itxita egongo da goiz eta arratsaldez. Ludo-tekak eta gaztelekuak abuztu osoko atsedenaldia hartuko dute, baita kultura etxeak ere.

Udaletxea egunero egongo da zabalik 10:00etik 13:30era bitartean, eta Gizarte zerbitzuak abuztuaren 11tik 28ra bitartean itxita. Ibarraundi museoa abuztu osoan zabalik egongo da. Aste barruan goizez, zapatuetan arratsaldez, eta domekatan goizez eta arratsaldez.

JAIAK > ELIZATEETAN

## Marinen hasiko dira abuztuko elizateetako jaiak

Asteburuan, Marinen; eta Andra Mari egunean, Mazmela eta Gellaon

I.B. > ESKORIATZA

Gaur, egubakoitzta, hasiko dira Maringo jaiak. Madalenak ospatu dituzte, eta ospakizunak gaur eta domekan egingo dituzte. Egubakoitzean afaria egingo dute orain dela gutxi estrenatu duten auzo lokalean. Horrez gain, domekan, meza

entzungo dute eta baliteke horren ostean beste ekitaldiren bat egotea.

Abuztuan beste jai batzuk ere izango dira Eskoriatzako auzoetan. Berez Mazmela Barolome deunaren jaia ospatzeko ohitura dute, baina ermitaren egoera kaskarra kontuan hartuta ez dute ospakizunek egingo.

Andra Mari egunean, berriz, Gellaon eta Mazmela jaia izango dute. Meza, luntxa eta bestelakoak antolatuko dituzte egun horretan.

> KULTURA

## Postal lehiaketa eta margolanen erakusketa antolatu dituzte Inkernu tabernako lagunek

Inkernu tabernako lagunek oporretan ere ez dute atsedenaldirik hartu gura izaten. Batetik, hilabete osoan Agirre Zenitagoia margolariaren artelanak daude ikusgai Inkernu tabernan. Agirrek zortzi bat lan jarri ditu erakusgai tabernan, eta kubismoa lantzen du.

Bestalde, aurten Inkernuk hirugarren postal lehiaketa abiarazi du. Urtero 30 bat postal jasotzen dituzte, eta eskoriatzar zein bestelako debagoendarrei gonbita egiten diente postalak honako helbidera bidaltzeko: Inkernu/Hidalga 5, behea/20540 Eskoriatza. Aurten esku-hartziale guztiaren artean zozketa egingo dute, eta irabazleak afari bat irabaziko du.

**ILE APAINDEGIA**

**APAINDU**

San Juan kalea 12c behea  
ESKORIATZA

**Tel.: 943 08 26 40**

Bakarne Gastañares > Zaintza zerbitzuko arduraduna

## "Bi urtetik gorako umeak hartuko ditu zaintza zerbitzuak eskola aurretik eta gero"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA  
Pausoka guraso elkarteak urte batzuk eman ditu zaintza zerbitzua abian jartzeko proiektua lantzen. Azkenik, ikasturte berria has-tearekin batera ekingo dio bere jardunari eskolan bertan.

### Zer da zaintza zerbitzua?

Jende askok ez ditu bereizten haurreskola eta zaintza zerbitzua. Zaintza zerbitzua bi urtetik gorako neska-mutikoendako da. Goizean eskolara sartu aurretik eta arratsaldean eskolatik irten-dakoan zaintzaile batekin egongo dira umeak.

### Zein ordutegi izango du?

Goiztan 07:30etik 09:00etara eta arratsaldez 16:30etik 18:30era. Eguaztenetan arratsaldez esko-larik ez dutenez, arratsalde osoan eskainiko dugu zerbitzua. Hala ere, mugak ipiniko ditugu; hau da, kasu oso berezietan salbu, ezingo da zaintza zerbitzuak irauten duen denbora tarte osoan umea bertan izan. Aste Santuan, uztalean eta eskolan jaie-gunak diren beste egun batzuetan, berriz, zaintza zerbitzua zabalik egongo da.

### Zer dela-eta ipiniko duzue abian?

Guraso askok kanpoan egiten du lan eta lehen umeak amona-rekin lagatzeko joera bazegoen ere, orain herria handitu ahala kanpotik jende asko eterri da bizitzera Antzuolara eta ez dau-



PAUSOKA Guraso elkartean zaintza zerbitzuaren arduraduna da Bakarne.

### Non egongo da kokatuta?

Herri eskolan bertan, bi urte-koen gelaren parean, euren mugimendua errazteko.

### Laguntza beharrezkoa zaizue.

Udalak gela egokitzeko dirua eman du; eta gainontzkoak Pausokak ipiniko du. Iza ere, hainbat erakunde eta enpresatara jo dugu laguntza eske, baina batzuek ezezkoa eman digute eta beste batzuek ez dute erantzun. Enpresek gurasoei ipinitako lan dinamikari erantzuten dio zerbi-tzuak; beraz, eurekin bat datorre-la uste dugu, eta laguntza eman beharko luketela.

### Zenbat ume izango dira?

Zortzi umek eman dute izena irailaren 11n hasteko; baina ez dago mugarik, ume gehiago sar-tu ahala begirale gehiago ipini-ko ditugu. Urte guztian barrena eman ahal izango da izena. Gai-nera, aukera emango dugu, bez-heran jakinarazita, zaintza zerbitzua noizean behin erabiltzeko.

### Zer eskainiko duzue?

Goizean gosaldo egingo dute, eta gero nahi duenak lotarako aukera izango du eta bestela jolasak, ipuinak, musika... izango dituzte. Udan denbora luzeagoa emango dute kanpoan. Bazka-lorduan batzuk etxera joango dira eta jangelara besteak. Arra-tsaldeko eskolen ondoren berri-z ere joango dira zaintza gelara eta han merienda emango diete.

### JAIAK

## Ekimen berrieik arrakasta handien

Jaien balorazio bilera uztailaren 26an egingo dute, 19:00etan

### I.A. > ANTZUOLA

Jaietako balorazioa hilaren 26an egingo badute ere, Juan Luis Aranburu Udaleko Kul-tura teknikariak hainbat azal-pen eman dizkigu.

Jaietako ekimen berrieik (hontzaren jaitsiera, Larrain dantza, herri sagardotegia eta dantzari, gaita jole eta erraldoien emanaldia) arrakasta lortu dutela jakinarazi digu Juan Luisek: "Datozen urte-eta errepikatzeko eskaerak izan dira. Lehenengo biek jarraitu egingo dute; beste-ek aldaketa behar dituzte".

Jaien izaera parte-hartzai-lea azpimarratu digu Kultura teknikariak. Ohiko ekime-nek (alardea, umeendako par-kea) urteroko mailari eutsiz jendea erakarri dute. "Bergarako bandaren emanaldia berezia izan da aurten, zuzen-dariari emandako bandera eta oroigarriengatik". Jaiet balio izan dute Lizarrako Uda-larekin harremanak egiteko.

Bestalde, azpimarratu du ez dela inolako arazorik, isti-lurrik eta apurketa handirik izan aurten.

### "Enpresa eta erakundeen laguntza ezinbestekoa da zerbitzu honek aurrera egin dezan"

kate gertuan senitartekorik ume-ak lagatzeko. Beraz, kasu askotan beste herri batzuetara era-man dituzte umeak; eta haur horiek herrian geratzeko beharrezkoa da horrelako zerbitzua.

**ABAD**  
PINTURAK  
ANTZUOLA  
PAPER PINTATUA  
INDUSTRI MANTENIMENDUA

Jose  
Gomez  
Abad

Errekalde 6, 4-B.  
Antzuola  
943 76 60 19  
943 76 60 43  
Faxa:  
943 76 60 19

## LEKV-BERRI MERENDEROA

Janariak  
eta  
edariak

Tf. 943 76 60 94  
ANTZUOLA

## MUJIKAHARATEGIA



Berezitasunak:  
Etxean hazitako  
zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren, 1.  
ANTZUOLA  
Tf. 943 76 64 34

## LARREA

### TABERNA

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

**Harizki**  
SUKALDEKO ALTZARIAK

## MUEBLES IGEA

Sukalderako eta  
bainurako altzariak  
Altzari rustikoetan  
espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behe. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

**zabalo**  
IGELTSEROTZA  
Jose Luis Zabalo  
Kalegoi 9, 1. solairua  
ANTZUOLA.  
Tel. eta faxa:  
943 76 60 89

## ZAHAR BERRITZEAK:

Fatxadak  
Bainugela eta sukaldea  
Lokal komertzialak  
Teiliatuak



ENTRENAMENDUA Eibarko Unbeko kirol instalazioetan egiten dituzte entrenamendu saioak Elgetako futbolarien, eguztenetan.

I.A.

KIROLA > FUTBOL TALDE BERRIA

## Futbol taldea herritik kanpo joan gabe

Oraingoz 21 jokalari daude: 14 elgetarrak, bi bertan lanean dihardutenak eta gainontzeakoak berigararrak; gehiago hartuko lituzkete taldean

**IRATI AGIRREAZALDEGI > ELGETA**  
Elgetak badu futbol taldea. "Orain dela pare bat urtetik hona taldea sortzeko aukeraz jardun dugu. Orain, beriz, kanpora joan beharrean herrian bertan taldea sortzeko pausoia eman dugu. Kanpoako taldeetan ziharduten batzuekin eta futbola gustuko dutenekin osatu dugu. Entrenatzalea badu eta taldea osatzeko jokalari bat

edo beste falta da", diote taldekoek. Oraingoz 21 lagun daude: 14 elgetarrak, bi Elgetan lan egiten dutenak eta gainontzeakoak Berigarakoak: "Beste talde batzuetan jokatutakoak, futbola utzita zutenak eta inoiz futbolean aritu gabeak".

Taldekideen esanetan, "Elgetako ezin da beste talde batzuekin alderatu. Jokalariak gara tal-

dearen sortzaile eta guk dugu guztiaren ardura. Talde gehienetan jokalaria jokatzeaz arduratzentz da; hemen konpromisoa askoz handiagoa da; bestela, proiektu honek ez du iraungo".

### HERRITAREN LAGUNTZA BEHAR

Lehen denboraldirako helburu nagusia taldea finkatzea da. Baina espero dute azken postuetan ez amaitzea. "Debagoieneko talde ugari egongo gara bigarren erregionalean eta Eibarren hiru talde daude. Talde gehienek behar mailetan baditzte jokalariak eta talde gazteak izango dira.

Horretaz gain, urtetako esperientzia dute. Irabazteko gogor entrenatu beharko dugu", diote.

Partiduak Eibarren jokatuko dituzte, eta oraingoz Unben entrenatzentz diren arren, ez da segurua non jarraituko duten. "Ez da erraza izango Unbera jendea eramatea, baina badakigu batzuk behintzat animatuko direla".

Herritarren bestelako laguntza ere ezinbestekoa da: "Bazkidetza kanpaina, kiniela, kamisetak... egin ditugu. Enpresetara, tabernetara eta dendetara ere joan gara diru eske. Udaletik, beriz, erantzunaren zain gaude".

**SANEAMENDUA > KANPAINA ARRATOIEN KONTRA**

## Arratoien aurkako pozoia ipiniko dute uztailean, abuztuan eta irailean herrian

Irailetki uztailera aurreratu egin dute kanpaina obrak direla- eta aurten arratoi gehiago dabiltzala sumatu dutelako

ko lekuetan; abuztuaren 16an eta irailean 11n, hain zuzen ere.

Herritarrek beharra izanez gero, Udalak kasu zehatzetan ere pozoia ipintzeko zerbitzua dauka. Behar izanez gero udaletxera jo besterik ez dago.

### AURTEN ARRATOI GEHIAGO

Udaletik jakinarazi digutenez, normalean irailean hasten dute kanpaina, baina aurten aurreratu egin behar izan dute. "Obrak daudenean arratoi mugimendu handiagoa sumatu ohi dugu, eta azkenaldian herrian obra asko egiten ari direnez, ugaritu egin dira; beraz, lehenago hasi gara pozoiarekin. Urte batzuetan arratoi gehiago ibiltzen da beste batzuetan baino. Zenbat hiltzen diren kalkula ezina den arren pozoiarena neurri eraginkorra da", esan digute udaletxeen.

### > JAIAK

### Trikitilaria, dantzariak, bertsolariak eta herrik kirolak Goimendi auzoko Santiagoean

Goimendi auzoan Santiago jaiak ospatuko dituzte hilaren 24an eta 25ean. Astelehen gauean hasiko dira jaiak berakatz zopa janez eta gero erromeria egongo da Laja eta Izerrekin. Martitzenean, beriz, 11:00etan meza izango da eta ondoren, Kezka taldeko dantzariak, Agirre eta Irazu bertsolariak eta Agurtzane eta Jon Elustondo trikitilaria. Arratsaldean, 18:00etan, herri kirol erakustaldia egongo da: Fausto Mugertza eta Txapartegi aizkoran eta Urtzi Telleria harri jasotzen. 18:30etan dago iragarrita bola joko txapelketa. 19:00etan, beriz, jardungo dute Joxe Agirre eta Jesus mari Irazu bertsolariak. Ondoren, jaiak amaitzeko erromeria izango da gauerdira arte Agurtzane eta Jon Elustondo trikitilariekin.

### > ELIZA

### Sakristiako teilitua konpontzeko 32.345 euro behar dira eta oraindik 10.645 euroko zorra dago

Parrokiatik hainbat mezu helarazi dizkigute elizkizun eta obren gainean. Jakinarazi digute Santiago ermitan meza izango dela, 11:00etan, uztailaren 25ean. Aurtengo Arantzazurako erromesaldia, bestalde, irailaren 1ean, barikua, egingo dute. Bestalde, hilaren 22an, zapatua, bedeinkatuko dute Malaako ermita, 13:00etan. Parkearen inaugurazio ofiziala irailean egingo dute. Horretaz gain, sakristiako teilitua konpontzeko lanen berri ere eman dute. Koskuta 32.345 eurokoa izan da eta jasotakoa 21.700 euro. Zorra 10.645 eurokoa izanik dei berezia egin dite eliztarrei ahal duten neurriaren diru eskaintzak egiteko. Horretarako, kontu zenbakia eman dute edo parrokoarengana joanda ere eman daiteke dirua.

bere ustez



Ana Gillegi

Eskolako amantala baino gehiago

Iazko gurasoen batzarrean eskolan amantala bai ala amantala ez eramateaz aritu gin. Luze gainera. Proposamena umeena zen; umeak ezezkoaren aldeko ziren. Azkenean, kurtso guztiak amantala eraman beharko zutela erabaki zen. Kurtso amaieran, ordea, jakinarazi digute, sei urtetik gorako umeek amantala ez dutela eraman beharko, eskulanetan salbu.

Etxera heltzean, kaleko arropak eranzten ditut eta sukaldean banago amantala ipini. Aiton edo osaba lane-

**"Bat-batean  
orijinalak, bakarrak,  
imita ezinak izan  
behar dugu"**

ra zohoazenean buzoa janzen zuten; izebek erizainen amantala, senarrak bulegorako arropak eta tailerrako seguratsun arropak. Denok erabilten ditugu lanean arropa aproposak, babesten, desberdinzen eta janzen gaitztenak. Desberdin berdintasuna lorteko eta jantzi gure lanaren adierazgarri.

Ez diet zentzurik hartzen amantala kentzearen argudioei, bai ipintzearen arrazoiei. Herri aberatsotan, uniformetasunari ihes egiten diogu, batbetean orijinalak, bakarrak, imita ezinak izan behar dugu, kanpotik eta barrutik. Amantala eramateak ez ditu umeak unifikatuko, gurasoek eta hezitzaileok gauzak argi ditugun bitartean, gauzak desberdinzen erakutsiko dizkiegu, aurreiritzirik gabe.

**((112))  
SOS DEIAK**

Berritzeko behar handia zeukan kiroldiak; besteak beste, paretetan arrakalak zituen eta, horren ondorioz, ura sartzen zen

**UBANE MADERA > ARAMAIO**  
Dagoeneko hiru aste daramatzte lanean Bergara Margoak enpresakoak, kiroldiak. Eta kontatu digutenez, lan handia egin behar izan dute orain arte inguru hartan. Iza ere, orokorrean eraikina bera margotzen ibiltzeaz gainera, kanpotik igartzen ez diren bestelako lanak egiten ere ibili dira.

Eta hain zuzen ere, lan horiei esker, aurrerantzean ez da ura sartuko pilotalekura.

**HIRU PARETA EGOERA ESKASEAN**  
Bergara Margoak enpresakoek kontatu diguten moduan, pilotaleku hiru pareta egoera eskasean zeuden. "Hiruk dezeneko arrakalak zituzten; gainerako lauek, azaleko arrakalak besterik ez zuten". Hala, esplikatu digute arrakal horietatik sartu dela orain arte ura pilotaleku barrura, baina ahalegin berezia egin dutela paretak behar bezala indartzeko eta espero dutela arazoak konponduko dute-

**OBRAK > KIROLDIGIA**

## Abuztuaren 15era arte itxita izango da pilotalekua, berritze obrak bukatzeko



MARGOTZEN Egunotan, kanpoko pilotalekua margotzen dabilta, baina paretetako arrakalak kentzeko lanak ere egin dituzte. U.M.

la: "Erabili ditugu material oso bereziak, paretak indartzeko material berezitua erabiltzen duen Sika etxeoak, hain justu. Adibidez, arrakala barruetan

soka modukoa eta bestelako materiala sartu dugu, haien ixteko eta paretak indartzeko". Modu horretan, ez da ura atzera sartuko kiroldigira.

### MARRAK ETA BESTE

Gaineratu digute kiroldigiko burdinazko habeak ere goitik behera berriu dituztela, zeharo herdoilduta zeudelako eta etxe

bereko materiala erabili dutela, gainera.

Margotze lanei dagokienez, berriz, barruko pilotalekuaren ere ibili dira lanean, "beharra dagoen lekuaren margotu dugu, pintura plastikoarekin; adibidez,urreko marrak-eta berriro marraztu ditugu eta frontoiaren pareta ere margotu dugu." Kanpoko pilotalekuaren ere gauza bera egingo dutela jakinarazi digute, "beharr handia du, gainera". Gainera, orain arteko berde kolorea, urdin kolorearekin ordezkatzen dabilta. Horrez gainera, kiroldiaren aurre aldeko zutabeak gorri margotuko dituztela kontatu digute; eta kanpora begira ikussten diren egurrezko zutabeak ere berriu dituztela.

Lehen esandako moduan, dagoeneko hiru aste daramatzte lanean eta jakinarazi digute handiena egin dutela eta, aurreikusitakoaren arabera, abuztuaren erdialdean bukatuko dituztela.

### ESKOLA ERE BAI

Kiroldigia berritzearaz gainera, enpresa bera dabil eskolako jangela eta gimnasioa margotzen.



U.M.

## Egoera eskasean dagoen baranda konponduko dute

Pedro Inazio Barrutian dagoen baranda baten gaineko kexua helarazi digu irakurle batek, hura apurtuta eta arriskutsu dagoela esanez. Bada udaletxera jo dugu informazio bila, eta alkateak jakinarazi digu ahalik eta lasterren konponduko dutela. Are gehiago, dagoeneko babestu dute zinta batekin. Edozelan ere, alkateak gaineratu gura izan du herritarrek halakoak jakinarazteko lehenengo udaletxera jo beharko luketela, horretarako badagoela bidea-eta.

## oharrak

### UDAKO ORDUTEGIAK

#### > Udaletxea eta beste

Udaletxea abuztuan zabalik izango da, 09:00etik 14:00ak arte. Gogorarazi digute abuztuaren 14an itxita izango dela Zubia-rengatik, 15a jaieguna delako.

Anbulatorioari dagokionez, hora betiko moduan zabalduko dute: 08:00etik 13:30era.

Bestalde, udaletxetik esan digute ur eskasia dela-eta, egoera hobetu arte debekatuta dagoela edateko ura erabiltzea soroak eta igerilekuak ureztatzeko.

### ODOL ATERATZEAK

#### > Abuztuko hitzordua

Abuztuaren 2an etorriko dira odola ateratzerako. Hitzordua ohikoa da: 16.30etik 20:30era.

### KONTRIBUZIOAK

#### > 2006ko ondasun higiezink

Hiri eta landa lur ondasun higiezinen gainezko zerga ordaintzeko epea uztailaren 24an zabalduko dute. Ordaintzeko borondatzeko epea da urriaren 24ra arte. Ordaindu ezean, %5eko gainkarguarekin kobraztuko dute; bankuan helbideratuta dauzen ordainagiriak, beriz, irailaren 10ean kobraztuko dituzte.

### ZUZENKETA

#### > Erretiratuen argazkia

Joan den asteko argazkia dela-eta esan digute hain zuzen. Gaizki ulertz bat izan da gure eta argazkia bidali duenaren artean. Barkatu eragozpenak.

## 1 bat Xixe 2 bi

Aramaixoko berben berbakinielie  
5. ZENBAKIXE

Asmatzaillien  
artien  
zozketatuko  
ditugu:



Aramaixoko eztixe,  
sagarda eta  
gazta! Zorte on!

<b>Arrankaidxe</b>	1 Amoarraiñe X Arrankadie 2 Hankako miñe
<b>Arrakadie</b>	1 Arrankadie X Belarritteku
<b>Antojue</b>	1 Enbarazue X Antiojue 2 Higuiñe
<b>Mosue</b>	1 Laztana X Mutille 2 Masie

<b>Aforrau!</b>	1 Forrau liburue! X Ez dau porrurik! 2 Aguanta!
<b>Bai, erregular</b>	1 Bai, antza X Bai, zuzen-zuzen 2 Bai, baiñe txarto
<b>Maleta sikue</b>	1 Mendireko jana X Motxillie 2 Eskolako lanak
<b>Pospoliñe</b>	1 Posporue X Ogittegaztaie 2 Galeperra

Aukeratu erantzua, moztu txartela eta ekarri Aramaiko Liburutegira, IRAILAREN 15ERAKO.

Izen-deiturak: ..... Telefonue: .....

## 4. berbakinielako irabazlie: Juan Ugarte

Zorionak!

### Erantzun zuzenak:

- Hau don mahatsal: 1 Hau da ugarratasune!
- Bringaute: 1 Arrakalatute
- Araixe: 2 Ardi parra
- Afrontue: 1 Haixie eta aurixe aurretekik
- Asko lekuten: X Leku askotan
- Afixe: X Kabixe
- Andobie: 1 Emakume ikusgarrixe
- Azpixek egin: 2 Peloteroberiketan ibili

JAIAK > IRAILAREN 7TIK 10ERA

## Adardunak izango dira jaietan, San Migel plazan

Hamar edo hamabi urte dira sokamuturrik ez dutela egiten Gatzagan; aurten, Lasturretik ekarriko dituzte irailaren 9rako, zapatua

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA  
Adardunak eta *poney*-ak egongo dira irailaren 9an, Andramari hurrengo egunean, San Migel

plazan. Hamar edo hamabi urte dira sokamuturrik ez dagoela Gatzagako jaietan, baina aurten ekartzea erabaki dute Kul-

tura Saileko arduradunek. "Lasturretik ekarriko ditugu", dio Jon Sasiain zinegotziak. Garai baten jende asko hurreratzen zen inguruko auzo eta herrietatik Gatzagara bigantxak ikustera, eta aurten zapatua izanik, bertan izango dira zezenzaleak. Poneyek, ostera, ume eta gaztxoen ipurdiak jasan beharko dituzte.

### KONTZERTURAKO LAU TALDE

Herriko gazteen laguntza izan dute Kultura Saileko arduradunek jaietako egitaraua egiteko orduan. Hala, egubakoitz gauek zapatua goizera bitartean jarri gura zituzten adardunak. "Kontzertu ostean geratzen den jendearentzat izango lirateke; giro ona sortuko lukete zalantzak".

> MUSEOA  
**Hiru bisita egingo dituzte Gatz Museoan abuztuan**

Gatz Museoak ez du oporrik hartuko abuztuan. Hala, kanpotik datozen bisitariei erantzuna eman guran, egunean gidatutako hiru bisita egingo dituzte: 11:00etan, 12:00etan eta 13:00etan. Gatz Museoko arduradun Aitziber Gorosabelek Edurne Marteloren laguntza izango du hurrengo hilabetean.

Bestalde, Labidea dendak ere ez du oporrik hartuko, eta herritarren zerbitzura izango dira Amaia eta Aitziber. Hori bai, ordutegia aldatu dute uda parterako. Astelehenetik egubakoitzera zabalik egongo da: 09:00etatik 13:00etara eta 17:30etik, 21:00etara. Zapatu, domeka eta jaiegunetan: 10:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 22:00etara.

> GARRAIOA  
**Autobus bakarra pasatuko da Gasteiz aldera abuztuan**

Pesa enpresako autobusaren ordutegiak aldaketatxo bat izango du abuztuan. Egunean bi autobus pasatzen dira orain Gasteizerantz, baina abuztuaren 1etik 31ra bitartean bakarra helduko da: 15:50ean. Gasteiztik Gatzagara, ostera, lehen bezala bi etorriko dira: 12:55ean eta 20:55ean. Gau-txoriak jarraitu egingo du abuztuan. Eskoriatzatik pasatuko da Gatzagarantz: 01:55ean eta 04:30ean.

Taxi-busaren ordutegiak, bestalde, ez du aldaketarik izango, Udalak jakinarazi digunez. Eskoriatzan aterako dira Gatzagara: 11:30ean eta 19:00etan; eta Gatzagatik aterako dira Eskoriatzara: 11:40an eta 19:10ean.



## Arratsaldeko jaialdiarekin agur udalekuei

Gustura ibili dira udalekuetan Gatzagako eta kanpotik etorritako neska-mutikoak; 23 inguru guztira. Itsaso Pagoaga, Nerea Elortza eta Maite Otxoa aretxabaleta-rrak izan dituzte lagun bi astean, eta hara eta hona ibili dira geratu ere egin barik. Landara arratsalde pasa, Gamarrako igerilekura, Gaztainuzketara gaua pasatzen eta Gopegira zaldian ibiltzen joan dira

astean bertan. Baino kankoan bakarrik ez, herrian bertan ere egon dira, eta mural galanta margotu zuten martizenean.

Gaur, egubakoitz, esango diente agur udalekuei eta giro onean bukatu eta oporrak gustura hasteko jaialditxo egingo dute; merienda-pasa goxoa izango dute elkartean jaialdiaren ostean.

## Sariak astero!

Astelehenean, uztailaren 24a sari hauetako izen-abizenak izango dituzte.  
Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleak!

Uztailaren 17a:  
095 zozketa

ASTELEHENeko GOIENKARIA  
Harpidedunen  
**txokoa**

### 094 zozketako sari-dunak

Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMa bisitatzen. (Sari-dun bakoitzari bi emango zaizkio).

- Arantzazu Larrañaga Elortza (Bergara)
- Jose Luis Landa Urtzelai (Eskoriatza)

Sei lagunentzako EUSKALTEL EUSKADI taldeko 12 kamiseta (sari-dun bakoitzari bi emango zaizkio).

- Miren Abarisketa Arriaran (Arrasate)
- Aitor Aginagalde Garitano (Bergara)
- Bakarne Larrea Telleria (Antzuola)
- Tomas Lasagabaster Olaziregi (Eskoriatza)
- Ernesto Uriarte Zubia (Oñati)
- Nerea Zubizarreta Pedregal (Aretxabaleta)

### 096 zozketako sariak



**DONOSTIAKO AQUARIUMA**  
bisitatzen bi  
gonbidapen.  
(sari-dun bakoitzari bi  
emango zaizkio)

### Baldintzak

- Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:  
**902 36 38 51**  
09:00etatik 18:30era.

Harpidetza kuota:  
**24 euro**  
2006 bukaera arte

**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa

MOTORRA &gt; ARAMAIOKO RALLYSPRINTA

# Errebantxa gogoz etorriko da Artetxe

Joan den urtean denbora berean geratu zuten Artetxek eta Zapiainek erlojua, eta lehenengo txanda irabazi zuelako nagusitu zen Zapiain

XABIER URTZELAI &gt; ARAMAIO

Bihar, zapatua, antolatzale lanetan dabiltzan Azpiko Racingeoek 14:30ean itxiko dute erre-pidea, eta 15:30ean hasiko dute lasterketa. Ibilbideari dagokionez ez dago aldakarik, 6,6 kilometroko ibilbidean hiru txanda egingo dituzte. Eta, antolatzaileek dagoeneko baieztago dute joan den urtean horren lehia estua izan zuten Zapiain eta Artetxe Aramaion izango direla.

Hala, ondo dakigu Artetxe errebantxarako gogoarekin etorriko dela. Azken bi urteotan Zapiain (Seat Ibiza Kit Car) izan da Aramaion onena, baina joan den urtean gutxigatik ez zuen Artetxeren Peugeot 307 WRC autoak mendean hartu. Biek hala biek denbora bera egin zuten: 12:40:20, ez milaren bat gehiago, ez milaren bat gutxiago. Eta, lehenengo txandan nagusitzeagatik jantziz Zapiainek txapela, horrek erabaki zuen lasterketa. Bihar, baina,



LEHENENGO TXANDAN Orduan erabaki zen joan den urteko proba. Erretratuko Artetxe makalago ibili zen. JOSETXO ARANTZABAL

lasterketa ez da bi pilotu horien kontua bakarrik izango. Irteeran egongo dira, besteak beste, Luciano Arrabal (Seat Ibiza Kit Car), Ruben Gartzia (Ford Escort Cosworth WRC), Jose Labaka (BMW

M3), Lebeiti (R5 Turbo II), edo Ricardo Tricio (Mitsubishi EVO V) moduko pilotuak. Zaleek 43 lehiakiderekin gozatu ahal izango dute, lehenengo kilometroak Aramaiotik gora, eta azken kilo-

metroak Gantzagatik behera. Eta, 43 lehiakideren artean ibarreko bi automobilek jasoko dituzte animu handienak. Zaindu 33 eta 40 zenbakidun autoak. Orobengoa-tarrak eta Erras eta Oion dira.



## Omega Elevator, s.a.

- Igogailuen instalazioa etxebizitza zaharretan
- Gremioen koordinazioa
- Arkitektura-oztopoen kentze lanak

JUNDIZKO INDUSTRIALDEA 29 GASTEIZ  
Tel.: 945 29 03 08 / Faxa: 945 29 04 96  
omegaellevator@omegaellevator.com

Pamiela argitaletxeak, Kulturaren aldeko Euskal Fundazioaren babesarekin


### JUAN ZELAIA VI. Saiakera saria

antolatzen du, euskara idatzitako edozein gairi buruzko saiakerak edota iritziz lanak zabaldu eta sustatzeko asmoz.

Saria: 6.000 €

Lanak bidaltzeko:  
Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria), Agustindarren industrialdea-Soltxate. G kalea-31013 IRUÑEA.

Abuztuan 31a arte  
Tel.: 948 326535  
soltxate@pamiela.org  
Arauak: www.pamiela.org



Igor Orobengoa >  
Pilotua

### "Autoan ez dugu arazorik, garrantzitsua da hori"

X.U. &gt; ARAMAIO

Igor Orobengoa (Ibiza GT TDI) hirugarren aldiz hartuko du esku Aramaioko rallysprintean. Joan den urtean moduan, anaia izango du kopilotu lanetan. Aurten gustura dabiltza, autoari neurria hartu diote-eta.

Ze asmo biharko?

Betiko moduan, ondo pasatzeko asmoarekin joango gara. Eta, ahal bada, joan den urtean egindako lana hobetzten ahaleginduko gara.

Skratch-ean hemeretzigarrenak izan zineten.

Bai, eta aurten hori hobetzeko moduan gaudela uste dut. Joan den urtean autoak 150 zaldi inguru zituen, eta Rac Navarra baino lehen potentzia neurtu genion berriro eta 162 zaldi eman zituen. Aramaiotik igoeran igarri egingo da hori.

Zer moduz zabiltzate aurten?

Gustura, joan den urtean baino arazo askoz gutxiagorekin. Neurria hartu diogu autoari, eta adibidez, Nafarroa bosgarren sailkatu ginen.

Non dago Aramaioko rallysprinteko gakoa?

Igoeran beharrezko da potentzia izatea, eta jaitsiran kontuz ibili behar da, asfaltoa ez dagoelako ondo. Alde horretatik, balaztekin (frenoak) justu samar ibiliko naiz, aurrez dakigu hori.

Haritz Errasti >  
Pilotua

### "Joan den urtekoa ikusita, korritzea da gura duguna"

X.U. &gt; ARAMAIO

Azken momentuan motorreko arazo batengatik ezin izan zuten Erras eta Oion aramaioarrek (Citroen AX Sport) etxeko proban esku hartu. Arantza hura ateraturan dabil bikotea, korritzea da gura dutena.

Ze asmo biharko?

Iazkoa ikusita, lehenengo eta behin lasterketa hastea da gura duguna. Iaz azken momentuan motorreko arazoak izan genituen, eta ezin izan genuen parte hartu.

Eta orain dela bi urte ikuskizun ona eman zenuten lehenengo txandan.

Bai, baina lasterketak hasi eta amaitu egin behar dira. Bigarren txandan behar baino gehiago estutu genuen, eta orduan etorri zen kolpea. Aurten proba hasi eta amaitu egin gura dugu.

Aurrealdean ibiltzeko aukerarik bai?

Zail ikusten dut, jende oso ona etorriko delako, eta indarrak pare-parean egongo direlako. Etxean korrituta, ibilbidea ondo baino hobeto ezagutzen dut, baina joan den urtean ez nuen korritu, eta desabantaila hori dut.

Orain arte, zer moduz?

San Migelen ere arazoak izan genituen, baina gero ondo moldatu ginen. Azken baten, zortea aldeko izatea ere garrantzitsua izaten da.



Iker Orobengoa eta Igor Orobengoa.



Haritz Errasti eta Oion.

JOSETXO ARANTZABAL

## ITVRRIETA

Sagardotegia – Erretegia



Ostegunetik igandera zabalik  
(gainerako egunetan aurrez deituta)

- Sagardotegiko menu ezberdinak
- Karta
- Kazuelatxoak

Arraga auzoa  
605 70 64 51 / 945 44 53 85

IGERIKETA > ZEHARKALDIAK

## Euskadiko Txapelketa atzean utzita, igerilariak Nojan lehiatuko dira

Igerileku itxiak alde batera utzi eta datozen hilabeteotan itsaso zabaleko zeharkaldietan izango dira igerilariak

XABIER URTZELAI > BERGARA  
Igeriketan ere abuztua hilabete berezia izaten da. Bergarako eta Oñatiako igeriketa elkartekoek gogor egin dute orain artean, eta Euskadiko Txapelketan erakutsi zuten hori. Orain, beste helburu batzuekin, itsaso zabaleko zeharkaldietan jarduno dute. Oraingo asteburuan, adibidez, Nojan izango dira. Xabier Infantek eman dizkigu hitzordu gehiago: "Zapatan Ondarroan eta Nojan dau-

de lasterketak, eta gu Nojara goaz. Datorren asteburuan, berriz, Getaria-Zarautz zeharkaldian hartuko dugu esku, eta abuztuan Paseo Berriko eta Kontxako Badiako probetan izango gara".

### ESPAINIAKORA SAILKATUTA

Horrez gain, Euskadiko Txapelketaren gaineko balorazioa ere egin dugu Xabierrek: "Igerilariak nahiko txukun ibili dira, askok eta askok euren markak hobetu dituzte-eta. Horrekin batera, Ander Zarketa oñatiarra eta Nielka Ibarguren berargarra Espainiako Txapelketa sailkatu dira. Bagenekein Anderrek aukerak zituela, eta Nielka ere azken bi urteotan hor ibili da. Azkenean, lana ondo egin bada, zorte apur bat eta gogoa izatea baino ez da behar izaten emaitzak ateratzeko".



ALBERTO

### "Joan den urtearen ordaina hartu gura dut Albaceten", esan du Barkerok

Jose Javier Barkero aretxabaletarrak Albaceten jokatuko du datozen bi denboraldietan: "Bigarren Mailako talde gutxik esaten dute argi eta garbi euren helburua Lehenengo Mailara igotzea dela", esan zuen jokalarik aurkezpenean. Joan den urte txarra ahazteko asmoz doa Barkero Albacetera: "Hasierako partiduetan jokatu egin nuen, baina gero aulkira bidali ninduten eta ez nuen gehiago jokatu. Urte txarra izan zen denondako, eta urte horren ordaina hartu gura dut Albaceten".



BOST METRO Marka hori gaindituta, gorago egin gura du Perezek.

X.U.

ATLETISMOA > ESPAINIAGO TXAPELKETA, ZARAGOZAN

## 5,05 metro: gainditu daitekeen muga da hori

Jonathan Perez gertu dago marka pertsonala hobetu eta ezustea emateko

X.U. > ARRASATE

Arrasateko atleta Zaragozan izango da asteburuan, Espainiako Txapelketan. Eta azken astean entrenamendu saioetan egiten dabilen jauziak errepikatzen baditu, bere marka pertsonala hobetu dezake (5,05 metro). Haren entrena-

Anoetan. Zaragozan jauzia egiteko baldintza onak baditu, eta entrenamenduetako jauziak errepikatzen baditu, pertika horiekin ezustea eman dezake". Baldintza horien barruan sartzen da proban zehar Zaragozako atletismo pistan egin dezakeen haizea: "Oso garrantzitsua izango da haizea aldeko izatea".

**PUERTOLLANON, HIRUGARREN**  
Realeko atletak joan den astean Puertollanon egindako lana har dezake erreferentzia modura. Lurraldeko Espainiako Txapelketan Euskadiko ordezkarria hirugarren sailkatu zen, 5 metroko jauzia eginda. Oraingo asteburuan pauso bat gehiago egin gura du: lehenengo, 5,05 metroko jauzia egin, eta gero, marka hori gainditu.



## Ferreriasko Jaiak 06

**Uztailaren 26a, eguzktena**

- 12:00etan txistularien kalejira.
- 17:00etan umeendako jolasak.
- 17:30ean, txokolatada.
- 19:00etan, meza hildako auzotarren alde.
- 21:00etan, afaria egingo dute, kalean.
- 22:30ean, musika saioa izango da.

Horrez gainera, eta aurten lehen aldiz, gaztetxeak antolatu ohi duen kubatar festa Lagunilla tabernara ekarriko dute. 18:00etan hasiko da jaia. Besteak beste, karaokea, linbo dantza, kroketa lehiaketa eta mojito bilketa olinpikoa egingo dituzte.

**Etxe**  
mobiliario y  
decoración

Tel. eta faxa:  
943 79 03 17

**ILEAPAINDEGIA**  
**ILEA**  
UNISEX  
943 79 87 62

**BASATI**  
TABERNA  
PINTXOS, BORAKA ETA TRAGAK  
TEL. 943 79 11 63

**angela**  
estetika  
www.angelaestetika.net  
Tel.: 943 79 88 23

**MERKEKILLO**  
Oihalak eta gortinak  
Tel.: 943 79 15 00

**EUSKAL HERRIA**  
AURRERA!!!  
**IRATI**  
TABERNA  
FERRERIAS, 27 • ARRASATE  
TEL.: 943 79 56 11  
EZ BAUZ DANGOK!!

**AKER**  
943 79 92 84

**Body piercing  
eta  
tatuajeak**  
**AKER**  
943 79 92 84

**ileapaindegia  
peluquería**  
**GORKA**  
Tel.: 943 77 13 78



## > JAIALDIA

Nazioarteko Folklore Jaialdia egunean Monterronen > **45**



## > BIDEO JOKOAK

Euskarazko bideo jokoek eskaintza ugalduz doa urtetik urtera > **51**

## > IGOR ZUAZOLAZIGORRAGA

Ikasturtea amaituta, udako oporrekin gozatzeko gertu dago Igor. Bergarako jaietako herri bazkarian Mister Jator izendatu zuten > **50**



# Goazen patinatzera!

IKASTAROAK Helduendako antolatzen diren ikastaroek harrera ona izan dute aurten ere. Argazkian, Bergaran dabilen talde bat. Mikel Morras eta Josean Iñarra dira irakasleak.

E.M.

Patinatzeko zaletasunak nabarmen egin du gora gurean azken urteotan

Urkulun, kaleetan eta inguruko bidegorrietai adin guztietako jendea ibiltzen da patinatzan

**EDU MENDIBIL > BERGARA**  
Azkenaldian gero eta jende gehiago ikusten da patinatzan Urkulun, kaleetan edo inguruko bidegorrietai. Patinatzeko zaletasunak nabarmen egin du gora gurean ere. Horren lekuko, udalako kirol zerbitzuen bitartez antolatutako ikastaroek izandako harrera bikaina eta han eta

hemen patinatzan ibiltzen den jendea. Udaberria eta uda sasoia aproposa da patinatzeko.

Egunotan 4 eta 13 urte bitarteko 180 gaztetxo ari dira Oñatin eskolak hartzan, Josean Iñarra bergarar irakaslearekin. Iñarrak zortzi urte darama patinatzeko eskolak ematen eta berak esan digunez, oso kirol polita da sasoian egon eta aldi berean gozatzeko: "Azken urteotan boom moduko bat egon da patinatzearrek. Sasoian egoteko eta naturaz gozatzeko aukera eskaintzen dizun kirola da eta ez da gutxi hori. Sasoi honetan gauez patinatzera irteten direnak asko dira eta urtean zehar ere bai, giroak laguntzen badu noski. Lotsagatik-edo gauez bakarrik ateratzen direnak ere badira..."

Urkuluk patinazole asko batzen ditu, aste bukaeretan batez ere. "Lur egokia da hangoa patinatzan ibiltzeko baina segur-

tasun neurri minimo batzuk harteza ezinbestekoa da, bestela kolpe gogorrak hartzeko arriskua dago eta". Iñarraren arabera, ez dago adinik patinekin gozatzeko: "Beti bezala, zenbat eta lehenago hasi hobe izaten da, beste kirolekin gertatzen den moduan. Baina inoiz ez da berandu... Orain dela bi urte erretiratu batzuk etorri ziren patinatzan



URKULU Ibarreko jende asko ibiltzen da Urkulun patinatzan.

ikastera, eta ez zuten inolako arazorik izan besteentzat mailan aritzeko. Zortzi bat ordutan oinarrizko gauzak ikasteko aukera dago, gelditzen eta bira ematen hain zuen. Hasieran hobe izaten da patin bakarrarekin aritzea eta beste hankan zapatila janxtea. Lehen sentsazioak ezagutzea eta oreka lantzen hasteko hobe da horrela hastea. Hortik

aurrera, ikasteko prozesua errazagoa egin daiteke".

### SEGURTASUNA ZAINDUAZ

Gaztettoekin aritzea bereziki gustuko du Iñarrak: "Oso polita izaten da umeei erakustea: eskailerak jaisten eta igotzen ikasten dute berehala eta, aldi berean, jende artean patinatzan ari direnean edo autoen arriskua dagoenean, jarraitu beharreko arauak erakusten dizkiegu. Hori oso importantea da, adin txikikoekin batez ere. Oñatin ematen ditugun ikastaroetan, esaterako, bost maila bereizten ditugu eta ikustekoa da goiko mailan ari direnak zein ondo ibiltzen diren patinekin. 11-13 urterekin primenan moldatzen dira".

### IKASTAROEN ARRAKASTA

Mikel Morras arrasatearra Aretxabaletan, Bergaran eta Arra (44. orrialdean jarraitzen du)

MIRARI ALTUBE

## Goazen patinatzera!

(43. orrialdetik dator)

saten dabil patinatzeko ikastaroak ematen. 11 urte darama patinatzen erakusten eta aurten gorakada sumatu du Arrasaten batez ere: 27 lagun helduendako ikastaroan. Zaletasunak gora egitea bi arrazoirengatik izan daitekeela dio: "Jendeak ardura hartu du aisiaidial aniketa fisikoak egiteko eta bestalde hainbat leku on daude patinatzeko: Urku lu egokitu dute, Garagartzan eta Aretxabaletako trenbide zaharrean ere ibiltzen da jendea... Hala ere, toki askotan etenak izaten dira bidean aurrera jarraitzeko".

### GOZAMEN HUTSA

Bergaran, Morrasek eta Iñarrak ematen dituzten helduendako ikastaroak. 20 lagun dira eta Ines Etxeberria dugu ikasleak bat. Bere bigarren ikastaroa egiten ari da aurtengo udan: "Gaztetxo nintzela, patinatzen nuen baina urte dezente neraman patinak janitzke. Baina bizikletarekin gertatzen den bezala, ez da ibiltzen ahazten. Oso sentsazio atsegina izan ditut patinekin, batez ere kirolegiko kantxan, egurrezkoan, gabilzanean. Irristatzetik sentzazioa gozamen hutsa da. Materiala, nola ez, asko aldatu da. Gelditzen ikastea da gakoetako bat, sustorik ez izateko...".



UDA KANPAINA Josean Iñarra irakaslea ikasle talde bat azalpenak ematen eguztenean, Bergaran.

E.M.



GAZTETXOAK 4 eta 14 urte bitarteko 180 gaztetxo ari dira Oñatin eskolak hartzen.



JOSEAN IÑARRA

### BEHARREZKO EKIPOA

Bergaran, nagusiki, kirolegiko inguruko bidegorrian, parkingetan eta Osintxu eta Soraluze bitarteko bidegorrian ibiltzen da jendea patinatzen. Patinatzeko behar den ekipoari dagokionez,

gaur egun aukera zabala dago patinei dagokienean, 80 eurotik gorakoak gehienak. Era berean, eskumuturrak, ukondo eta belaunetarako babesek 25 euro inguru balio dezakete eta gutxik erabiltzen duten baina adituek

gomendatzen duten kaskoa 20 euro ingururen truke eros daiteke. Babesekin datozen prakak gero eta gehiago ikusten dira gaur egun. Edozein modutan, nahi beste aukera dago, bakoitzaren aurrekontuaren arabera.

Bergaran patinatzeko elkartea sortzear dago. Dagoeneko Hanka Labanka elkartearen estatutuak Jaurlitzara bidali dituzte. Ostiralerako hamabost bat lagun (25-50 urte bitartekoak) elkartzen dira Labegaraietako kirolegian patinatzeko. Elkartearen asmoa zera da: ikastaroak antolatzea eta negurako eta udazkenerako aisiaidi alternatiba bilakatzea, inolako adin mugarrak gabe. Gurasoek umeek batera patinatzen ikastea da helburuetako bat.

Bergarakoa bailarako lehen patinatzeko elkardea litzateke. EAEko hiriburutan badira horrelako elkartek: Correcaminos Donostian, Zona Verde Bilbon eta Gau Txori Gasteizen. Joan den ekainaren 18an, hain zuzen, patinatze erakustaldia egin zuten Bilbon, hainbat profesionalen parte hartzearekin. Bailaratik joandako hainbat lagun izan ziren bertan, erakustaldia jarraitzen. Debagoienean, MUK antolatuta, gauzez Arrasaten patinatzeko ekimena izan zen ekainaren erdialdean eta 200 bat lagun elkartu ziren. Patinekin ibiltzen direnak ugalduz doaz gurean ere.

## CAMPBELL BROTHERS

Gospel elektrikoa

### Non:

Arrasateko Monterron parkean.

### Noiz:

Uztailak 23an, domekan, 22:30ean.



MUSIKA ETA DANTZA

## NAZIOARTEKO FOLKLORE JAIALDIA

Aerosa-ko talde etnografikoa (Portugal)  
Hué hiriko dantza eta kantu imperialak (Vietnam)

### Non:

Arrasateko Monterron parkean.

### Noiz:

Uztailaren 27an, ostegunean, 22:30ean



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



DANTZA > EGUNLEAN, NAZIOARTEKO DANTZA IKUSKIZUNA

# Vietnamgo eta Portugalgo dantza ikuskizunak, Arrasaten

Togoko taldea ezingo da etorri, bisarik eman ez diotelako. Horren ordez, Portugalgo dantza talde bat arituko da Monterronen

IKER BARANDIARAN > ARRASATE Eguenean, hilaren 27an, nazioarteko folklorea jaialdia egingo dute Monterron parkean. 22:30ean izango da eta atzerriko bi taldek esku hartuko dute: Vietnamgo Hue hiriburuko dantza taldeak eta Portugalgo Areosa taldeak, hain zuzen ere.

15 bat urtetik gora dira Arrasateko Udalak uztail bukaeran nazioarteko folklorea taldeak Monterronera eramatzen dituela. Emanaldi horiek doan izaten dira, eta harrera oso ona izaten dute, Monterroneko kokagune apartak eta baita ikuskizunak ere jende asko

erakartzen dutelako ikuskizun horiek ikustera.

Vietnamgo talde ikusgarri bat eramango dute. Hue hirikoa da eta Cung Dinh izeneko dantza egingo dute. Dantza horiek Vietnamgo erregeei eskaintzen zizkieten garai feudaletan. 18 dantzari eta bederatzitik musikari esku hartuko dute taula gainean.

## TOGOKOEN ORDEZ, PORTUGALGOAK

Vietnamgo taldearekin batera Togoko talde bat aritu behar zen Monterronen, baina azkeneko unean dantzari horiei ez dizkiez Espainiako Estatura sartzeko bisak eman. Hortaz, antolatzai-leek ordezko talde bat lortu dute, Portugalgo Areosa dantza taldea, hain zuzen ere.


Areosa taldea 1966an sortu zuten eta Portugalgo Viana zonaldeko folklorea eta kultura ezagutzen emateko izugarrizko lana egiten dihardu sortu zenetik. Nazioartean ikuskizun asko egin dituze.

## ASPALDIKO HITZARMENA

## Portugaleteko nazioarteko jaialditik datozen

Aurtengoa da Arrasaten nazioarteko folklorea taldeak ikuskizunak egiten dituzten 16. aldia. Arrasateko Udalak Portugaleteko Elai-Alai elkarteari hitzarmena dauka. Elai-Alai elkartea urtero Portugaleteko nazioarteko folklorea jaialdia antolatzen du.

Hala, Elai-Alai elkartea urtero pare bat talde bideratzen ditu Arrasateko Monterron parkean ikuskizunak egin ditzaten. Talde ugari izan dira euren musika eta dantza ikuskizunak eskaintzen: Asia, Afrika, Amerika eta Europako taldeak, hain zuzen ere.



KULTURA ZABALDU Vietnam (goian) eta Portugalgo dantzak egunean. GOIENKARIA

AISIALDIA

## Musika eta filmak aukeran, udan

Abuztuan filmak emango dituzte Arrasaten eta Bergaran

### I.B. > DEBAGOIENA

Datozen asteotan film emanaldi ugari izango dira ibarrean. Hala ere, uztaila bukatu aurretik musika emanaldiak ere izango dira ikusgai.

Gaur, egubakoitzoa, Four Friends taldeak kontzertua egingo du Bergarako Espolioan; eta hilaren 28an, Ortophonk taldeak egingo du emanaldia.

Bestalde, abuztuaren 4an, Nuevo Catecismo Catolico, Radio Wings, Mahaster River eta Los Txuloputas arituko dira Oñatiako Lorentzo deunaren jaietan.

### FILMAK BARRA-BARRA

Ibarreko herri gehienetan filmak kalean emango dituzte uztailean. Arrasaten eta Bergaran, gainera, abuztuan ere emango dute aukera hori, Monterron parkean eta Espolioan hurrenez hurren.

Arrasaten *El juego de los idiotas*, *Novia por contrato*, *Aupa Etxebeste!* eta *Fearless: Sin miedo* emango dituzte. Bergaran, berriaz, *Charlie y la fábrica de chocolate*, *Obaba*, *Bajo cero* eta *Koruko mutilak*.

### Edozein premiatarako:

- Antzutasuna
- Erditzeak
- Antisorgailuak
- Menopausia
- Ekografiak (4D)
- Titietako gaixotasunak
- Minbiziaaren diagnostiko goiztiarra
- Hezur dentsitometria

### Zure zerbitzura:

- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Maite Albizu
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi

**CG**  
**CONSULTORIO**  
**GINECOLOGICO**



**ARRASATE**  
**Zerkaosteta 17**

**943 79 20 18**

Donostia: 943 30 82 08  
Eibar: 943 12 10 2  
Irun: 943 61 78 88



Policlinica Gipuzkoa

**IBERGARAI 3 • BERGARA**  
Tel./Fax: 943 76 97 97  
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

Bergara:  
 • Dúplexa. Masterreka. 180 m<sup>2</sup>.  
 • Dúplexa. Ortuibar. Oso ondo.  
 • Sukia erakuntza. Prezio oso ona.  
 • Masterreka 92 m<sup>2</sup>. Oso ondo.  
 • Bidekurutzeta 55 m<sup>2</sup>. Berriatua.  
 • Koldo Eleizalde 87 m<sup>2</sup>. Ondo.  
 • K. Eleizalde 90 m<sup>2</sup> + telatu azpia.  
 • Ibargarai 118 m<sup>2</sup>. Oso ondo.  
 • Zabálotegi 50 m<sup>2</sup>. Oso ondo.  
 • Ibargarai 104 m<sup>2</sup>. Oso ondo.  
 • Bidekurutzeta 96 m<sup>2</sup>. Oso ondo.  
 • Frasikozeta 104 m<sup>2</sup>. Prezio ona.  
 • Oñati 97 m<sup>2</sup>. Oso ondo.  
 • Marteko 85 m<sup>2</sup>. Oso ondo.  
 • Zubiaurre 70 m<sup>2</sup>. Oso ondo.

**ANTZUOLA:**  
 • Elkaren ondoan erakitako 8 txuetat salgai. Hiru solairu, eguzkitusia, sarbide ona, garajea, txoko eta terraza. Aukera ona.  
 • Sagasti 90 m<sup>2</sup>. Prezio ona.

**DEBA GARAIA**  
INMOBILIARIA  
Telesforo Aranzadi 2  
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37  
Zarugade 1 Arrasate  
T: 943 77 13 02 F: 943 73 12 40

**BERGARA:**

- Ibargarai 118 m<sup>2</sup>. Oso ondo.
- Bidekurutzeta, 60 m<sup>2</sup>. Oso ondo.
- Koldo Eleizalde 87 m<sup>2</sup>. Ondo.
- Aranerreka 75 m<sup>2</sup>. Oso ondo.
- Zubiaurre 60 m<sup>2</sup>. Oso ondo.
- Matxiategi 80 m<sup>2</sup>. Ondo.
- Madura 51 m<sup>2</sup>. Berriatua.
- Zabálotegi 50 m<sup>2</sup>. Ondo.
- Zubiaurre 71 m<sup>2</sup>. Erdi berriatua.
- Artekale 74 m<sup>2</sup>. Ondo.
- Angioizi bi solairuko etxe. Berriatua.
- Masterreka 87 m<sup>2</sup>. Oso ondo.
- Ibargarai 80 m<sup>2</sup>. Ondo.
- Frasikozeta 102. Ondo.
- Arizuri 97 m<sup>2</sup>. Oso ondo.
- Zubiaurre 62 m<sup>2</sup>. Ondo.
- San Lorenzo 18 etxebizitza berri. Garajea eta trastelekuarekin.
- ANTZUOLA:**
- Dúplex berria erdiaidean.
- Sagasti 71 m<sup>2</sup>. Ondo.

## IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazten eguedia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrak iragarri ditugu.

**943 25 05 01 sailkatuak@goiena.com**

PARTIKULARREN IRAGARKIKA DOAN JARRIKO DITU. GAINERAKOAK, 16 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.

GOIENKARIK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitekeen operazioen erantzukizunik.

<b>BERGARA</b> <b>Biko taberna alokatzen da. Deitu arratsaldez.</b> <b>943 76 71 19</b>	<b>ÖÑATI</b> <b>Etxebizitza salgai. 120 m<sup>2</sup>, altua, argitsua, igogailua, ganbara eta behe-barrua. Berritzeko dago. Prezio interesgarria. 637 73 90 39</b>	<b>BERGARA</b> <b>Duplex berria eta garaje itxia salgai.</b> <b>699 49 14 14</b>	<b>ANGIOZAR</b> <b>Ortzi erretegia alokatzen da.</b> <b>943 78 22 80</b> <b>665 72 24 46</b>
-----------------------------------------------------------------------------------------------	------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	----------------------------------------------------------------------------------------	-------------------------------------------------------------------------------------------------------

**PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.**

**649 84 67 09 (BERGARA)**  
**943 33 18 37 (HERNANI)**

**1/ ETXEBIZITZAK****101. SALDU**

**Angiozar.** Baserria salgai. Prezio interesarria. 626 35 60 89.

**Antzuola.** Sagasti auzoan etxebizitza salgai. Erdi jantzia. Hiru logela. 90 m<sup>2</sup>. Balkoi eta terraza. Garaje ibxi handia, aukeran. 607 63 48 88.

**Arrasate.** Bizkaia etorbidean etxebizitza salgai. Hiru logela. 670 42 07 98.

**Arrasate.** Otalora 2, azken solairua, ikuspegi zoragarria, 3 logela, 2 bainugela, bizihera sartzeko moduan. Telefonoa: 675 71 37 27.

**Bergara.** Simon Arrieta. 80 m<sup>2</sup>. Bi gela. Balkoi handia. Bizihera sartzeko moduan. Garaiea aukera. 664 73 49 60.

**Ofiati.** Euskadi etorbidean etxebizitza salgai. 945 14 18 17.

**103. ERRENTAN EMAN**

**Alcoceber (Castelló).** Etxebizitza errrentan ematen da irailera.

an. Deitu telefono honetara: 620 13 32 66.

**Arrasate.** Erdialdean dago eta hiru logela ditu. Egokia ikasleentzat. Deitu 19:00etatik aurrea, mesedez. Jaber. Deitu telefono honetara: 685 94 02 21.

**Arrasate.** Etxea alokairu eskaintzen du. Erdi aldean dago eta hiru logela ditu. Egokia ikasleendako. Interesatuok deitu 19:00etatik aurrera. Jaber. 685 94 02 21.

**Arrasate.** Etxea errrentan San Andres auzoan. Ikasleentzat ere baliagirria, ubertsitatek gertu. 943 79 54 25.

**Arrasate.** Etxea errrentan auztalean eta abuztuan (asteaka hartzeko aukera). 636 49 46 87.

**Baztan.** Apartamentua errrentan uztalean eta abuztuan. Bigelako, Garajea. Igerileku eta hamabostaldia eta iraila. 945 23 38 85.

**Gandia (Valentzia).** Apartamentua errrentan ematen da, abuztuan eta irailean. Igerileku dauka eta urbanizazio itxia da. 645 71 05 83.

**Benidorm.** Apartamentua. Hondarizta ondoan. Guztiz jantzia. 630 41 84 65.

**Benidorm.** Etxebizitza ematen da errrentan. Abuztuko lehen hamabostaldia eta iraila. 945 23 38 80.

**Cambrils.** Apartamentua ematen da errrentan. Hondartzatik oso gertu. Igerileku eta lorategia ditu. 610 79 47 29.

**Donostia.** Antiguon hondartzatik gertu, bi logelako etxebizitza. Abuztuan 1go hamabostaldirako. Ekonomikoa. 618 01 51 44.

**Donostia.** Egia. Etxebizitza ematen da errrentan ikasleendako. Bilogela. Deitu 21:00 eta 23:00 artean. 943 78 04 28.

**Donostia.** Etxebizitza ederra Grosen. 689 21 72 08 edo 943 32 26 25.

**Elizondo.** (Nafarroa). Lau logelako etxebizitza errrentan emenda. Zortzilagunendako egoikia. 600 euro asteko. 943 79 58 75 edo 630 08 33 85.

**Gandia (Valentzia).** Apartamentua errrentan ematen da, abuztuan eta irailean. Igerileku dauka eta urbanizazio itxia da. 645 71 05 83.

**Jaca.** Apartamentua errrentan uztalean eta abuztuan. Bigelako, Garajea. Igerileku eta tenis pistak dituen auzunea. 665 73 95 65.

**Santa Pola (Alacant).** Apartamentua errrentan ematen da. Gran Playatik 100 metrora. Hamabostaldika edo hil osoa. 605 02 05 22.

**Vera (Almeria).** Hondartzeta eta urbanizazio naturistän dagoen etxebizitza alokatzen da. Guztiz jantzia. Igerilekuarekin. 657 73 94 25.

**104. ERRENTAN HARTU**

**Arrasate** edo Aretxabaletan bikote batetik etxebizitza (estudioa...) alokatu nahi du irailetki aurrera. 645 72 58 41.

**Bikote** batetik etxebizitza alokatuko luke Bergara edo Antzuola. 658 74 74 54.

**105. ETXEAK OSATU**

**Bergara.** Logelak dauzkat errrentan emateko. 685 72 21 33.

**Gasteiz.** Etxebizitza osatzeko lagun bat behar da dorren ikasturako (irailetki ekaniera bitartean). 645 71 81 84.

**Gasteiz.** Etxebizitza osatzeko neskak bat behar da. Gorbeia kalea. 350 euro hilero. 652 72 18 87.

**2/ GARAJEAK****201. SALDU**

**Antzuola** Beheko auzoan gara-

**IRAGARKI SAILKATUAK**

Eguazten eguedia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrak iragarri ditugu.

**943 25 05 01 sailkatuak@goiena.com**

PARTIKULARREN IRAGARKIKA DOAN JARRIKO DITU. GAINERAKOAK, 16 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.

GOIENKARIK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitekeen operazioen erantzukizunik.

**BERGARA**

**Biko taberna alokatzen da. Deitu arratsaldez.**  
**943 76 71 19**

**ÖÑATI**

**Etxebizitza salgai. 120 m<sup>2</sup>, altua, argitsua, igogailua, ganbara eta behe-barrua. Berritzeko dago. Prezio interesgarria. 637 73 90 39**

**BERGARA**

**Duplex berria eta garaje itxia salgai.**  
**699 49 14 14**

**ANGIOZAR**

**Ortzi erretegia alokatzen da.**  
**943 78 22 80**  
**665 72 24 46**

**BERGARA**

**Langile bat behar da eraikuntzako kalitate-kontroleko lantegi baterako. Debagoienekoa izatea baloratuko da. B1 gida baimena beharrezko. 656 78 88 59 (Julio)**

**ARRASATE**

**Plazan dagoen Zuk Nahi taberna alokatzen da.**  
**618 76 34 40**  
**605 76 08 29**

**BERGARA**

**La Pineda.** Apartamentua errrentan ematen da. Hondartzatik gertu, igerilekuarekin eta apartekalekuarekin. 616 15 61 91 edo 659 48 54 09.

**ÖÑATI**

**Etxebizitza errrentan ematen da. Lau logela eta bi komun. Berritza. 605 74 52 02.**

**SALOU**

**Uztalean eta irailean etxebizitza errrentan ematen da. 689 21 72 08 edo 943 32 26 25.**

**GANDIA (Valentzia)**

**Santa Pola (Alacant).** Apartamentua errrentan ematen da. Gran Playatik 100 metrora. Hamabostaldika edo hil osoa. 645 71 05 83.

**ARRASATE**

**Garaje itxia salgai. Zuk Nahi taberna alokatzen da.**  
B1 gida baimena beharrezko. 656 78 88 59 (Julio)

**BERGARA**

**La Pineda.** Apartamentua errrentan ematen da. Hondartzatik gertu, igerilekuarekin eta apartekalekuarekin. 616 15 61 91 edo 659 48 54 09.

**ARABALETA**

**Arebaleta.** Garaje itxia saltzen edo alokatzen dut erdialdean. 685 72 16 52 edo 665 73 90 38.

**ARRASATE**

**Arrasate.** Garaje itxia salgai. Zuk Nahi taberna alokatzen da.

**ARRASATE**

**Arrasate.** Garaje itxia salgai. Zuk Nahi taberna alokatzen da.

**ARRASATE**

**Arrasate.** Garaje itxia salgai. Zuk Nahi taberna alokatzen da.

**3/ LOKALAK****303. ERRENTAN EMAN**

**Arrasate.** Zigorrolan 30 m<sup>2</sup>-ko lokala errrentan ematen da. 617 91 12 43.

**4/ LANA****401. ESKAINTEK**


**Arebaleta.** Emakume/neska euskalduna behar da goizez edo arratsaldez, umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 615 79 20 66.

**Ofiati.** Goizetan umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona bat behar da. 943 53 41 91 edo 655 72 68 87.

**Tabernari** edo zerbitzari lanak egino nituzke taberna edo jangela baten. Eskarment



Juan Carlos eta Floren uztailaren 22an ezkonduko dira 12:00etan Bergarako udaletxeen. Ondoren, Leintz-Gatzagako Gure Ametsa jatetxeen egingo dute ospakizuna. Zorionak bikote eta ongi pasa eguna. Lagunen partetik.



Jose Maria Guridi eta Gloria Agirreurreta arrasatearrek 50 urte egin dituzte ezkonduko. Uztailaren 23an ospatuko dituzte urrezko ezteiak familiakoekin. Meza egingo dute parrokian eta gero bazkaria Arteagan. Zorionak familiaren partetik!




Monika Roteta villa bonarra eta Jon Barrena oñatiarra uztailaren 22an ezkonduko dira Oñatiako Bidaurretan. Monastegian; eta Zelai Zabal jatetxeen izango dute bazkaria. Familiakoek eta lagunek mezu hau bidali nahi diete: "Familiakoak koadrilarako lagunak ahaztu gabe adiskide kuttunak zorion egunak txispa askodunak dira zuentzat eskatzen ditugunak"



Arrasateko Roman Altube eta Eskoriatzako Marian Sedano zapatuan ezkonduko dira Arrasateko udaletxeen. Bazkaria Baster-Alde jatetxeen egingo dute eta bidaian Punta Canara joango dira. Zorionak koadrilarako eta Malenen partetik.



Esther Coma antzuolarra eta Zumarragako Oscar Garces zapatuan ezkonduko dira Antzuolako Antiguako ermitan. Bazkaria Etxe-Berri jatetxeen egingo dute eta eztei bidaian Egipitora joango dira. Zorionak eta ondo pasa familiako partetik. Merezi duze!



1956ko uztailaren 31n Marik eta Juliolk euren bizitza bat egitea erabaki zuten. Domekan, uztailaren 23an urrezko ezteiak familiakoekin ospatuko dituzte. Zorionak ama eta aitta seme-alaben partetik eta amandria-aititze biloben partetik. Aurrera bolie!



Gasteizen hil zen 2006ko uztailaren 14an, 81 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrik bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoien izenean.



Aramaion, 2006ko uztailaren 21ean.



## ESKER ONA Dolores Iñarra Osa

Eusebio Igartzaren alarguna

Donostian hil zen 2006ko uztailaren 15ean, 89 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrik bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoien izenean.

Bergaran, 2006ko uztailaren 21ean.



## ESKER ONA Carmen Igartua Kortabarria

Mila esker denagatik.  
Musu handi bat eta betira arte.



Juanita, Pili, Ramiro, Arantxa, Juan, Jon, Mikel, Uxue, Gorka, Oihana, Lorea eta Jon. Bergaran, 2006ko uztailaren 21ean.



Garagartzako Julio Heriz eta Maria Iria 1956an ezkondu zirela eta uztailaren 13an ospakizuna egindutenean. Garagartzako elizan meza egin zuten eta bazkaria ondoren familiakoekin Bazter-Alde jatetxeen. Zorionak eta urte askotarako!



Arrasaten hil zen 2006ko uztailaren 10ean, 85 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrik bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoien izenean.



Arrasaten, 2006ko uztailaren 21ean.




## URTEURRENA Teodulo Toledo Santiago

Lehen urteurreneko meza zapatuan, uztailaren 22an, 19:30ean, Aretxabaletako parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoien izenean.



Raul Perez gasteiztarra eta Ana Fuente oñatiarra uztailaren 22an ezkonduko dira Oñatiako San Miguel parrokian. Bazkaria Zumarraga Etxe-Berri jatetxeen egingo dute, eta eztei-bidaian Mexikoko Riviera Mayara joango dira. Koadrilarako partetik, ondo pasa!



URTEURRENA

## Juan Jose Uriarte Muruaga

"Bermi"

Bigarren urteurrena  
Gure bihotzean zaude



Arrasaten, 2006ko uztailaren 21ean.



## URTEURRENA Rufina Agirre Osoro

Gillermo Elorzaren alarguna

Arrasaten hil zen 2005eko uztailaren 23an, 96 urte zituela

Lehen urteurreneko meza domekan, uztailaren 23an, 12:30ean, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoien izenean.

**bila-bila 7****sudokua**

	2	3		9		
7	4	6		8		5
9		2	5		4	
5	7			6		3
4	9			1		2
7	3	8		6		
1	8	7	5		9	
	6	9	4			


**hitz gezidunak**

Ihintza	▼	Denbora berean	▼	Garbitzeko tresna	▼
Baliotsu	►	Gehiegi		Bokal biribila	
Norat atzikia	►			Potasioa	►
Goizeko otordu				Antzerki	
Oheetako bastidore	▼				
Zaporesua		Mailaz igo	► ▼		
	►	Argitzeko makila			
Karta joko	►			Pepe ..., kazetaria	►
IRUDIKO MENDIA	►			Ardi hitzelkarketan	
Eireko biztanle	►			Zati, paska	► ▼
Laido, mesprezu	►			Noren atzizkia	
	►				
				Zein tokitan	►
					▼
					Nitrogenoa

LUMA

**hieroglifoak**

Gipuzkoako herria

**hizki salda**

Gipuzkoako kostaldeko bost herriren izenak

G	U	K	I	L	O	Z	T	R
M	E	N	D	A	T	E	D	O
A	I	A	M	U	Z	G	O	N
B	E	A	A	K	K	I	N	Z
D	P	R	E	I	O	L	O	L
B	A	N	T	R	P	F	S	O
Z	B	E	O	T	K	I	T	A
H	E	Z	D	U	S	T	I	N
R	D	M	N	M	E	L	A	I

**bono fotoa**

**Zeren omenezkoa da Oñatiko Santa Ana antzokiaren aurrean kokatuta dagoen artelan hau?**

Argazkia eta galdera > Iñigo Biain

**Super BM**

50 euroko erosketa-txartela  
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA .....  
IZEN-DEITURAK .....  
TELEFONOA .....

Erakarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO  
Goienako edozein egoitzara

**San Miguel garagardoa**

33 cl-ko packa

**0,43 €** 72 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAIKO IRABAZLEA**  
PETRA INDArendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!  
Galderaren erantzun zuzena: 1742an.

**umore giroan**

Kike Amonarriz

**ASMAKETETAN**

Pasealekuuan topo egiten dute bi lagunek eta zera galdetzen dio Edurnek Karmeleri:



- Zer bizimodu, Karmele?

Aspaldian ez gara ikusi neska!

- Ez dakin ondo! Bada urtebete pintura abstraktu margotzen hasi nintzela. Arratsaldero lauzpabost ordu ematen dizkinat margotzen. Bitartean senarrak afaria prestatzen din eta biok pozik bizi gara.


- Ez zagon gaizki.

- Ez gaitun batere asperzen. Hura nik zer egin nahi izan dudan asmatzen saiatzen dun eta ni, berriz, hark zer prestatu nahi izan duen antzematen!

**soluzioak**

Zaldibibi-a

Jerogelifikoa: Zaldibibia.



DANBAKA))))))

Debagoieneko II. Musika Lehiaketa

# PART HARTU NAH?

Izena emateko azken eguna: irailak 19

INFORMAZIO GUZTIA:

[www.danbaka.com](http://www.danbaka.com)

Igor Zuazolazigorraga > Ikaslea

# "Gazteendako lokalak eta gau giro hobea sumatzen ditut faltan Bergaran"

Ikasturtea amaituta, lasai etorri zaigu Igor Zuazolazigorraga, bihotz formako piruleta bat

ahoan duela. Bergarako Pazko- etan egindako herri bazkarian Mister Jator izendatu zuten,

baina berake ez dio garrantzi handirik ematen titulu horri: "Ondo pasatzearen aurkezta nintzen

lehiaketara, lagunek animatuta". Orain, oporrekin gozatzeko gertu dago.

**EDU MENDIBIL > BERGARA**

Bergarako Aranzadi ikastolan batxilergoko lehen maila egin du aurten Igorek. Hala ere, aitortu digunez, ikastea ez du askorik atsegin eta emaitza txarrak izan ditu ikasturte amaieran: lehen maila errepikatu beharko du. Edozein modutan, ikasturte berria hasi bitartean, oportrekin disfrutatu nahi du.

**Uste baino gogorragoa gertu da ikasturtea, ala?**

Egia esateko, ikastea ez da nire zaletasunetako bat. Ez naiz ikasturtean zehar batere ondo ibili eta emaitza txarrak izan dira ekainean. Datorren urtean lehen maila errepikatu beharko dut. Ika gairik gogorrenak? Gaztelearak eta filosofia erakusten didate buruhauste handien.

**Eta zer egin nahi zenuke etorkizunean?**

Oraindik ez dakit. Txikitak, abioiak agertzen ziren filmak ikusten nituenean-eta, pilotu izan nahi nuela esaten nuen, baina dagoeneko baztertu dut ideia hori... Auskalo zer egingo dudan! Momentuz, batxilergoa amaitzea da nire asmoa eta gero gerokoak...

**Eta orain, oporetan, zer?**

Hurrengo astean-edo Debara joango naiz, astebeterako, lagun baten etxera. Eta abuztuan familiarekin, gurasoekin eta arreba-rekin, Kanarietara, Tenerifera. Azken zazpi urteotan hara joan izan gara, gustatzen zait hura: hondartzak ederrak, eguzkia, giro ona, leku askotako turistak...

**Uda gustatzen zaizu, beraz...**


Bai, gustuko dudan urtaroa da. Oporrak izaten ditugu eskolan, jaiak izaten dira han eta hemen...

**Jairik onenak, zeintzuk?**

Bergarakoak asko gustatzen zaizkit, baina udan herriz herri ibiltzen gara. Aste bukaeran, esaterako, Antzuolako jaietara joan ginen lagunok eta primeran ibili ginen.

**Mister Jator izendatu zintzuten Bergarako jaietan, koadri- lek antolatutako herri bazkarian. Titulu berria duzu...**

Lagunek animatu ninduten aurkeztereta eta ondo pasatzearen hartu nuen parte lehiaketan. Jaietako astelehenean San Martin plazan egindako herri bazkarian egiten dute lehiaketa joan den urtea ezkerro. Eta giro ona



E.M.

PERTSONALA

**Adina:** 17 urte. **Ikasketak:** Batxilergoko lehen mai- la. **Zaletasunak:** Zinema eta erosketetara joatea. **Gomendatzeko moduko film bat:** Brokeback Mountain. **Liburu bat:** Soinujolearen semea, Atxagarena. Hala ere, ez dut irakurtzeko ohiturarik. **Kantu bat:**

Imagine, John Lennonena. **Inoizez duzu ahaztuko...** Duela bi urteko San Martzialetan harrapatutako mozkorra. **Bergara edo inguruko txoko bat:** Usondo parkea. **Bidaia bat nora egingo zenuke?** New Yorkera joango nintzateke gustura, lagunekin.

zegeenez, han ibili nintzen, dantzan, nesken bainujantzi batekin desfilatzen eta Shin Chanen kantu bat abesten... Ez nuen irabazterik espero, inondik inora, eta sorpresa galanta hartu nuen: irabazi, ondo pasatu eta 150 euro poltsikora. Ez dago gaizki... Dena den, ez diot garrantzirik ematen Mister Jator lehiaketa irabazteari. Lagun artean ederto pasatu genuen eta barre egin genuen, besterik barik. Nesketan Maite Zabaleta eta Ainhoa Unamuno izendatu zituzten Miss Jator.

**Eta, zure ustez, zeintzuk dira mutil edo neska jator baten ezaugarriak?**

Ez dakit ba... Lagunen lagun ona, barregarria, bihotz onekoa... Halako zerbaiz.

**Zu moduko gazteendako zer moduz dago Bergara?**

Gauza handirik ez dago, baina moldatzen gara. Hala ere, gazteendako lokalak, gau giro hobea eta bainatzeko toki aproposa iza-tea ondo legoke. Orain, udan, Oñati, Usakora, edo kostalde-ra joan behar izaten dugu bainatzera, Bergaran ez dagoelako igerileku dezenterik.

**Tabernari lanetan ere baza-biltza...**

Bai, orain dela urtebete hasi nintzen Matxiategiko Goxo-Toki tabernan, eta gustura nabil. Gainera, ni San Lorentzokoa naiz, gertuko, eta bezero gehienak ezagutzen ditut. Ondo pasatzen dut lanean, barre egiten dut bezeroekin, nahiz eta orain, uda partean, lan dezentz izan terrazarekin-eta. Sasoi honetan, kafeak, izozkiak eta edari freskarriak zerbitzatzen, nahikoa lan.

**Hemendik 20 urtera non ikus- ten duzu zure burua?**

Ez da erraza galdera horri erantzutea. Ez dakigu etorkizunak zer ekarriko digun, baina uste dut Bergarako kanpo izango naizela. Eta behin irtenez gero, hiri handi batera joango nintzateke. Bartzelona, esaterako, ez dago gaizki...

**Paris ere ezagutzen duzula esan didazu.**

Bai, orain dela bi urteko udan joan ginen, ikastolarekin sari bat irabazita. Krokodilo bat ohe azpian liburua irakurtzearen, sariketa baten parte hartu genuen eta bost eguneko bidaia irabazi genuen Parisera. 25 bat lagun joan eta ederto ibili ginen.



UMEAK 5 eta 14 urte bitarteko umeendako egiten dituzte Elhuyarkoek bideo jokoak.

A.L.

**BIDEO JOKOAK > EUSKARAZKO PRODUKTUAK GEHITU EGIN DIRA AZKENALDIAN**

## Euskaraz jokatzeko bideo jokoak egiten ditu Elhuyar fundazioak

Bideo jokoentzako artean gero eta aukera zabalagoa dago; eta orain, Elhuyarri esker, joko horietako asko euskaraz daude. Azkena, Dumas-en 'Hiru mosketariak'

**A.L. > BERGARA**  
Elhuyar fundazioak 1994an kaleratu zuen lehenengo CD-ROMa, *Ezagutu Gipuzkoa* izenekoa. Ordutik hona hainbat software egin ditu: kontsultarako CDak, CD didaktikoak, hizkuntza lantzeko CDak... 20 CD baino gehiago guztira. Azken urteetako gazteen ohituren inkestak ikusita, ordenagailurako jokoek hartu duten garra-

tziaz ohartu dira. Hala, aisiaaldi-rako bideo jokoak egiten hasi dira. Elhuyarko software ardura-dun Danel Solabarriaren esanetan, euskarazko softwareak erronka garbia dauka: azken boladako bideo jokoetan jolastera ohituta dauden gaztetxoendako euskarazko joko erakargarriak kaleratzea. Ahalegin horretan egin dute *Hiru mosketariak* bideo jokoak.

### 'HIRU MOSKETARIAK'

Hiru dimentsioko irudiak erabilten dituen euskarazko lehenengo plataforma-bideo joko da *Hiru mosketariak*. Era berean, Alejandro Dumas idazleak sortu zituen pertsonaia klasikoetan oinarritutako lehenengo bideo joko da. Aisiaaldi CD-ROM bideo joko da, eta dagoeneko, eta 19 herrialdetan kaleratu dute. Elhuyarrek izan du ardura Euskal Herrian euskaraz argitaratzeko.

*Hiru mosketariak* 7 urtetik aurrerako gaztetxoendako da. Istorioa 1628. urteko Frantzian kokatzen da. Xavier konde maltzurrak D'Artagnan eta Aramis eta Athos mosketariak bahitu ditu, eta jokalariek Phortos mosketariari lagundu beharko diote bere lagunak salbatzen. Berrehun eremu baino gehiago, hamar maima eta hiru amaiera ditu aukeran.

### POLTSIKOKORAKO JOKOA

Ordenagailuarekin bakarrik ez, poltsikoko telefonoarekin ere ibil gaitezke jokoan euskaraz. Animatuk *Lorategia* izeneko joko didaktikoa egin du. Euskara ikasteko eta erabiltzeko tresna da, teknologia berrietako eremuan eta horren hedatuta dauden poltsikoko telefonoen esparruan. Informazio eta argibide gehiago [www.animatu.com/lorategia](http://www.animatu.com/lorategia) webgunean.

## Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

[www.goiena.net-eko/blog\\_komertzialak](http://www.goiena.net-eko/blog_komertzialak)

- Zure negozioko eskaintzaren berri sarean
- Euskal merkeak
- Emaitzak onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzko erraza

**Goiena.net**  
Debagoineko ataria Interneten

[www.goiena.net/blogak](http://www.goiena.net/blogak)  
/4quattro /BZ-sistemas /ezkutuonly /gutzizeder /multiópticas /udalatx  
/argi-plastik /dragon- /gallastegi /irudisport /ohiak /udalaitz  
/arregi /oriental /ganesh /korozabaleta /okipark /urdeki  
/atai /dukienna /garia /maulanda /vitoria /markiegi  
/azkarate /ego /gorkagarai /mayte /pando /urbjeta  
/joseba /elejalde /gorkatxi /merkeopari /richimaier

Prezioen eta ikastaroen gainezko informazioa:

[www.goiena.net/blogak](http://www.goiena.net/blogak) ·  
[azabarte@goiena.com](mailto:azabarte@goiena.com) ·  
943 76 92 70

Eta baita ere:  
[www.aizue.com](http://www.aizue.com)  
[www.lilura.com](http://www.lilura.com)  
[www.baster-alde.com](http://www.baster-alde.com)  
[www.ehmff.com](http://www.ehmff.com)



## teknologia berriak

### > ORDENAGAILUA

#### Apple konpainiak hirugarren generazioko iMac ordenagailu berria kaleratu du

Apple konpainiak Parisen aurkeztu zuen iMac G5 ordenagailu berria. Hirugarren generazioko ordenagailua da; diseinuz berritzalea eta txukuna. Beira likidodun pantailan batzen da ordenagailuaren sistema guztia. Hiru formatu kaleratu dituzte; 17 hazbetekoa da txikiena eta 20 hazbetekoa handiena. Pantailaren lodiera, berriz, bost centimetroko da.

Irailean jarri zuten salgai. Merkeenak 1.369 euro balio du eta garestienak, 1.999 euro.



Non dago ordenagailua? Apple enpresak pantaila formatuan kaleratu du iMac berria.

### > BETAURREKOAK

#### MP3 irakurgailua duten eguzkitako betaurrekoak merkaturatu ditu Caiyuan enpresak

Betaurreko enpresa ugarik kaleratu dituzte dagoeneko MP3 irakurgailua duten eguzkitako betaurrekoak; hala nola, Oakley-k edo Caiyuan-ek. Azken horrek askotariko tamaina eta diseinua duten betaurrekoak merkaturatu ditu. Txikiena 64 Mb-koa eta handiena GB batekoa.

MP3 abestiez gain, WMA eta ADPCM formatuko irakurketak egiten ditu. Abestiak USB atakarekin kargatzenten dira betaurrekoetan.



MP3 irakurgailua duten betaurrekoen bateriak 8 orduko iraupena du.

### > HAIZAGAILUA

#### Lantokian udako eguraldi beroei aurre egiteko haizagailu praktikoa eta modernoa da Fun Air

*Zicletech.com* webgunean aurki dezakezue Fun Air izeneko haizagailua. Eguraldi beroei aurre egiteko haizagailu txikia da. Ez du pilarik behar, USB atakarekin konektatzen da eta mota askotariko ordenagailuendako balio du. Fun Air-ek kontsumo txikia du. Gainera, euskal malguari esker, erabiltzaileak gura duen norabidean jar dezake.

*Zicletech.com*-ek 9,95 eurotan saltzen du Fun Air haizagailua. Udako eguraldi beroei aurre egiteko berrikunta teknologiko aparta da.



Fun Air haizagailuak ez du pilarik behar, USB atakari esker edozein ordenagailutan erabil daiteke.

**berriak**

> GOITB  
**Azken orduko aldaketak programazioan**

Oraingo astean azken orduko aldaketak egin behar izan ditu Goiena Telebistak. *Harmailatik* kirol saioaren ordez ibilbideen gaineko saio berezia eskaini zuen astelehen iluntzean. Aizkorriko eta Udalatxeko mendi ibilbideak ikusteko aukera izan zen.

Era berean, martitzen iluntzean *Berbaire* saioaren ordez Antzuolako jaien gaineko saio berezia eskaini zuen ibarreko telebistak.

> SAIO BEREZIA  
**Orain dela 30 urteko alkateekin mahai inguruu GOITBn**

Foruak galdu zirela 130 urte bete direla gogoratu dute gaur Bergarako udaletxeen. *Alkateak borrokan* liburua aurkeztu dute, Bergarako alkateen talde eraginkorrean aritutako zenbait alkaterekin. Horren haritik, GOITBn saio berezia izango da asteburuan. Jose Luis Elkorok, Jose Antonio Altunak, Luis Arkauzek eta Jabi Errastik parte hartuko dute mahai inguru berezian.

> ARRASATE IRRATIA  
**Larraitz Mendizabalekin Argentinan zehar**

Aste gainbegiratua-n izango duzue arrasatearraren kontakizuna berriz ere entzuko aukera.

Bidaia kontuekin jarraituz, truke bat proposatu nahi dizugu, entzule: bidal egigu zu opor-lekutik postal edo email bat eta guk, trukean, jasotako guziekin sari bat zozkatuko dugu irailean. Hona hemen, bada, helbideak: *irratia@goienna.com* edo Otalora kalea 31.

> ARRASATE IRRATIA  
**'Uda Giroa'-n saioak oporrak hartu ditu abuztuak 31 bitartean**

Arrasate Irratiko lankideoi ere heldu zaigu udako atsedena hartzeko unea. Hala, datorren astean ez dugu *Uda giroa*-n saioa eskainiko. Hain zuzen ere, saioaren ordez elkarritzeta bildumak presatu dizkizuegu.

Abuztuan ere, baina, Arrasate Irratiaren konpaina izango duzue. 24 orduan musika paregabea lagun izango duzue-eta. Abuztuaren 31n itzuliko gara! Orudura arte, ondo ibili!

'ILUNPEAN' > EGUBAKOITZA, 22:15

## Juan Luis Bikuña kazetaria 'Ilunpean' saioan gonbidatu

Kazetari bergararrak erretiroa hartza erabaki du, Euskal Telebistan 23 urtez lan egin ondoren

GOIENKARIA > ARRASATE

Euskal Telebistako albistegietan 1983. urtean hasi zen lanean Juan Luis Bikuña bergararra. *Teleberri*-ren aurkezlea izan zen 80ko hamarkadan eta beste hainbat saiotan aritu da: *Punto de encuentro, A medio dia, Txoko taurino...* 1999tik gaur egun arte, 1.400 elkarrizketa egin ditu *El Punto* saioan.

Oraingoan, berriz, elkarrizketatua bera izango da. Oihana Elortza kazetariak 30 minutuko elkarrizketa egingo dio *Ilunpean* saioan. Kazetari oñatiarrak gertuko elkarrizketa egingo dio Bikuñari.



ILUNPEAN Juan Luis Bikuña kazetaria da oraingoan protagonista. GOIENKARIA

'BAZTANDARREN BILTZARRA' > EGUAZTENA, 23:15

## Elizondon ospatu den 'Baztandarren biltzarra', ikusgai GOITBn

GOIENKARIA > ARRASATE

Elizondoko kaleetan ospatu berri dute *Baztandarren biltzarra* giro bikainean. Goiena Telebistako ikus-entzuleek aukera izango dute goatzeko Baztango herritarren festarekin. 1963tik aurrera urtero antolat-

tu dute festa handia. Baztango bailara osatzen duten hamabost herriek hartzen dute parte biltzarrean. Herrien arteko senidetze festa izaten da eta guztiak izaten dute ordezkaritza Elizondoko kaleetan. Karrozak ekartzen dituzte eta herri bakoi-

tzeko dantzariekin emanaldia eskaintzen dute. Desfilea, mutil dantza, herri bazkaria, artisauen erakusketa eta beste hamaika ekintza izaten dira *Baztandarren biltzarran*.

Aurten aurreneko aldiz, Goiena Telebistako ikus-entzuleek Nafarroako ipar-ekialdeko ingurune horretan festak nola bizi dituzten ikusteko aukera izango dute. Erratzun kokatuta dagoen Ttipi-Ttapa Telebistak zuzendutako eta ekoiztutako saio berezia eguztenean eskainiko dute Goiena Telebistan, 23:15ean.

**telebegi**

Leire Kortabarria

### Mari Errauskine sindromea

**A**nti-heroi berri eta arrakastatsua dugu telebistan. Maitagarria da eta jendeak bere gorabeherak jarraituko ditu harik eta anti-hori galtzen duen arte. Galdu, galduko duelako. Bea da, Tele5eko Mari Errauskine. *Yo soy Bea* telesail berriak oso ondo hasi du ibilbidea, eta horrela segituko du bukatu arte.

Izan ere, ikusleek ikusi nahi dute, eta ikusiko dute, zelan Bea itsusia eder bihurtzen den, betaurreko eta arropa eta orrazkera zakar horiek kenduta; zelan lotsa galtzen duen, eta zelan telesaileko mutil ederrena maitemintzen duen, batera betiko zoriontsu bizi izateko.

Ikusleek ikusi nahi dute, ikusi nahi dugu, errealityan ia beti betetzen den arau horren haustura: ahate itsusia zisnea da, eta horien lepora barre egin dutenak zapuztuta gelditzen dira. Bearen bitarte, guk ere bakoitzari merezi duena emango diogu, okerrak zuzendu egingo ditugu, bizitzan nahiko genituzkeen moduan.

Ez zen, bada, hori bera gertatu Rosa Lopezek *OT* irabazi zuenean? Neska xumea, taldeko ez argalena eta ez ederrena, izar bihurtu zen, bihurtu zuten ikusleek.

**arrasate irratia**

FM 107.7

**Zapatua**

10:00 Asteko gainbegiratua. Udarekin lotutako ikuspuntuak, hala nola: Agurne Juldain, AKABE, anorexia eta bulimia gaixotasunen prebentziorako elkarteko kidea eta Jesus Clemente, eraikuntzako langilea; Ainhoa Aznarez, Iruñeko Udaleko PSEko zinetegizarekin jaien eta politikaren gainean; bidaien tartean, Larraitz Mendizabalekin Argentina, Uruguay, Paraguai eta Brasilen zehar...

**Domeka**

10:00 Asteko gainbegiratua.

**Uztailaren 24tik 28ra**

10:00 Elkarrizketa bilduma

**Abuztuaren 31tik aurrera**

10:00-12:00 Uda Giroa!

Albisteak. Eguraldearen iragarpena (Joxe Landa). Elkarrizketak.

12:05 Izarraren ordua: abesti ezagunak.

13:00 Euskadi Irratiko albisteak.

14:00 Igo autobusera! (errepi kapena).

17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Albistegi laburra

17:15 Zorion Agurren tarte (errepi kapena)

## GOITBko programazioa

**EGUBAKOITZA, 21**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Zorion agurrik eta marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Musika saioa. 14:30 M1: Eguraldia eta zerbitzuak. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Iparrorata. 15:30 M1. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Didjeridu 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Berbaire. 17:30 Eltze beroa. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Erreportaia. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Jazz. 19:45 Albisteak. Julen Iriondo 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Berriak. 21:15 Behazulo 21:45 Albisteak. Julen Iriondo. 22:15 Ilunpean: Juan Luis Bikuña. 22:45 Berriak. Deiane Arrieta. 23:15 Didjeridu. 23:45 Albisteak. 00:15 Emisio amaiera.

**ZAPATUA, 22**

07:55 Emisio hasiera. 08:00 Marrazki bizidunak bilduma. 10:50 Astekoak. Informazio saioa. 11:00 Jazz. 11:30 Klip. 12:00 Didjeridu. 12:30 Mkt. 13:00 Jaia 2006: Lesakakoak eta Antzuolakoak. 14:00 Erdi Aroko azoka Seguran. 14:30 Astekoak. 14:45 Erreportaia: Sarako Itzulia. 15:15 Marrazki. Snorkeldarrak 16:00 Bihurkorra. 17:00 Debarri. Mankomunitateko ordezkariek. 18:00 Teknopolis. 18:30 Berbaire. 19:30 Sustraia. 20:00 Astekoak. 20:15 Mkt. 20:30 Behazulo. 21:00 Ilunpean. 21:30 Euskal Herria Oinez. 22:00 Jon Maiak Seguran egindako emanaldia. 23:30 Debarri. 00:30 Emisio amaiera.

**DOMEKA, 23**

07:55 Emisio hasiera. 08:00 Marrazki bizidunak bilduma. 11:00 Behazulo. 11:30 Ilunpean. 12:00 Berbaire. Alkateak borrokan saio berezia 13:00 Debarri. Debagoieneko Mankomunitateko ordezkariek. 14:00 Euskal Herria Oinez. 14:30 Jaia Lesaka 2006 15:00 Jaia Antzuola 2006. 15:30 Erdi Aroko azoka Seguran. 16:00 Marrazki bizidunak. Card Sakura/Snorkeldarrak. 17:30 Didjeridu. 18:00 Iparorratza. 18:30 Jazz. 19:00 Elkartsasun bideak. 19:30 Teknopolis. 20:00 Debarri. Debagoieneko Mankomunitateko ordezkariek 21:00 Jaia 2006: Lesaka eta Antzuola. 22:00 Berbaire. 23:00 Elgeta Trikitillari omenaldia. 24:00 Eltze beroa. Astekoak. 00:45 Emisio amaiera.

**ASTELEHENA, 24**

07:55 Emisio hasiera. 08:00 Marrazki bizidunak bilduma. 08:50 Klip. 11:00 Euskal Herria Oinez. Aizkorrieta Udalatx. 11:30 Eltze beroa. 12:00 Elkartsasun bideak. 12:30 Ilunpean: Juan Luis Bikuña. 13:00 Berbaire. Alkateak borrokan liburuan aurkezenaren gaineko saioa. 14:00 Debarri: Debagoieneko mankomunitateko ordezkariek. 15:00 Marrazki. Snorkeldarrak 16:30 Danbaka. 17:00 Didjeridu. 17:30 Jazz. 18:00 Jaia 2006. Antzuola eta Lesaka. 19:30 Teknopolis. 20:00 Ilunpean. 20:30 Didjeridu. 21:00 Jon Maiaren emanaldia Seguran. 22:30 Berbaire. 23:30 Segurako Erdi Aroko Azoka. 00:00 Mkt. 00:30 Emisio amaiera.

**MARTITZENA, 25**

07:55 Emisio hasiera. 08:00 Marrazki bizidunak bilduma. 11:00 Eltze beroa. 11:30 Danbaka. 12:00 Jon Maiaren emanaldia Seguran 13:30 Erdi Aroko azoka Seguran 2006. 14:00 Jaia Antzuolan. 14:30 Jaia Lesaka 2006 15:00 Euskal Herria Oinez. 15:30 Ilunpean: Juan Luis Bikuña. 16:00 Marrazki bizidunak. Card Sakura/Snorkeldarrak. 17:30 Debarri. 18:30 Elkartsasun bideak. 19:00 Didjeridu. 19:30 Behazulo. 20:00 Berbaire. 21:00 Jaia 2006: Lesaka eta Antzuola. 22:00 Elkartsasun bideak. 22:30 Didjeridu. 23:00 Eltze beroa. 23:30 Astekoak. 23:45 Emisio amaiera.

**EGUAZTENA, 26**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Zorion agurrik eta marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Didjeridu. 14:30 M1. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Teknopolis. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Behazulo. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Jazz. 17:30 Zera dio. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Sustraia. 18:15 Teknopolis. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Didjeridu. 19:45 Albisteak. 20:15 Marrazki bizidunak eta Zorion Agurrik. 20:45 Berriak. 21:15 Sustraia. 21:45 Albisteak. 22:15 Sustraia. 22:45 Berriak. 23:15 Jaia 2006: Baztandarren biltzarra. 23:45 Gaurkoak. 00:15 Emisio amaiera.

**EGUENA, 27**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Zorion agurrik eta marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportaje. 14:15 Klipak. 14:30 M1. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Sustraia. 15:30 M1. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Behazulo. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Jazz. 17:30 Mkt musika. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Elkartsasun bideak. 18:45 Iparorratza. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Erreportaje: Sarako Itzulia. 19:45 Albisteak. 20:15 Marrazki. 20:45 Berriak. 21:15 Elkartsasun bideak. 21:45 Albisteak. 22:15 Didjeridu. 22:45 Berriak. 23:15 Harmailatik. 23:45 Albisteak. 23:15 Emisio amaiera.

**SHARON STONER**  
**DANBAKA)))) LEHIAKETAKO I. EDIZIOKO IRABAZLEA**  
**DISKO BERRIA ZURE ESKU**



**ESKAINIZA  
BEREZIA  
ASTELEHENeko  
GOIENKARIA-KO  
HARPIDEDUNENDAKO**

CDa + etxeau jasotzea\*: **10 euro**

Harpidedun ez bazara, harpidetu orain eta jaso CDa etxeau\* **DOAN**



**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa

Egin zure eskaria uztailaren 21a baino lehen!

Deitu telefono honetara: **902 36 38 51** 9:00etatik 18:00etara

**EDO** harpidedun bazara, eta nahiago baduzu, bete kupoia eta bidali:



Harpideduna (Izen abizenak) .....

Kalea..... Herria.....

Telefona.....

Bidali kupoia GOIENArat: 132 posta kutxa 20500 ARRASATE

\*Astelehengo Goienkaria-ko banaketak onartzen duen kasuetan bakarrik.

# Uztailak 21-28

## Kontzertua



OÑATI

**> Sagan taldeak kontzertua egingo du datorren aste bukaeran**

Beasaingo Sagan talde gazteak kontzertua egingo du hilaren 28an, egubakoitza, herriko plazan, 22:30etan. Euren lehen diskoa aurkeztuko dute. Lehen entzunaldiko kantuak, pop ukitukoak, freskoak... joko dituzte.

## Jaiak



ARETXABAleta, BERGARA, ELGETA

**> Santiagoren omenezko jaiak ospatuko dituzte asteburuan hainbat auzotan**

Santiago jaiak alaituko dituzte auzo batzuk: Aretxabaletako Goroeta (argazkian), Bergarako Basalgo eta Elgetako eta Bergarako Goimendi. Martitzenean, hilak 25, izango dira ospakizun nagusiak: meza, dantzaldiak, auzo-bazkariak...

## Antzerkia



ELGETA

**> 'Todos nacemos vascos' antzezlania ikusteko aukera dago Espaloian**

Ibarrean oso arrakastatsua izan da *'Todos nacemos vascos'* umorezko antzezlania, eta gaur, egubakoitza, Elgetan ikusteko aukera dago. 22:30ean hasikoda, eta sarrera 10 euro da Goibekoko bazkideendako, eta 12 gainerakoendako.

## Musika

BERGARA

**> Techno jaialdia egingo dute Jam aretoan, DJ askorekin**

Jammberri izeneko techno jaialdia egingo dute Jam aretoan. Euskal Herriko, Errusiako eta Espainiako disko-jartzaleak arituko dira. Sarrera eta edaria 15 euro da. Bihar, zapatua, 22:00etan.

ARRASATE

**> The Campbell Brothers Band taldearen emanaldea**

AEBatik dator The Campbell Brothers Band. Musika erlijiosoa, gospel-a, jazz... lantzen dituzte. Peddle steel, baxua, altzairuzko gitarra elektrikoa, lap steel eta bateria-rekin, gospel elektrikoa eta indartsua jotzen dute. Donostiako Jazzaldian joko dute, eta Debagoienean ere kontzertua egingo dute.

Etzi, domeka, Monterron parkean, 22:30ean.

ELORRIO

**> San Petersburgoko cello talde baten emanaldea**

Saint Petersburg Cello Ensemble taldeak emanaldia egingo du, Musikaire programak antolatuta. Zortzi biolon- txelo-jolek osatzen dute taldea, eta San Petersburgoko musikari berrien lanak jotzen dituzte.

Bihar, zapatua, San Agustinen, 22:30ean.

OÑATI

**> Rock jaialdia egingo dute abuztu hasieran**

San Lorentzo auzoko jaien barnean, rock jaialdia antolatu dute: Nuevo Catecismo Católico, Chico Boom, Los Chuloputas eta Mahaster River taldeek joko dute San Lorentzoko plazatxoan.

Jaiak abuztuaren 4tik 10era

## Ikuskizunak

ELORRIO

**> Mag Lari magoak emanaldia egingo du gaur, egubakoitza**

Mag Lari mago katalanak *Incredible* izeneko emanaldia egingo du, Musikaire programak antolatuta. Adin guztietako ikusleendako modukoa da. Gaur, egubakoitza, Herriko plazan, 22:30ean.

ARRASATE

**> Nazioarteko Folklore Jaialdia egingo dute bi taldek**

Nazioarteko Folklore Jaialdia izango da bi talderen esku. Batetik, Togoko Balafon ballet folkloriko eta artistikoak

bitartean ospatuko dituzte. Abuztuaren 4an, egubakoitza, 23:00etan.

dantza, mimo eta sorginkerian eta perkusioetan oinarritutako ikuskizuna egingo du. Bestetik, Vietnamgo Hue Hiriko Dantza eta Kantu Imperial taldeak Cung Dinh dantza feudalak egingo diru.

Eguenean, hilak 27, Monterron parkean, 22:30ean.

DEBAGOIENA

**> II. Danbaka musika lehiaketan parte hartzeko epea, zabalik**

Goienak antolatutako II. Danbaka musika lehiaketan parte hartzeko epea zabalik dago irailaren 19ra arte. Debagoieneko talde edo bakarlariek hiru jatorrizko abesti, biografia bat, bi argazki eta harremanetarako kontak-tua bidali behar dituzte Arrasateko 132 posta-kutxara

edo [danbaka@danbaka.com](mailto:danbaka@danbaka.com) helbidera.

Argibideak, [www.danbaka.com](http://www.danbaka.com) webgunean.

ARAMAIO

**> Postal lehiaketa antolatu du Txirritola euskara elkartea**

Udako oporretako postalen lehiaketa deitu du Txirritola euskara elkartea. Irailaren 15era arte parte har daiteke, postalak kultura etxera bidalita, Nardeaga kalera. Saria da nekazal turismo baten asteburua.

Irailaren 15era arte dago zabalik.

DEBAGOIENA

**> 'Gomendatzen dizut...' lehiaketa partea har daiteke**

Arrasateko eta Bergarako Gazte Informazio Zerbitzuak antolatutako Gomendatzen dizut... gomendio lehiaketan parte har daiteke. Oporren

## Lehiaketak

DEBAGOIENA

**> II. Danbaka musika lehiaketan parte hartzeko epea, zabalik**

Goienak antolatutako II. Danbaka musika lehiaketan parte hartzeko epea zabalik dago irailaren 19ra arte. Debagoieneko talde edo bakarlariek hiru jatorrizko abesti, biografia bat, bi argazki eta harremanetarako kontak-tua bidali behar dituzte Arrasateko 132 posta-kutxara

## PROPOSAMENA

BERGARA

**> Jazz kontzertuak egingo dituzte egubakoitzetan**

Gaur, hilak 21, eta datorren egubakoitzean, hilak 28, jazz kontzerto bana egingo dute Espoloian. Gaurko taldea Four Friends izango da, Bilbotik. *Dzanga* diskoa atera dute aurtent.

Zikloa ixteko, Arabako Ortophon taldea (argazkian) etorriko da. Funky-jazz estiloa lantzen dute, joera handietatik kampo. Funkeko 70eko hamarkada-ko heroi handien oinordekoak dira, eta gaurkotasun handikoa da euren musika.

Kontzerto biak Espoloian izango dira, 22:30ean.



**LEIRE KORTABARRIA**  
Zuon ekitaldien berri iragarteko, bidali informazioa  
eguazteneko egurdi baino lehen.  
Posta elektronikoa: [kultura@goina.com](mailto:kultura@goina.com)  
Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13

gaineko ahokua eta, ahal bada, argazkiak ere eskatzen dituzte.

Mugaguna, irailaren 28a. Argibideak: [www.aizue.com](http://www.aizue.com).

## ARRASATE

**> Kooperatibismoaren gainekeko eskultura lehiaketa deitu dute**

MCC sortu zutela 50 urte bete direla eta, horren gaineko eskultura egiteko lehiaketa deitu du Arrasateko Udalak. Helburua da eskualdeko balore kooperatiboen ezaugarriak islatuko dituen eskultura egitea.

Oinarriak: [www.arrasate-mondragon.org](http://www.arrasate-mondragon.org).

## DEBAGOIENA

**> II. Udako Argazkien lehiaketa antolatu du Goienak**

Debagoieneko edozeinekin parte har dezake. Argazkiak koloretan edo zuri-beltzatan izan daitezke, baina ezinbestekoak da udakoak izatea, eta inoiz argitaratu barikoak. Gehienez, bost argazki aurkez ditzatzeko norberak.

Oinarriak eta jasotako argazkiak: [www.goina.net/blogak/argazkiak](http://www.goina.net/blogak/argazkiak).

## Jaiak

### ARRASATE

**> Goikobaluren aldeko Giokela Festa egingo dute zapatuan**

Goikobaluk datorren urrian Argentinara egingo duten bidaiaaren gastuei aurre egiteko jaia egingo dute. Musika argentinarra, txalaparta, trikitilaria eta dantzak egongo dira.

Bihar, zapatua, Herriko plazan, 19:00-21:00.

### ARAMAIO

**> San Esteban jaiak ospatuko dituzte Uribarrin**

San Esteban omenezko jaiak ospatuko dituzte Uribarrin auzotarrek abuztuaren 5ean eta 6an. Hilaren 5ean, meza, euskal dantza emanaldea, karta txapelketak, errormeria eta bolo txapelketa izango dituzte; 6an, karta txapelketako finalak, umeendako jolasak, plater-tiroketa eta auzo afaria. Abuztuaren 5ean eta 6an dira jaiak.

### ARAMAIO

**> Andra Mari jaiak ospatuko dituzte Barajuenen eta Oletan**

Andra Mari jaiak abuztuaren 15ean eta 16an ospatuko dituzte. Barajuenen, hilaren 15ean, meza, vermouth dantza, karta txapelketak, errormeria... izango dira; 16an, auzoko baziaria eta afaria elizpean...

Oletan, hilaren 15ean, txistularien emanaldea eta meza izango dituzte; hilaren 16an, meza, auzotarrendako baziaria eta dantzaldia. Abuztuaren 15ean eta 16an dira jaiak.

## nire aukera



Zuriñe Larrinaga  
Kirol etxeko harrerakoa  
Aretxabaleta

## "Lehenengoz ez naiz Andramari jaietan egongo"

**A**buztuaren 1etik 4ra lana daukat. 5etik 11ra Lekeitiora joango gara, autoan. Ama Bermeon bizi izandakoa da, eta Bizkairako joera handia dugu. Hala ere, Lekeitiora lehenengo aldiz joango gara oporretan.

Gero, Espartzara, Nafarroa, joango gara, aurten seigarren urtez. 34 urte ditut, eta lehenengo aldiz ez naiz Andramarietan herrian egongo. Pena pixka bat ematen dit, baina tira. Espartzan, mendi, igerileku... ditugu, eta oso gustura ibiltzen gara familia osoa.

**Zer du, bada, Espartzak?**  
Mendian ibiltzea asko gustatzen zaigu, eta han mendi ingurune paregabea dago. Umeak igerilekuaren eroposik ibiltzen dira. Ia bertakoak gara, lagunak-eta ditugu han. Iparraldea ere bertan dago, oso gertu.

**Mendia ala uretan ibiltzea gustatzen zaizu gehiago?**  
Mendira ia egunero joaten gara. Ez zait gustatzen egun osoa igerilekuaren egotea; laurak inguruaren joaten gara. Hemen nagoenean ere, asteburuan mendira joaten gara asko.

**Argazkiak aterako dituzu?**  
Bai, horixe! Edonora joaten garela ere, kamera aldean eramatzen dut, baita Urkulura joaten garenean ere. Kamera digitala era-mango dut.

**Poltsikoko telefonoa eramango duzu?**  
Bai, eramatzen dut, baina iluntzean bakarrik pizten dut.

**Eta telebista?**  
Oso gutxi ikusten dugu. Izan ere, udan ematen dituzten saioak ikusteko...

# Zinema

### ANTZUOLA FRONTOI TXIKIA

Jaien gaineko diaporama  
El jardinero fiel  
Egubakoitza: 22:30.

### ARETXABAleta HERRIKO PLAZA

Las crónicas de Narnia  
Egubakoitza, 21: 22:30.  
Memorias de una geisha  
Martizena: 22:30.

### MADAGASCAR

Egubakoitza, 28: 22:30.

### ARRASATE MONTERRON PARKEA

X-men: la decisión final  
Egubakoitza, 21: 22:30.  
Scary movie 4  
Egubakoitza, 28: 22:30.

### ELGETA ESPALOA ANTZOKIA

(Zehaztu gabeko filma)  
Eguaztena: 21:30.

Uztaileko ikusleek erabakiko dute zein film ikusi.

### ESKORIATZA HERRIKO PLAZA

Wallace & Gromit: la maldición de las verduras  
Egubakoitza, 21: 22:30.

### EN LA CUERDA FLOJA

Astelehenetan: 22:30.

### 16 CALLES

Eguaztena: 22:30.  
Shin-Chan: abenturak  
Hederlanden  
Egubakoitza, 28: 22:30.

### FLORIDA-GURIDI

La educación de las hadas  
16:00, 18:15, 20:30.  
Cars  
18:00, 20:15.  
El tigre y la nieve  
18:00, 22:30.

### EL ÚLTIMO DÍA

18:00, 20:15, 22:30.

### UN TOQUE DE SEDUCCIÓN

18:15.

### LA SOMBRA DE LA SOSPECHA

17:30, 20:00, 22:30.

### EL SEÑOR DE LA GUERRA

20:00, 22:30.

### CARS

18:00, 20:15.

### EL TIGRE Y LA NIEVE

18:00, 22:30.

### LA CASA DEL LAGO

22:30.

### ROSARIO TIJERAS

22:00, 00:30.

### YELMO CINEPLEX-GORBEIA

Superman returns  
12:15, 16:00, 19:00, 22:00.

### TU VIDA EN 65 MINUTOS

20:35, 22:25, 00:20.

### EIBAR UNZAGA

Superman returns  
Egubakoitzetik eguztenera:  
18:30, 22:00.

### RIALTO

Cariño, estoy hecho un perro  
Egubakoitza: 19:30, 22:15.  
Zapata eta domeka: 17:00,  
19:30, 22:15.  
Astelena eta martitzena:  
19:30, 22:15.

### GASTEIZ GURIDI

Cariño, estoy hecho un perro  
17:30, 20:00, 22:30.

### DESDE QUE AMANECE APETECE

17:30, 20:00, 22:30.

### CARS

17:30, 20:00.

### SUPERMAN RETURNS

17:30, 20:30.

### DOMÍNIO

17:30, 20:00, 22:30.

### ICE AGE 2

16:00, 18:00, 20:00.

### MISIÓN IMPOSIBLE 3

22:00, 00:30.

### SUPERMAN RETURNS

16:00, 19:00, 22:00, 01:00.

### X-MEN: LA DECISIÓN FINAL

16:00, 18:00.

### DESPDE QUE AMANECE APETECE

16:30, 19:00, 22:00, 00:30.

### LAS COLINAS TIENEN OJOS

20:00, 22:15, 00:30.

### EL CÓDIGO DA VINCI

17:00, 20:00, 23:00.

### ROSARIO TIJERAS

22:00, 00:30.

### GUAERDIKO SAIOAK

Eguerdiko saioak, egubakoitz  
eta zapatuan.

### EGUERDIKO SAIOAK

Eguerdiko saioak, domekan.

### ASTELENA, IKUSLEAREN EGUNA

(Jaiegunka izan ezik).

### YELMO CINEPLEX-GORBEIA

Superman returns  
12:15, 16:00, 19:00, 22:00.

### TU VIDA EN 65 MINUTOS

20:35, 22:25, 00:20.

### EL ASUNTO BEN BARKA

22:30.

### TU VIDA EN 65 MINUTOS

18:00, 20:15, 22:30.

### EL SECRETO DE ANTHONY ZIMMER

18:00, 15:15, 22:30.

### ACCUSED

18:00, 20:15, 22:30.

### ÁBACO-LAKUA ZINEMAK

Vecinos invasores  
12:15, 16:10, 18:10.

### LA SOMBRA DE LA SOSPECHA

12:15, 16:00, 18:15, 20:30,

### DOMÍNIO

12:15, 17:00, 19:30, 22:00,

### EL CÓDIGO DA VINCI

12:15, 16:15, 19:15, 22:15.

### Ella es el chico

20:10, 22:20, 00:25.

### CARS

12:15, 15:45, 18:00, 20:30,

### EL TIGRE Y LA NIEVE

12:15, 15:50, 18:05, 20:20,

### LOS MANAGERS

12:15, 15:45, 18:05, 20:20,

### ASTÉRIX Y LOS VIKINGOS

12:15, 16:20, 18:10, 20:00.

### Ella es el chico

20:10, 22:15, 00:30.

### LA CASA DEL LAGO

12:00, 16:20, 18:20, 20:25,

### 22:30, 00:45.

### SUPERMAN RETURNS

12:00, 16:00, 19:00, 22:00,

### 01:00.

### LOS MANAGERS

12:15, 16:10, 18:15, 20:20,

### 22:30, 00:45.

### EL CÓDIGO DA VINCI

22:10, 01:00.

### CARS

12:10, 17:00, 19:30, 22:05,

### 00:30.

### CARIÑO, ESTOY HECHO UN PERRO

12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15,

### 00:15.

### ASTÉRIX Y LOS VIKINGOS

12:15, 16:25, 18:25.

### ¡VAYA VACACIONES!

12:15, 16:35, 18:35.

### A TODO GAS 3

12:10, 17:00, 19:45, 22:15,

### 00:45.

### LA SOMBRA DE LA SOSPECHA

12:00, 17:00, 19:40, 22:10,

### 00:30.

### LA PROFECÍA

# Arrasatetik izarren ligara

**AURKEZPENA** Realak eta Astorek datozen bi denboraldietarako jantziak aurkeztu zituzten eguztenean Zubietan

**NOBEDADEA** Kamiseta txuri-urdinak marra finagoak ditu eta 1980ko hamarkadako urdina berreskuratu dute

**BIGARREN KAMISETA** Marra horizontalak ditu diseinu berriak, beltzak eta urdin perla kolorekoak

**EDU MENDIBIL > ARRASATE**

Realak eta Astorek datozen bi denboraldietarako jantziak aurkeztu zituzten eguztenean, Zubietan. Xabi Prieto, Skoubo, Riesgo, Kovacevic eta Rivas jokalarien modelo lanak egiten zituztela, Esteban Uribesalgo Astoreko gerenteak eman zituen jantziengatik ezaugarrien berri. Nobedade nagusia zera da: kamiseta txuri-urdinak marra finagoak ditu eta 1980ko hamarkadako urdina berreskuratu dute. Urrezko aroko emaitzak berreskurtzea ona litzateke. Galtzerdiak ere txuri-urdinak izango dira eta jokalarien izenak eta zenbakiek adierazteko kolore zuria erabiliak da, profil urdinarekin. Bigarren ekipazioan egin dituzte aldatu deigarrienak: marra horizontala, beltzak eta urdin perla kolorekoak. Eta aurreko denboraldian zeresan ugari eman zuen Riesgoren kamiseta horia baztertu egin dute: Bravo ateazain txilearrak edo Riesgok berak kamiseta berdea jantzikoa dute. Realak lagunarteko lehen

partidua jokatuko du bihar, Birmingham, Doncaster Rovers taldearen aurka. Aurre-denboraldian Inglaterran, Grezia, Portugalen eta Italian jokatuko dituzten partiduetan egingo dute kamiseta berrien estreinaldi ofiziala.

**HARREMAN LUZEA**

Arrasateko Astore aspaldian ari da Realak janzten. Realaz gain, aurten Txapeldunen Ligaren ariko den Osasuna taldearen kamisetak egiten dituzte, besteak beste. Eguzteneko aurkezpen ekitaldian Uribesalgok adierazi bezala, modari jarraituta kamisetak estuagoak dira gaur. ActiveDry izeneko ehuna erabili dute, jokalarien erosotasuna eta mugikortasuna errazteko helburuarekin. Temperatura eta hezetasuna erregeulatzaileak ere badituzte kamisetok. Txandalak, poloak eta bermuda prakak ere aurkeztu zituzten eguztenean, Zubietan. Denboraldi berria hasten denean, kamiseta salmentak gora egitea Realaren martxa onaren adierazgarri izan daiteke.



AURKEZPENA Prieto, Skoubo, Riesgo, Kovacevic eta Rivas, Realak erabiliko dituen jantzi berrieikin.

GOIENKARIA

**ahobero**

"Hemendik urte batzuetara ez dakit Real Madril txapeldun bat ikusiko dugun edo 2. B mailan Sanse-ren aurka jokatuko duen talde bat"

John Toshack > Entrenatzalea Bere iritzi artikuluetan Real Madrildik mindutu atera zela antzematen zaio *euskal gales-tarrari*. Orain, gogor kritikatu ditu Real Madrilgo presidente berria eta Mijatovic kirol zuzendaria.

**iturri onetik**

**Bergaran bederatzitzea eman ostean Santa Marina utziko du Xabier Azkoitiak**

Azken urteotan Bergarako Santa Marina elizako parrokoa izan den Xabier Azkotia urretxuarrera Madrilera joango da apaiz lanetara, datozen bi urterako.

Azkoitiak 40 urte ditu eta 1997ko urrian iritsi zen Bergara. Donostian egin zituen Teologia ikasketak eta 1990ean ordenatu zen apaiz. Bergarara etorri aurretik zazpi urte eman zituen Legorretan eta Goierriko bailaran.

**piperraутса**

Mikel Irizar > www.goina.net/blogak/piperraутса

## Udako unibertsitatean

**A**stelehen da eta Iruñean nago. Udako Euskal Unibertsitateak ekarri nau nafar guztion hiriburura, aspaldiko partez. Duela ia 30 urte ere izan nintzen, osasunaren antolaketaz hitzaldia ematen, Larraona egoitzan. Hiru hamarkada geroago ikasle nator, euskararen erabilera sustatzeko mintegira, lan berriak bultzatuta.

Ez dirudi nireak progresio itzela, areago litzateke erregresioa. Gaztetu ere egin naiz ikasle bihurtuta, denboran atzera bainindoan. Orduan letxe, bihar goizean urduri samar jaikiko naiz, klasera joan behar eta. Ez, ez da gauza txarra helduaroan ikasteko prest egotea.

Zuekin etena datorkit aste honetan. Ea irailean, bueltan, 'beste horiek' lana ondo egin duten, eta gauzak aurrerago aurkitzen ditugun. Ondo pasa!

**ai, eñe!**



**Etxeko giltzak ahaztuta ere ez da ezer pasatzen**

Zenbait on-line dendatan sarrai-la biometrikoak saltzen hasi dira. Hala, hatz-marka erakustea nahi-koa da etxera sartzeko.

<http://tinyurl.com/f9gk9>

**Euskal soinu eta irudiak zure eskura!**

**ABESTIAK** POLIFONIKOAK (SMS 1) Abestiaren izena (Abestiarria) | **KODEA**

**Pop-Rock** Aitornea (Hertzainak) | **AITORMENA** Aizkolari (Kortatua) | **AZKO** Amore amore (Kardadeko benta) | **AMORE** Askatasun egariz (Lin Ton Taun) | **ASKATA** Begiak okertua (Lin Ton Taun) | **BEGINU** Bi Minutuero (Hertzainak) | **DUB** Egungero (Hertzainak) | **EGUNERO** EH Sukarra (EH Sukarra) | **SUKAR** El oso cien mierda, nosotros amen (La Polla) | **ELLOS** Enamorado de la muerte (RIP) | **ENAMO** Entzuidazu (Aterking's) | **ENTZU** Etorkizuna (Etsaiak) | **ETORKI** Ezer ez da betikoi (Ken) | **EZER** Gora Herria (Negu Gorriak) | **GORA**

**SOINUAK:** Bidali, SOINUE+hutsunea+**KODEA**  
**ABESTIAK:** Bidali, SOINUP+hutsunea+**KODEA**  
**LOGOAK:** Bidali, SOINUL+hutsunea+**KODEA**  
**JOKOAK:** Bidali, SOINUJ+hutsunea+**KODEA**

**5767** zenbakira SMS bakopitzeko: 1,2 € + BEza

**WEBGUNEAN** [www.smsoinu.com](http://www.smsoinu.com)

**SOINUAK:** Bidali, SOINUE+hutsunea+**KODEA**  
**ABESTIAK:** Bidali, SOINUP+hutsunea+**KODEA**  
**LOGOAK:** Bidali, SOINUL+hutsunea+**KODEA**  
**JOKOAK:** Bidali, SOINUJ+hutsunea+**KODEA**

**5767** zenbakira SMS bakopitzeko: 1,2 € + BEza

**smsoinu**  
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

**LOGOAK (SMS 1) KODEA**



**OHARRAK**  
1. BATERAGARITASUNA: Registru zure poltsikoko telefonia bateragaria den eskeintzen ditugun produktuetan, helbidezko informazio guztia.

2. BALDINTZAK: Edukatzeko, beharrezko da GPS sistema aktibatzeak, jar zaitz zure hornitzalearekin harremanetan. Alfa ematea doan da eta Ki jatsizten beharko ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPS sistemaren alta ematea doan dira.

\* Euskatel deitu 900 84 02 00 telefonoa / \* Vodafone: deitu 112-ra / \* Movistar deitu 609-ra

3. ZALANTZAK: Esooen zaloñtzak ditzula, jarri gurkin kontakia: [smsoinu@smsoinu.com](mailto:smsoinu@smsoinu.com) / edo deitu 902 01 21 48 telefonoa.

4. PERTSONALIZazioak: Zure neurriara egin ditzakegi abesti eta logoa. Webgune honetan kalerautu eta erabilizaleek eskura deitezela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonoa.

Hotorre Bel-Eir (Bide Ertzean) | **BELAIR**  
Haizea (Ken) | **HAIEZA**  
Hegal egiten (Itzoi) | **HEGAL**  
Iku (Delirium Tremens) | **IKUSI**  
Iñaki (Ken) | **KEN**  
Inpernuen ate joka (Gatub) | **INPER**  
Jokin Uraini Hitzak (Bide Ertzean) | **JOKIN**  
Kaixo (Urtz) | **KAIKO**  
Lau Telatua (Itzoi) | **ITOIZLAU**  
Laztana (Latzen) | **LATZA**  
Lotusa egon arren (Kokein) | **LOTUTA**  
Loreboa (EXKUXU) | **LORE**  
Marea Gora (Itzoi) | **MAREA**  
Musturrek sartutte (Gatub) | **MUSTURREK**  
Nicaragua (Kortatua) | **NICA**

No time for love(Hertzainak) | **NOTIME**  
Salve (La Polla) | **SAVE**  
Sarni Sarni (Kortatua) | **SARRI**  
Sorginen leizean (Ekixku) | **SORGIN**  
Txatxo (Zarama) | **TXATXO1**  
Txus (La Polla) | **TXUS**

**Folk**  
Arratsalde honetan (Soriat-Bale) | **SOROTAN**  
Bai euskarani (Pintxo) | **BAI**  
Bakezaleak (Anje Duhale) | **BAKE**  
Bizkaia Maite (Bentio Lemoiz) | **BIZKAIA**  
Eperak (Anje Duhale) | **EPERRAK**  
Euskal Herria Euskaraz (Osorki) | **EUSKAL**  
Euskaldun berriaren balada (Osorki) | **EUSKALDUN**

Ez da posible (Ruper Ordorika) | **POSIBLE**  
Fura Fura (Osorki) | **FURA**  
Galiziara noa (Osorki) |  **GALIZIARA**  
Gemniko Arbol (Gonzalo Mendibil) | **GERNIKA1**  
Haika Mutl (Mikel Laboa) | **HAKA**  
Izaren hautsa (Xaber Lete) | **IZAREN**  
Lepoan hartu ta (Pantxos Pezo) | **LEPOAN**  
Marinelaren zai isrotan Bele) | **MARINE**  
Nere herriko neskata maite (B.J.Lerroux) | **NERE**  
Non geratzen den denborra (Mikel Urdangarin) | **NON**  
O! Ama Euskal Herria (B.J.Lerroux) | **OAMA**  
Tiruki (Osorki) | **TIRAK**  
Txabamabalatu (Mikel Urdangarin) | **TXATXA**  
Txoria txori (Mikel Laboa) | **TXORIA**  
Zaindu maite duzun hori (Ruper Ordorika) | **ZAINDU**